JOSU LANDA

Odolbildua

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2002 Josu Landa
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2002ko maiatza
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Joxemi Zumalaberentzat

–1–

Gauerditik aurrerako hitzorduek iragarpen ilunetan murgiltzen zuten Mentxu. Horregatik esan zion Santosi agian berandu helduko zela. Igarriko zion zer esan gura zuen hark bera bezalako puntualtasunaren maniatiko baten ahotan. Prakak jantzi zituen badaezpadan, eta orkatiletarainoko gabana. Kairako bidean gehienez sereno birekin topo egingo zuela kalkulatu zuen, ile-mataza osoa jasoko zion bisera, fieltrozkoa, bernaren kontra kolpatzen zuen bitartean. Bufanda kiribilkatzea izan zuen ispilu aurreko azken egitekoa.

Minutu batzuk egin zituen espaloiaz bestaldeko etxe-atariko koska belunean jesarrita. Gustukoak zituen bere etxearen kontenplaziozko patxadaldi labur haiek, atsegin zuen jabegoarekiko harrotasun nardagarria. Aurrean zuen etxea berea zuen, eta ez zekien zer zuen bereago harrizko eraikin zaharkitu hartan, beheko zati osoa hartzen zuen botika, ala goiko solairuetan zegoen ostatua. Periko entzun zuen alboko kaletik

gora pasatzen, eta kontrako aldetik kairantz abiatu zen, bai baitzekien beste serenoa, Totorika, sona handiko edatunetakoa zela herrian eta apo-apoan agertzen zela bazterrotatik inork birritan deitu barik.

Kaian Joselu zeukan itxaronaldi urdurian.

– Ea hire aita zoro horrek zer gertatu digun gaurko. Ez zaizkidak ordu ilunetako ibilerak gustatzen.

– Atoiontzian dago zure zain.

Mentxuk gero eta gehiago maite zuen mutikoa. Urtebete lehenago aitari zoro deitzearen jolasa egin izan balio, nekez ziratekeen orain legetxe arraunean suabe eta baketan. Mentxuk antzeman uste izan zuen Joseluk eutsi egin ziola probokazioari, zetorkion erreakzio berezkoari. Bazekien bere jolasok gertu zutela krudelkeria, eta maite zituen hargatik.

– Hurrengoan, Joselu, txalupan bertan itxaron egik –batelean makurtu zen Mentxu, mutikoak arraunei eutsi bitartean–, ez hazatela ikus agerian gora eta behera.

– Hala egon naiz tarte luzean, berandutzen ari zinen eta azken minutuan igo naiz kaira

–Mentxuk erantzuten ez zuela ikusita jarraitu egin zuen–. Ia ordu erdi berandu helduko gara.

Egiazki, Mentxuk ez zituen ordu ilunotako ibilerak maite. Lainoa zuen iluntasunetan traketsena, lantxurdak apaldu egiten zion bizitasuna, eta gaztetan Mediterranioko argiak luzaz gozatu izanak areagotu egiten zion egurats gandutuaren zama, bazterralde lausotuarekiko tristura. Krudelkeriaren mugetako hoztasuna zuen defentsa bakarra.

– Badakik zergatik utzi zuen boxeoa Joe Louisek? Zer edo zer entzun nian beste egunean.

– Bost axola. Hogeitaka aldiz defenditu zuen titulua, eta denetan garaile.

Mentxuk tabako-poltsa atzamarrez arakatzeari ekin zion, begiak ere bertara.

– Zer entzun duzu bada?

– Ezer garrantzizkorik ez. Beldurra... horrelako marka bikaina lardaskatzeko arriskua, ba ei zekian ez zuela Ezard Charles garaituko.

– Joe Louis bezalakorik ez dugu luze batean ezagutuko. Zuk ez behintzat... hil aurretik.

«Ederto. Merezi du mutikoak». Milizkatu berriko zigarroa ezpainetaratu eta isiotu osteko zu-

rrupaldia arnas-hartze zaratatsuaz lagundu zuen. Zeremonia derrigorrezkoa zen beretzat, ia errituala. Kai inguruko buiak, sokak eta ontziak atzean utziak zituzten aspalditik, baina Joseluk etengabe jiratzen zuen burua branka aldera. Mentxuk suposatzen zuen ez zela erreka-laino itsutik tupustean sor zitekeen arriskuagatik. Joselu artega zegoen, eta berak bazuen horretan errurik. Hainbeste maite zituen tartekako isiluneek nabarmen aztoratu zuten mutikoa.

Txopatik hurreratu zitzaion batela *Bermejo II* atoiontziari. «Bazen garaia» izan zuten Santosen agurra, eskuma txikota zain luzatzen zuen artean. Koska txikia izan arren, jauzi egiten lagundu zion Mentxuri. Apa eman zion soka-muturrari Joseluri jaurtiki aurretik, bere begiak semearenetatik aldendu barik. Lainoaren iragazkiek indarra kendu zioten mezuaren gurasokeriari.

– Itzul zaitez kaira, seme. Gero Santurtzin barrena lehorreratuko gara.

Atoiontziko motorra martxan zegoen eta Mentxuk hankak zabaldu zituen zoruan, segurtasun bila. Gabanaren botoiak katean askatu ondoren bisera kendu zuen, eta ile-sapa beltzarana

bizkarrean behera haizatu. Ilehoria zen berez, baina gerra amaitu ezkero beltzaranera tintatua zeukan beti. Santosen atzetik jo zuen gidari-postura. Ibiltzerakoan eskuaz laguntzen zion ezkerreko hankari, ia nabaritu ere egiten ez zen herrena gutxiagotzeko.

– Ez zait lainoa batere atsegin, Santos. Aukera zenezakeen beste egun bat...

– Kexu gehiegi izaten duzu ahotan. Eguraldia gure alde dago gaur.

Ahoa bufanda azpian sartu zuen Mentxuk, berbak dosifikatu guran. Lainoaz haratagoko usnatze saioan ari zen.

– Irudipena daukat norbait zelatan ari dela lainoaren atzetik.

– Hitzordua Pedriñok egin du, zurekin kontaktatu gura ei duen morroi batek eskatuta...

Atoiontziaren jabea zen Pedriño Bermejoren aipua egitean, belarri parera altxatu zituen esku biak, erruak kitatze aldera. Motorraren durundia urrutitik entzungo zen, areago abiada bizkortzen ari zen horretan, baina Mentxu ez zen harexek salatuko lukeenaren beldur.

– Nora goaz?

– Azken Portura.

Nerbioi eta Abra inguruko kanpandorreak eta karilioiak joka hasi ziren. Erlojua kendu zion Santosi faltrikeratik. Makurtu egin behar izan zuen ordua ikusteko, katea laburregia zuen. Patroiak ere orratzei erreparatu zien, erlojua berreskuratuta.

– Ordu bata... berandutxo helduko gara.

– Seinale txarra... Areetako erlojuak ez du ordua jo.

– Zure marka guztiak onduko dituzu gaur, Mentxu... –gozo mintzatzen saiatu zen–. Zelan dakizu jo ez duena Areetakoa dela... eta zergatik seinale txarra?

– Heltzen ari gara. Ganbarotean itxarongo dut; eroan egizu morroi hori behera.

Santosek silueta ilun bat besterik ez zuen bereizi Azken Portuko kaian. Ez zuen zubia utzi behar izan, aski izan zuen helizeei kontrako indar apur bat ematea ontziaren karela lehorretik metro eskasean hurbiltzeko. Apurka zehatzagotuz zihoakion zain zegoen morroia, zutunik eta mugitu barik, xira ziztrin batez jantzirik eta burua soil. Besoaren mugimenduaz adierazi zion

ontzira jauzi egin zezan. Jaitsi eta soka pareaz atoiontzia amarratu eta gero ganbaroterako bidea egin zuten. Espero baino gazteagoa zirudien bisitariak, hiruretan gazteena bai behintzat.

– Atera egizu oporto pixka bat, Santos... –gelaren erdian zegoen Mentxu, harro plantan zain.

– Ez naiz tragotan etorri...

– Ez, itxaron, neronek prantatuko ditut.

Ezezagunaren presentziaz beste eginez ekin zion Mentxuk enkontruari, eta haren aurpegira begiradarik zuzendu ez zuen legez, haren berbek ere ez zuten, antza, ardurarik lortu emakumearen belarrietan. Goiko armairutxo batean zegoen botila patxada handiz miatzeari ekin zion Mentxuk. Etiketen tamaina txikiko hizkiak irakurtzeko ere beta hartzen zuen aldizka. Isiluneak trinkoagotu egiten zuen ganbaroteko giroa, eta berbarik ez egitea gero eta plazeragoa zitzaion Mentxuri, taktikaren eta jolasguraren arteko muga ezagunean. Santos besoak gurutzatuta zegoen bizkarra atean etzanda, eta bisitaria gelaren erdian, tximak beratuta eta jantziak blai. Mentxuk sortutako beirazko tilinak soilik entzuten ziren gelan. Ezinegonak bultzatu zuen mo-

rroia eskaizko besaulki zikin batean jesartzera. Mentxuk hiru kopatxo bete zituen eta gorputza jiratuta edalontzi bana eman zien. Santosek ez zuen hartu. Aurreko muzinaren ondoren, «ez naiz tragotan etorri» errepikatu zuen Mentxuk bere kolkorako, barretxo bat egin zuen.

– Inporta zaizu beste jesarleku horretan jartzea? –zurezko aulkitxo bat seinalatu zion–. Zu zagozen horixe dut gogokoena.

Oporto apur bat isuri zuen lurrera morroiak jesarlekuz aldatzean.

– Eta? –galdetu zuen Mentxuk, segundo erdi bateko zurrutaldiaren ondoren.

– Indotxinara joateko asmotan nenbilen, lanerako jendea behar ei dute frantsesek han, baina hemengo poliziek harrapaturik naukate, eta xantaiatu egin nau. Kartzelari ihes egiteko modu bakarra hauxe jarri zidaten: zuen bandan infiltratzea haientzat lan egitearren.

– Delinkuente arriskutsua zaitugu, beraz, poliziek hain harrapaturik baldin bazauzkate.

– Ez txantxarik egin. Nik ez dut txibatoa bihurtu nahi –klinkada bakarrean sikatu zuen kopatxoa–. Polizia gainean daukazue, sinis egida-

zu, zuen urrats guztiak kontrolatzen dituzte. Niri dagokidanez, diru truke datu faltsuak emango nizkieke, eta kito. Ihesa antolatzeko behar dut.

– Hoa poliki, nahastu egingo nauk bestela. –Mentxuk berriro bete zion edalontzia, eta berea mahaian utzi–. Ez zekiat ongi ulertu dudan, ez zekiat zer ulertu behar dudan ere. Zuk ulertu duzu, Santos?

Santosek ezezkoa egin zuen buruaz, eta sakelatik erlojua aterata giltza emateari ekin zion. Mentxu zutitu eta Santosen aldameneko paretan bilatu zuen sostengua. Lagunaren lehenagoko modu berean gurutzatu zituen besoak.

– Ez zekiat zehazki zertaz ari haizen, baina zerbait konkreturik gura izanez gero, eska egik lasai, lasai baina azkar.

– Zuen bapore guztiak kontrolaturik dituzte. Nire lankidetzaz txakurrak uxatu ahal izango dituzue. Hori da nire proposamena.

– Uste diat tronpatu egin haizela.

– Nik ez dut uste, zu Carmen Diaz zara.

– Diaz ez, Diaz de Alza. Abizenean ere ez duk asmatu.

Txizagurak aztoratutako berna estutze batzuk burutu zituen Mentxuk. *Bermejo II*ko komunak probatutakoa zen, kuxidade bat.

–Sentitzen diat, iruditzen zaidak ez duela luzatzea merezi.

– Hobe pentsatu behar zenuke.

Edalontzia kendu zion eskuartetik Mentxuk, mahaira ekarri zuen.

– Beste bat arte.

Bakarrik gelditu zelarik, harraska txiki bateko zuloan behera isuri zituen edari-hondarrak, eta beira guztiak armairutxoan gorde. Arpegio batzuk markatu zituen atzamarrekin mahaiaren ertzean, Santos itzuli arte.

– Alde egin baino lehen esan dit aski lukeela Pariserainoko bidaia ordaintzearekin.

– Santos, oporto hobea izaten zenuen lehen, sarriago etorri beharko dut zure ikatzontzi honetara.

– Abiatuko gara?

– Bai, eta esaiozu Pedriñori ez partitzeko konfiantza hain erraz halako jendilajearen artean.

– Seguru morroi hori txakurra zela...

– Eroan nazazu lehenbailehen etxera. Ohera behar dut, izoztuta nago.

Eskaileran zur-hotsa sentitu zuelarik irratiaren bolumena jaitsi zuen Antoniak, eta galtzerdi batzuen sarea birjosten jarraitu.

– Santosek esan dit ordu erdi barru edo etorriko dela.

Antoniak ez zuen inoiz «senar» hitza erabiltzen Mentxuri Santosen berri aipatzean. Aspaldiko ohitura zuen, nahiz eta osterantzeko guztiei «nire senarra» azpimarratu ohi zien ahal zuen guztietan, seguru aski etxe berean emakume bi eta gizon bakarra bizitzeak herrian sor zitzakeen esamesen itotzeko. Josketa utzi eta lurruna zerion ontzitxoa hartu zuen mahaitik.

– Zure tisana hauek miresgarriak dira, Mentxu –belaunburuak estututa, esku biak katiluaren inguruan bilduta, horma-irudi egiptoar batetik ateratako figura zirudien–. Askoz arinago sentitzen ditut hankak pasa den asteaz geroztik.

Gerrikoaren botoia askatu zuen Mentxuk. Hasperen egin zuen.

– Tabakoaren modukoa da. Nahasketaren proportzioetan asmatzea da sekretu bakarra –eta kolpe monotonoz errezitatzeari ekin zion–: laurdena honetatik, bostenaren erdia beste hartatik... Entzun duzu gaur Areetako elizako erlojua?

– Ni ez nengoen erreparatuta baina Marinak, Joselurekin batera gimnasiora egiten duen beste Tomasito horren amak, ba horrek gauza bera esan dit, Areetakoak ez dituela azken egunotan orduak jo. Ahaztu baino lehen, Eusebia izan da arrastian, ezagutzen ez nuen botika bat eskatu dit eta bihar etortzeko esan diot, nahiz eta domeka izan ostatuko atetik sartuta kasu egingo diozula. Pena eman dit, Getxotik hona espreski etortzen da zurekin fidaturik. Oso oinaze arraroak ei ditu...

Mahaian zegoen orratz luzea hartuta esparru zabal bat zirriborratu zuen bizkarrean, Eusebiak deskribatu ziona errepikatu guran, garondotik giltzurrunetara eta alderantziz, eskuma aldetik goitik beherakoa eta ezkerretik kontrako norabidea. Jaiki eta hormako ispilura hurbildu zuen aurpegia Mentxuk, Eusebiaren kontuak aipatzeak

sortutako ezinegona ezkutatzeagatik. Begian zikinen bat sartua legez aritu zen. Antoniak etengabe jardun zuen Eusebiaren sintoma guztien deskribapena egiten.

– Har egizu arnasa, Antonia, eta edan itzazu belarrak lasai –botikarekin lotzen zuen atetik galdu zen eta ozen galdetu zuen–. Zer ordu da?

– Hamarrak eta hogeita bat minutu.

Gogotik maite zuen Antoniaren zehaztasuna. Aurrean bezero marinelen bat izan balitz «hogeita biak eta hogeita bat» esango zukeen seguruenik. Lepoa luzatu zuen Mentxuk atearen bueltan eta botikako paretan zegoen ordularian ere erantzun bera jaso zuen. Ostatuko harrera-gelakoak ere ordu-minutu haiek adieraziko zituen, duda barik. Izugarri laket zitzaion Antoniaren begiramena.

– Badugu bezero berririk?

– Izan da koadrila bat, portugesak ematen zuten, baina karuegia iruditu zaie –eskuak gerritik beherako amantalean astindu eta zutitu zuen burua–. Ez dakit nola moldatuko garen, azken hilabeteotan gero eta gutxiago etortzen dira. Prezioak igo genituenetik...

Lotsatuta bezala eten zuen esan beharrekoa, ez ote zioten belarrek tentua larregi baretu.

– Bihar hiru itsasontzi datoz Santurtzira, bat ingelesa, eta horiek ez diote diruari horrenbeste begiratzen. Aspaldion ofizialak besterik ez zaizkigu etortzen.

Kargu hartze tonua igarri zion Antoniari.

– Gaur pentsatzen egon naiz. Datorren hilabetean Joseluk hamazazpi urte beteko ditu, ezta?

– Ekainaren hamazazpian, hamazazpian hamazazpi –eta barre egin zion zifren biribiltasunari. Segundo batzuetan isilik egon zen, jolasari segida eman aurretik–. Hamazazpi, ez da zenbaki txarra, hamazazpi urterekin ezagutu nuen nik Santos, Cabanyes kaleko hamazazpian hartu genuen alokairua, eta ezkontzatik hamazazpi hilabetera jaio zen Joselu.

– Pentsatu dut ederto legokeela zer edo zer berezia antolatzea Joseluren urtemugarako.

– Burua ez balu hain boxeoari emana! Oso arraro dabil azken aldion. Ilundu eta gero bueltatzen da egunean-egunean gimnasiotik.

– Berton jarriko diogu gimnasioa, hara oparia! –Antoniaren aurpegieraren ilunak behartu zuen Mentxu zuzentzera–. Beno, hori broma da baina pentsatu behar dugu zer egin.

– Ez gagoz gastuetarako, Mentxu.

– Ez zaitez kezkatu horrekin. Ostaturako dirua behar izanez gero, botikako kaxatik har dezakezu. Gabon, Antonia, gora noa –albotik pasatutakoan, ostera jiratu eta bekokian musua eman zion Mentxuk dozena bat urte zaharragoa zuen emakumeari.

– Kostako zaio gaur lainoa jasotzen.

Dingilizka zegoen letrerotxoarekin olgetan ari zen Mentxu, ateko kristaletik begira bitartean *«cerrado»* eta *«abierto»* jirabiraka tartekatuz. Antoniaren lana islatzen zen kaleko ilunak erdiispilu bihurtutako kristalean. Botikako mostradore ostean erratza nola pasatzen zuen miratzen egon zen apur batean.

– Okindegian izan naiz eta, herenegun gaueko hilketaz ari zen jendea zurrumurruetan atertu barik. Zesarreneko Pilar eskandalizatuta zegoen

eliza barruan izan zelako, noraino ailegatu behar dugu eta horrelakoak esaten. Pentsatzekoa da egunkarietan zer edo zer jarriko duela, baina ez dakit gehiago.

– Antonia, posible da ongi hornitutako arrautza parea gosaltzea?

– Baina gaur domeka da... betiko pastelak ekarri dizkizut, sukaldeko mahai gainean dauzkazu.

– Bai, bai, barkatu –begiak kristaletik urruntzera behartu zuen Mentxuk bere burua, anestesiaturik sentitzen baitzuen gogoa, eta ez zitzaion batere gustatzen pentsamendurik gabeko gogoetan jardutea, orduan ari zen bezala–. Santos iratzarri da?

– Goizean goiz irten da arrantzan –erratza utzi eta, harrituta bezala, burua altxa zuen Mentxurengana–. Domeka guztietan legez.

– Barkatu berriz ere. Kafea hartu aurretik ez naiz pertsona. Mesedez, joango zara gero egunkariak erostera? Denak, baita *Hierro* ere, inporta ez bazaizu.

– Arratsaldekoa bere garaian, baina beste biak mahai gainean dauzkazu. Santosek esan du

gero atoiontzitik pasako dela fuelaren bonban ez dakit zer konpondu behar duelako, eta eguerdira arte ez ei da itzuliko.

Burua abian jarri beharra nabaritu zuen Mentxuk, eta horretarako erabiltzen zuen metodoari, eguneko plana kronometratzeari, ekin zion sukalderako bidean. Bederatzi t'erdietan gosaltzen hasita, ordubetera Santurtzirainoko paseoa eta, ondoren, hamabietan udal bandaren kontzertua kioskoan. Bazkalostean, Chopin-i dedikatuko zion arratsaldea, urteak zirauen omenaldi pribatu eta obsesiboan.

Egunkarietan ez zuen Algortako hilketaz ezer aurkitu, eta bere buruaz trufa egin zuen halakorik espero izateagatik. Horrelako albisteak ez ziren inoiz argitaratzen, eta ezarian irakurri zituen erreportaia luze bi, bata delinkuentziak Ingalaterran jasandako gorakada demasari buruz eta bestea Frantziako turismoak nozitzen zuen krisia zela eta. Azken orrialdeko berri batek berdindu zion albiste gosea, «esaten nuen ba!» murmurikaturik titularra irakurri zuen: «Areetako erlojua hondatu egin da zaharraren zaharrez.

Bertako erretoreak adierazi digunez, karua izango da konpontzea».

Hogei metro koadrotik gora zituen Mentxuren gelak, eta berton zeukan beharrerako eta atsedenerako guztia. Beharbada zokoan zegoen ohea zen behin-behineko itxura zeukan altzari bakarra, gelako beste elementuekin bereizteko bionbo baten falta nabarmendu guran. Beste altzari eta osagaiak multzo bitan bezala zatituta zeuden. Iparrera jotzen zuen aldean musika zen nagusi: pianoa, aulkitxoa, besaulkia eta apalategia, liburuz eta partituraz betea. Hegorakoan, berriz, botika-laborategia zegoen, edozenbat potez eta tresneriaz hornitua. Alanbikea, su txikiak, metalezko eta beirazko ontzi eta lanabesak edonon. Leiho bi eta ate bi, sarrerako atea kontatu barik. Denak berresten zuen gela hartan bibitako banaketa. Musikaren eremua esan litekeen hartan zegoen apalategia zuen salbuespen bakarra, medikuntzako idazkiak ere jasotzen baitzituen nahasian. Hantxe egiten zituen bazkalosteko pausaldiak, jai egunetakoak pianoan eta la-

negunetakoak laborategian. Argipean zen leihotik pianoak monopolizatzen zuen pareta ikus zitekeen, horretan ere gelaren banaketak indarra edukiko balu moduan, bata publikoa bestea pribatua.

Arratsalde hartan gogoz egin zion aurre pianoari, eta pieza laketgarria aukeratu zuen. Hormako erlojuari begiratu zion bizkarra tentetuta, eta bostak eta hogeirako falta ziren hogei segundoak besoen luzamenduak eginez eta atzamarretako hezurrak kraskatuz pasatu zituen. *Gauekoe*tatik 6.ari, Opus 15/3.ari ekin zion, partituraari ia inoiz begiratu gabe. Buruz zekien baita orrialdea noiz aldatu behar zen ere, eta hala egiten zuen, begiak zabaldu barik. Umetan jasotako iaiotasunari esker, musika-tresnak sortzen zuen melodia eta soka-zur durundi nahasian kontzentratzen zuen belarria, horrek eragindako lasaitasunean gogoa beste zereginetara emateko. Domeka bati zegokion eran, hurrengo asteko egin-kizun eta betebeharren agenda osatzera.

Pieza hura amaitutakoan, hormako erlojuari begiratu zion, eta emaitza ez zuen gustukoa izan. Bostak eta hogeita lau t’erdi ziren... behar

baino bizkorrago jo zuen. Aulkia biratu eta lurretik jasotako arkatz eta koadernoaz ohar batzuk idatzi zituen: hil hasierako janari-eskaria bideratu ostaturako, iraileko botikarien kongresurako izena eman, jasotako estreptomizina-lagin berriekin frogak burutu. Eginkizun horietako bat ere ez zen, baina, pieza azkarregi jotzera bultzatu zuena. Orobat, gero eta nekezago zitzaion pianoaren nota desafinatuak jasan behar izatea. Luxuzkoa eritzita edo, ez zuen afinadoreak kobratzen zuen dirua horretan gastatu gura. Bost urte lehenago bera saiatu zen afinaziorako gakodoitze lanak burutzen, baina emaitza penagarria izan zen eta orduan bai, egun hartan bertan deitu behar izan zion afinadoreari, biharamunean pianoa joko bazuen.

Kontzentrazio handiagoa eskatuko zion beste pieza bat aukeratu zuen, hau ere *Gauekoa:* 12.a, Opus 37/2, eta bost t'erdietan puntuan ekin zion kasu handia emanez ezkerreko eskuak eskumakoari noiz bide eman. Askoz ere luzeagoa zen oraingoa, eta hala berean heldu zien lasai hurrengo asteko eginbeharrei. Ez zuen kontzentratzerik izan ordea. Hiru egun lehenago Azken Por-

tun izandako elkarraldia zen planifikatutako pentsamenduak zurrupatzen zizkiona. Santosi ez zion ezer esango, ez zuen inguruneak berezkoa zuen urduritasuna areagotu gura, baina morroi haren bisitaz egin zitzakeen hipotesi guzti-guztiek ematen zioten kezkarako bide. Ateko danbek eten zioten joaldia eta gogoeta. Eusebia behean zain zeukala iragarri zion Antoniak.

Dotore jantzita zetorren Eusebia, jai-egunari eta diru-ahalmenari zegokion bezala. Artikulazioetan aspalditik nozitutako oinazeek gutxieneko beste hamarretan zamatzen zioten berrogeita hamarreko adina. Eskailera magaletik irribarre egin zion, edozertara ere, begirada goraturik.

– Arratsalde on, Eusebia. Eguerdian etorriko zinela pentsatzen nuen.

– Zinemara joateko baliatuko dut hona etorri izana. Hemengo zinema berrian Areetakoan baino aulki erosoagoak dagoz, eta nire gerri-bizkarrek eskertu egiten dute. Gezurra dirudi, baina Areetakoek harrizkoak dirudite.

– Areetan ez duzue zinemaren beharrik. Bilbora egiten duzue, antzerkia eta *varieté* finak dastatzera –jesartzeko egin zion Eusebiari boti-

kaostean sartutakoan–. Esan zidan Antoniak oinaze berriak dituzula bizkarraren zabalean.

– Jaiki berritan batik bat. Egunean zehar, gorputza apurka berotzen denean, gutxiago.

Lepa-uztaiak atzamarrez tinkatuz ekin zion eta oinaze-islei erreparaturik sorbaldatik behera poliki haztatuz joan zen gerrigainetaraino. Gogortuak zeuzkan hegalak eta normalean baino konkortuago bizkarra. Beti bezala, ezer galdetu barik azaldu zen Mentxuk irrikagarrien zuen gaia.

– Pozik dabil zure ama, eguenean topatu nuen ileapaindegira zihoala. Susmoa dut aitari zakarkeriak apalduz doazkiola urteen poderioz. Zure nebaren gutuna jaso berri dute, Madrildik, badirudi negozioak abiada bizian daramatzala Juanek... –bizkarrezurra tentetu zuen Mentxuren atzamarrek sortutako minberagatik. Arnas-intziri baten ondoren jarraitu zuen–: Ea zelan zabiltzan itaundu zidan. Ederto, esan nion.

– Hala da. Hurrengoan esaiozu asko maite dudala.

– Beti esaten diot.

– Baina esango diozu sekretua dela –burua jiratu zuen Eusebiak, eta konplizitate-keinuak «jakina» moduko mezua bidali zion aurpegiko giharrek eginiko morse adiskidekor batez–. Erdu neurekin –eta botikarantz abiatu ziren.

Portzelanazko pote batetik ontzi txiki batera isuri zuen likido garden txorrotadatxoa. Beste hiru potetako koilarakada bana bildu zituen ontzitxora.

– Eman egizu linimentu hau oraingoz. Gauero, oheratu aurretik. Honek usain txarra dauka eta lurrun goxo hori ez da paseatzen ibiltzekoa. Martitzenerako prestatuko dizut gauza bera baina ukenduan. Horretatik edozenbat eman ahal izango duzu, oinazea desagertu arte.

– Esadazu zenbat den –Mentxuren besarkadak berba-jarioa eteteko asmoz egina zirudien–. Sekulan kobratzen ez didazunez, ez daukat aitzakiarik senarrari sosak zertan gastatzen ditudan kontu emateko –eta barre egin zuen tonuari eragindako ironiaren segurtasunaz fio ez bezala.

– Hurrengorako eros iezazkidazu kulero batzuk Lopezen mertzerian, gura baduzu –eta algara egin zuten biek.

Eskerrak emanda irten zen kalera ostatuko ataritik. Merkanteko hiru marinel azaldu ziren goiko solairutik behera. Ostatu hartu berriak behar zuten, Mentxuk aurretik ikusi gabeak zituen eta. Euren artean ingelesez ari ziren, baina batek espainolez galdetu zion ea zer ordutan irteten zen Bilbotik Portugaleterako azken trena. Bederatzi t'erdietan, baina edozein ordutan taxiak erabiltzerik bazutela, gura izanez gero. Ostatuko atea gau osoan kisketa eman barik zegoela eta edozein ordutan helduta ere sartu ahal izango zutela. *«Gutbai»,* Mentxuk, eta *«arios»,* kapitaina behar zuenak.

Osteratxoa egiteko ohitura zuen afaldu aurretik. Dendan edo laborategian igarotako arratsaldeek zamatzen zioten burua arintzearren baino, usadioari zegokion gabana jantzi eta kalera irten beharra zen hura. Porturainokoa burutzen zuen lehenik, egun parte haren protokoloan lehen gerri-okertzea itsasoari baitzegokion. Itsaso gatibuaren –hala kontsideratzen zuen itsasadarrak mugatutako ura– uhin txikien printza kolore aldagarriek Eusebiari agindutako ukenduaren tamainako lasaigarria eragiten zioten. Abra-

ko hedagunetik libratutako olatu-klasea eta zeruertza ikusiz gero zelakoa ote zen antzemanda, biharamuneko aroa diagnostikatzera ematen zituen lehen minutuak. Egun hartan begi-bistan zegoen zeruertz urruna, hodei erraldoiek beltzerantz larri grisatuta. Denboralea zetorren, baina ordu bitarako aterrunea bazen gutxienik.

Generalisimoaren plazan gramolak oraindino dantzara zekartzan gazteak, eta Mentxuk irribarre egin zuen hilean behin orkestina egon ohi zelako herrikoen harrotasunaz oroituta, inguruko herri askotan dantzaldiak anplifikadoreetatik Radio Nacional goratuta egiten zituztela eta. Udaletxeko erlojuak adieraziko zion bederatziak laurden gutxiagoetarako zenbat denbora falta zen, eta ordu erdi baino gutxiago izanez gero, tren-geltokiraino helduko zen; bestela, Vicuña kaleko bodegoira joko zuen, kafea –edo kafearen halakotsua– zerbitzen zuen bodegoi bakarrera. Lanegunetarako hobesten zuen terrazetako eta kafetegietako giroa.

–2–

Ekaitz burrunbatsuetako gauek eragiten zioten barealdian zegoen Mentxu, Rafael Artekalekoak igorritako Friburgoko Botikarien Kongresuaren akta eta txostenak irakurtzen. Minutu batzuk lehenago, leihotik begira aletu zituen zigarroa erre bitarteko begirakuneak eta hausnarketak. Haize erauntsiek kaleko harlauzen gainera jaurtikitako ur parrastek errekatxo lasterrak sortzen zituzten espaloi bazterretan estolda bila, baina tanta soil batzuk baino ez ziren ailegatzen leihoko kristaleraino, eta tanta horiek beiraduran marrazten zituzten arrastoetan iragarpen ezkutua aurkitzen saiatu zen Mentxu, esku ahurreko zimurretan eta kafe hondakinetan egin ohi den bezala. Tabakoaren kearekin batera hatsak kristalean sortutako lurrunak ur tanta ibiltarietan zelanbaiteko indar magnetikoa izan zezakeela imajinatu zuen. Gortinak euren zabalenean lagata, ikatza berritu zuen sutontzian nahiz eta gela barrua lar bero izan, halako eguraldiarekin kontrastean, etxearen babesa izatearen zortea azpimarratu beha-

rra sentituz edo. Irratian uhin laburreko emisora ingeles bat aurkitu zuen, eta musika klasikoa nagusitu zitzaion leihoaz bestaldeko zaparradari. Hamar bat botila desberdin gordetzen zituen bazterrera hurreratu zen. «Ospatzeko gauza handirik ez dago, baina...», eta burbon xorta bat isuri zuen apalategitik hautatutako kopan. Mahai gainean zituen kongresuko txostenen inguruan laga zuen edalontzia eta aurreko zeremonia urratsez urrats bete zuela eritzita irakurtzeko asmoz jesarri zen.

Zizpuru luzea libratu zuen estreinako dangadaren ostean. Arnas-sakontze bik laxatua zioten barrena, baretuago gogoa. Bigarren solairu hartako paretaz kanpoaldean zegoen *«Fonda Portabella»* letreroaren argi-distirak kristalean barrena isla egiten zuen gortinetan, eta oroitu zen ostatuari bere deitura ematea proposatu zionean zelako poza hartu zuen Antoniak. Jesarri aurretik emandako urratsek ez zioten espero bezalako ondoriorik ekarri, aurrean zituen txostenek ez baitzuten behar bezalako kontzentrazioa merezi izan. Bertan ostatu hartuta zeudenen zerrendari ekin zion buruz. Zazpi marinel eta merkatari bat,

azken hau Bordeletik etorria armadoreei nabigazio sistema berri bat saldu guran. Esperantza eskasekoa behar zuen morroiak, Gran Hoteleko tarifei karuegi eritzita ailegatua baitzen Mentxurenera. Ez zuen galderarik egiten eta bere baitaratuta pasatzen zituen korridoreak eta jangela, oso diskretu.

Beste bost bezerorentzako gelak libre zeuden eta bilatu beharko zuen promozio txikerren bat egiteko modua, Antonia lasaitzeko besterik ez bazen. Santosen emaztea beti izan zen triste itxurakoa, baina kopeta ilunetik kezkara aldatzen zuen puntuan, zer edo zer okertzen ari zelako seinalea zen Mentxurentzat.

Irratia amatatu zuen instintiboki. Eguratsaren astuna bezalako indar batek etzan eragin zion ohean, eta erantzi barik manta soin gainean halamoduz hedatzeko gauza izan zen soilik. Azken kopa soberan ez ote zuen izan, agian bai, horixe izan zuen azken pentsamendu kontzientea.

– Mentxu, Mentxu, iratzarri lehenbailehen, Santos atxilotu dute, logelatik altxatu berri dute...

Kisketa itxi barik eduki arren, Antoniak ez zuen gelan sartzeko atrebentziarik hartzen, eta ateko euslekuari gora eta behera egiten zion sarrailaturik balego moduan. Aspaldiko lo sakonenetik azaleratu behar izan zuen Mentxuren gogoak. Normalean baino segundo bat gehiago behar izan zuen jaiki eta bazihoala, bazihoala murmurikatuz txabusinaren bila itsuan hasteko, kaleko jantzian zegoela ohartu zen arte. Ezker-eskuma jo zuen kisketaz, Antoniari sar zitekeela klabez ohartarazteko edo, eta ohean jesartzera egin zuen. Antoniak lan-mahaiaren ondoko aulkia jiratu zuen Mentxurekin bekoz beko jartzeko.

– Astiro kontatu, Antonia, mesedez.

– Duela hogei bat minutu etorriko ziren... –eskuturrekoa begietara zuzenduta– seiak laurden gutxi aldera, eta batere zaratarik egin barik iritsi dira gure logelaraino.

Alegia, gau osoan ostatuko atea zabalik uztearen apeta hargatik egin ahal izan zutela barneraino interpretatu zuen Mentxuk, hala hartzen

bide zion kargu Antoniak. Sarritan esana zion txirrina entzunda bera altxatuko zela atarikoa zabaltzera. Espreski esandakoen hariari ere lotzen zitzaion, burua eskuek sostengatuta, ukondoak belaunburuen gainean, Mentxuren adimen erdianestesiatuak. Ez zioten argibiderik eman, kuartelillora edo Bilbora ote zeroaten, eta txukun janzten utzi ziotela behintzat, bultzakada gutxi batzuen laguntzaz kaleratu aurretik.

Xehetasun ugariren beharrik ez zuen, baina, Mentxuk; mundu kontzienterako trantsizioa egiteko ezinbestekoa zuen denbora pasatzen uzteko baino ez. Bere logela hirugarren solairuan, eta Santosena lehenengoan izan arren, harrigarria zitzaion atxiloketaren eskandaluak iratzarri ez izana. Jaiki eta bekokian emandako musuaz gain, belaunbikatu eta estu besarkatu zuen Antonia, beharrizanak albo batera lagata lasai negar egin zezan. Negarraldi lotua zen, irrintzi ñimiño batzuk besterik ez ziren entzuten arnasarik gabeko eten amaigabe batzuen ondoren.

– Beste gelarik miatu dute?

Aurrez susmatzen zuen ezezkoa. Mukiak ozen zintzatu zituen Antoniak eskuturretik atera-

tako zapiaz, eta arnasaren estua baretzearekin Mentxuren atorraren besoari oratu zion.

– Mentxu, gauza ikaragarriak esan dituzte brigadakoek Santosi buruz. «Oraingoan bai, jausi haiz!», esaten zioten ahapetik baina gogor, eta niri zuzenduta «andrea, gerta zaitez hurrengo hogeita hamar urtetan Santutxuko presondegira kaxuelak eta otartekoak eroatera, beno, baldin eta lehenago garrotea ematen ez badiote». Ni saiatu naiz deiadarrik ez egiten, albait lasaien egoten, baina min lazgarria sentitu dut muinetan, Santosen kontra zegoen salaketa esan dutenean... –apurka lurrerantz ari zen andrea.

– Zer salaketaz ari zara?

– Gizon bat hil izana leporatzen diote, antza lehengoan Algortako elizan aurkitutako gorpua.

– Hori baldin bada, lasai egon. Hitz ematen dizut Santosek ez duela horrekin zerikusirik. Hala eta guztiz ere, goiz da oraindino. Goazen behera gosaltzera, eta pentsatuko dugu zer egin.

Antoniak aurrez aurre begiratu zion aspaldiko partez. Mentxuk sentitu zuen beharbada ez ziola

kontsolamendu nahikorik eman, edo behintzat hori adierazten zutela haren begi erregugileek.

– Bilborako trena zortziak baino lehenago hartzea alferrik izango da, ez duzu uste? Pentsatu behar dugu osterantzeko egitekoak nola bideratu, baina hobe hausnarketok almortzu on baten inguruan egitea.

Gorputza jasotzen lagundu zion, eta gelatik kanpora egin zutenerako hantxe zegoen Joselu, eskailerako goieneko mailan jesarrita. Emakume biak saiatutako kontsolamendu-berba bakanei ez entzunarena egin zien, amak «erdu, logelaraino lagunduko zaitut» esan arte. Gerria oratuta abiatu ziren biak. Mentxuk eskaileraren zulotik behera begiratu zuen. Ama-semeen pausoak lehen solairuan urrundu zirenean, goizaldeko isiltasunean arakatu zuen iluntasuna. Bigarren solairuko bezeroek lotan zirauten, edo zalapartak ez zuen inor barandara irtenarazi behintzat.

Eskaileran jesarrita minutu pare bat eman zuen isiltasunean laketurik eta, sukaldera jaitsi zenerako, Antoniarekin bateratsu egin zuen sarbidea. Zartagina labetik hartu zuen Antoniak, baina Mentxuren eskuek heldu zioten giderrari

sutegia isiotu eta gero. «Neuk egingo dut, zuk deskantsatu». Antonia bernak igurzten hasi zen, tentsio guztia bertan pilatu ote zitzaion. Eguneroko jokabideez bestera ari ziren, Antonia mahaiaren alboan hankak luze-luze eginda, eta Mentxuren jan-edan eskaintzei amen egiten. Bezperako kafearen lapikoa berotzen ipini, irratiaren azpiko erredizatik hiru arrautza, eta arasaren goiko apalean paperez bilduta zegoen hirugiharretik lau xerra hartu zituen. Zartagineko olioaren borborrak isilunea eten zuen.

– Bilbora joango zarela esan duzu, baina ez dakigu nora eroan duten.

– Arrazoi duzu...

Korridoreko altzarian zegoen telefonora jo zuen Mentxuk. Herriko taxistari hots egin zion, eta berehala zen sukaldean ostera.

– Andres Bilbon dela esan dit Pakitak. Beraz, Santos ere han izango da.

Ondorio haren harridura agertu zuen Antoniak, eta Mentxuk argibideren bat emateko beharra ikusi zuen.

– Ez duzu lehenago esan Santosen bila etorritakoak brigadakoak zirela? Kale-jantziz etorriko

ziren beraz, eta horiek herrian ez dute egoitzarik.

– Aurretik baldin bazenekien, zertarako deitu diozu Andresi? Herri osoa enteratuko zen honezkero.

Kafea kikaratan ipini, eta bitsaderaz platereratu zituen arrautzak eta enparauak Mentxuk. Bizkorregi zihoan eta apaldu beharra zeukan.

– Eurek horretarako antolatu dute dena, maitea. Ordu perfektua aukeratu dute, oharkabean aritu gura izan dute, baina aldi berean seguru zegozen handik ordu batzuetara herri guztiak izango zuela Santosenaren berri. Jendearen esamesetara ohitu beharra edukiko dugu.

– Ez dakit zer esan beharko diogun Inaxiri, eta Joxe Luisi, eta Eusebiari, eta...

– Lehen esan dizudan bezala, zortzietan hartuko dut Bilborako trena, eta pentsatu behar dugu zer egin botikarekin –kafearen mikatzak tonu indartsuagoan berba egiteko adorea eman zion–. Zu lasai, itxita edukiko dugu gaurkoz, bost axola neuri.

– Ez, Mentxu. Neuk jagongo dut botika. Zeuk bete itzazu egiteko denak, eta neuk hartuko ditut hemengo beharrok.

Antoniak lehertua zuen arrautza gorringoa, eta xardearen hortzez haur-marrazki batetik sortutakoa zirudien eguzki antzeko zerbaiti izpiak luzatzen zizkion platerean.

– Oso zaila da, baina kezkabako planta egitea zenuke ganorazkoena. Hemendik ordu bitara sakamantekasen pare erabiliko dute Santos, eta guk zeharo bestera egin beharko dugu, oker ulertuarena eta abar. Batez ere andrazkoekin ibili tentuz, eurek sinis dezatela da inportanteena.

Hirugiharren azken zukua ogiaz xukatu eta kafe kikara hustu zuen. Sarri pentsatua zuen benetako kafea hartzeagatik bakarrik merezi zuela ostatuaren negozioa martxan iraunarazteak.

Aduana zaharreko geltokian hartu zuen trena. Usoak ere nekez ari ziren egun berrira esnatzen, eta Chavarriren estatuaren inguruko lorategietan zebiltzan ibilaldi urdurian han eta hemen

mokoka nagian. Norabide desberdineko ezkiletatik heldu zitzaizkion zortzietako joaldiak, segundo gutxiren tartean, trenaren lehen bagoiko aurreneko aulki-ilaran jesarrita egunkaria irakurtzen zuen bitartean. Entzuna zuen istripua egotekotan zenbat eta aurrerago egon orduan eta okerragoa zela, baina gogoan zituen aurreko urtean Mirandan jazotakoaren argazkiak: lokomotora atzeko bagoia izan zen onik ateratako bakarra eta hilko ziren guztiak atzenekoan zihoazen. Txistu sarkor batek oroimenen haria eten eta lokomotora eta bagoiaren arteko lehen talka iragarri zuen, estreinako bapore bufada, eta apurka suabeagotzen eta azkarragotzen zihoan trenaren abiada. Mentxuk Bilborako txartela erosi zuen, baina hiribururaino egin ordez Sestaon jaitsi zen.

Geltokitik kalera egin zuenean, atzera ez begiratzeko gogor egin behar izan zion bere buruari. Ez zuen bost minutu baino luzeagoko ibilbidea egin, errepide nagusian bertan zegoen *«Remolcadores Bermejo»* letreropeko bulegora sartu aurretik. Pedriño bakarrik zegoen lehen solairuko gela txiki hartan; mahai-aulkiak eta artxiba-

dore mordoaz gain ezer gutxi gehiago zeukan egoitza argitsuak: idazkari-lanak orduka egiten zituen loba batek erabiltzen zuen mahaian idazteko makina eta faktura itxurako paperak pilatzen ziren. Leiho bakarraren alboan kutxa akorazatua zegoen lurrean eta, haren gainean, beste altzari txiki bat, kanpoan zuen termometro txiki batengatik puruetarako behar zuena, sarraila eta guzti, baina tamaina egokia ei zeukalako edariak gordetzeko erabiltzen zuen Pedriñok. Kontrako izkinan, itsasontziekin konektatzeko erabiltzen zuen irratia. Bere flotako bost atoiontzien argazki bana zeuden paretetan, eta baita txatarrean desagertutako beste bienak ere.

– Zer dugu, Mentxu? Hilabeteak elkar ikusi gabe!

– Berri txarrak, Pedro. Santos atxilotu dute.

– Badakigu zergatik?

– Morroi bat garbitu izana leporatzen diote.

– Eta egia da? –itaunaren damua aurpegiratu zitzaion berehala, eta eskuaz ezabatu zuen aurrean zuen airearen txatal bat, bere arestiko berbak bertan idatziak balegoz moduan.

Elkartasun seinale legez, jaiki eta Mentxuri hurbildu zitzaion. Segituan nabaritu zuen Pedriñoren hatsak zuen kirats jasanezina. Gabana kentzen lagundu zion, eta idazkariarentzako aulkiaren bizkarraldean tolestu zuen.

– Abokatua zeuk kontratatzea behar dut. Neuk emango dizut dirua.

– Zelako abokatua?

– Eurek gurako dute kriminaletik eroatea, susmoa daukat sekulakoa izan balitz eran antolatu gurako dutela, baina nik uste dut geuk alderantzizkoa saiatu behar dugula. Auzi administratibo gisa tratatu behar dugu, isun bat ez ordaintzeagatik atxilotu balute legez.

«Isun bat ez ordaintzeagatik...» errepikatu zuen Pedriñok marmarrean. Ipurdia mahaiaren kontra ipini zuen, eta esku biak alboetako ertzetan. Adikunea sabaiaz haratagoko jopuntu batean finkatuta segundo batzuk igaro eta gero, soluzioa aurkitu izanaren aurpegiera egin zuen.

– Latasa nabierakoentzat lan egiten duen Asenjo da ezagutzen dudan onena. Nazioarteko auziak ere eroaten ditu, atzerriko armadoreekin eta zamatzaileekin dituztenak eta. Faboretxoa

zor dit iaz moldatu nizkion ziurtagiri batzuen kontura. Hala ere, iruditzen zait ez duela odol-kontuetan nahastu nahiko, ez bada diru-sari tentagarri baten truke –esku gihartsu biak faltrikeretan sartu zituen berba-jarioaren etenaldi labur batean–. Ni txarto nabil diruz. Zeu?

– Badaukat zerbait. Baldintza bakarra: nire izena ez dadila inon agertu.

– Nire patroi onena izateaz gain, Santos laguna ere badut, e? Mila arrazoi dauzkat arazo hau neurea balitz bezala jotzeko toki guztietan. Ez kezkatu, zoaz, eta abisatuko dizut zerbait dagoenean.

Telefonoz deitzeko baimena eskatu zion Mentxuk. Paretan iltzatuta zegoen aparailua seinalatu zion, «automatikoa dugu, Sestaon ipini zuten lehenetakoa» esan zuen harro, eta korridorean zegoen komunerantz abiatu zen andreak bakardadean telefona zezan.

– Rafa? Mentxu naiz. Jaso dut Friburgokoaz bidalitakoa. Mila esker. Bilbora joan beharra daukat, eta pentsatu dut... zer iruditzen zaizu bisita egiten badizut? Hamaiketan, bai. Laster arte.

Zutik aritu zen telefonoz eta aurikularra gakoan eskegi ondoren ere halan iraun zuen, Pedriño noiz itzuliko zain, leihora hurreratu eta pertsianaren zirrikituetatik kalera begira jarri zen arte. Labe Garaietako eraikin erraldoiek betetzen zuten paisaiaren erdia luze. Atearen zabaltze hotsa entzun zuen bizkarrean. Begiak panorama hartatik urrundu gabe itaundu zuen Mentxuk.

– Pedro, lehengo egunean bidali zenigun morroia, Azken Portuko hitzordukoa, non ezagutu zenuen?

– Hementxe, bulego honetan bertan. Trago bat gura duzu?

Mentxuren isiluneak dangada eskaintzaren aurreko gaira itzuli eragin zion solaskideari.

– Kontatu zidan istorioa sinisgarria egin zitzaidan. Santosek esan zidanagatik, zeuroi kontatutakoaren oso antzekoa azaldu zidan niri ere. Zurekin lotzeko bidea ematea ere ez zitzaidan arriskutsua begitandu.

– Esango dizut argi zein den neure susmoa. Azken Portuko hitzordua eta Santosen atxiloketa

zelanbait lotuta dagozela iruditzen zait. Kasualitate handiegia litzateke bestela.

– Posible da.

– Gainera, morroiak poliziengandik ihesi zebilelakoa egiten zuen, baina bere egoeraz seguruegi zegoelako inpresioa hartu nuen.

– Nahi duzu horren inguruko aberiguaziorik egitea?

– Ez, utzi. Santos albait lehenen libre utz dezaten ahaleginetara jar zaitez. Osterantzekoak ez du ardurarik.

Treneko txartela blusako faltrikeran zuen oraindik Mentxuk, eskuen artegak ordurako aski zimurtua baina. Handik atera, eta Pedriñoren mahai gainean zegoen paper-zulagailuaz behin eta birritan erasotu ondoren, paperontzira bota zuen. Paretako erlojuari begiratuta, eskua eman zion agur moldez.

– Tranbia hartu behar dut Bilborako.

– Santosi buruz zer kontaturik eduki bezain laster deituko dizut.

– Baina ez deitu zuk. Besteren batek dei dezala Asenjo horren izenean, eta telefonoa neuk hartutakoan bakarrik egizu berba zeuk.

Bilborako tranbia heldu bitartekoa markesinako aulkian eman zuen Mentxuk, bere burua lasai eta patxadan irautera behartuta. Ez zuen esfortzu handirik egin behar izan, hala ere, azken ordu biotan bere umoreak egiazki egin baitzuen onera. Burutua zeukan goiz hartako betebehar gorriena, eta askoz lasaiago zegoen komisaldegiko kontu guztiak Pedriño bitartezko Asenjo haren eskuetan utzita. Galego zaharra fidatzekoa zitzaion kontu horietan. Arazo handi barik itzul zitekeen botika beharretara, baina Antonia trankilago egongo zen Mentxu Bilbo aldean zebilela jakinda. Poz aurpegiaz igo zuen tranbiaren eskailera maila parea. Bilbon izango zuen elkarretaratzearen perspektibak areagotu egin zion pausoen erritmoa.

Gerra amaitu berritan, Bartzelonatik Bilbora heldu berria zelarik ezagutu zuen Rafa, eta Artekaleko bere botikan laguntzaile onartu zuen. Mentxuk farmazeutiko titulua izan arren, dirutan nekez ordainduko ziola gaztigatu zion Rafael Lizarraga lizentziatuak, eta pentsio truke itxi zuten tratua. Egia esanda, diru arazo handirik ez zeukan Mentxuk, amak aitaren ezkutuan nahikoa

eta sobera eskuratu baitzion. Denbora apur bat pasatzen uzteko atseden toki bat baino ez zuen behar, hurrengo pausoak norantz eman lasai erabakitzeko. Rafarekin deskubritu zuen Mentxuk farmakopearen artisautza, berrehunetik gora pote zeuzkan oinarrizko osagaiez hornituak, eta zaletasun ia bokazionala zeukan maisutza jardunerako. Neurriko ikaslea baizik ez zuen falta bere senari bide emateko, eta Mentxurengan topatu zuen hautagai perfektua. Bizitzako proiektu apetatsuenari dedikatzen zizkion ahal zituen egun guztiak: fraide beneditarren mendetako tradizioa ikertu, sailkatu eta argitaratzea. Mentxu botikan lanean hasi zenez gero maizago egiten zituen egonaldiak Silosko Santo Domingoren monasterioan, hango liburutegia arakatzen. Bigarren urtea hasterako Lizarraga jauna Rafa bihurtua zen Mentxurentzat eta soldata jasotzen ere hasi zen. Handik aurrera jardun porrokatuan tematu zitzaion Mentxuri botikadenda propioa zabaltzeko eta zabaltzeko. Orduan jakin zuen portugaletetarra zela Rafa, herriko organujole famatuenaren semea, eta hark erabilitako kontaktu eta gomendio berben ondo-

rioz, Portugaleteko Udalean zein botikarien kolegioan edozenbat gestio egin zituen eta, lortu zuen Mentxuk botika zabaltzea. Artekalekoan hirugarren urtea bete aginean zegoelarik alde egin zuen Bilbotik, Antonia komentzitu zuenean semea hartuta berarekin bizitzera joan zedin, hantxe elkarrekin errazago itxarongo zutela Santos zigor-lanetako batailoietatik noiz libratuko.

Tranbia Arriagarako aldats beheran zihoan eta balaztatu beharraren durundiak iragarri zion bidaiaren amaiera aurreko unea. Ateko zulora hurbildu zen, zubiko farolen atzeko marea behereko Nerbioi uherra begien bistan, salto egiteko prest.

Eguaztena arte ez zuen Mentxuk Pedriñoren berririk izan. Halan eta guztiz, Antoniari zelanbaiteko informazioa emateko erabakia hartua zen lehen egunetik. Ezin zuen permititu artegatasuna euren artean nagusitzea, eta mataza bihurregia ez zedin bihur, auzia kontrolpean edukitzearen sentsazioa transmititu gura zuen.

Bilbotik itzuli zenean, astelehenean bertan, asmaziorako zeukan ahalmena erakutsi zion bere buruari, Antoniari egin zion kontakizun xehetasunez josia froga. Asenjo izeneko legegizon famatu baten laguntzarekin Gobernu Zibilera bertara jo zuela eta komisario batekin berba egiteko aukera izan zutela. Baldin eta errugabea bazen, ez zeukatela zertan kezkaturik. Santosek harrezkero krimenaren eguneko ibileren zertzeladak emanak zizkiela, Algortatik urrun ibili zela arratsalde hartan, eta datu haien benetakotasuna egiaztatzen ari zirela. «Ikusi behar zenuen, Antonia, zelako berbakera daukan Asenjo horrek. Enbaxadore batekin ari balira ere ez zuketen leunago tratatuko. Botika ikasketak baino, zuzenbidea ikasi behar nukeen, tituluarekin batera besteren begiruneaz jabetzen zarela ematen du», eta egoitza ofizialaren deskripzioa egin zion, alfonbra, koadro eta koloreez albait ñabardura gehien emanez.

Martitzenean gaitzagoa izan zuen zerbait asmatzea, baina Asenjok deitua ziola dena ederto zihoala esanez, eta lasai egoteko. Pedriñok ere deitu ziola bere laguntza eskainiz eta lanpostua-

gatik behintzat kezkarik ez edukitzeko. «Bermejo jauna beti primeran portatu izan da gurekin», izan zen Antoniaren komentarioa. Mentxuk erabakia zuen lehen-lehentasunezkoa zuela Antoniari gezurretan segitzea, gero eta zailagoa gertatzen ari bazitzaion ere. Horregatik poz biderkatua sentitu zuen Pedriñoren lehen deia jaso zuenean.

– Arrazoia zenuen –izan zituen Pedriñok lehenengo berbak.

– Berri pozgarriak beraz –Mentxuk ez zekien seguru Antonia non zebilen eta ozen ahoskatu zuen badaezpadan.

– Poliziak ba ei du Azken Portuko hitzordukoaren berri. Eta badirudi Algortako elizan hildakoa neuk hitzordura igorritako tipo bera dela. Horregatik nahasten dute Santos, baina Asenjok esan dit ez diola irtenbide zailik ikusten. Ez duela uste froga argirik dutenik. Gainera, informazio hori guztia abokatuari kontatzea bera ere oso seinale ona ei da.

– Noiz libratzeko esperantza? –soberazko berbak aurrezteko moduan ari zen Mentxu, telegramak osatzeko kalkuluetan.

– Ez dauka argi hori ere. Hori da albiste txarra: baliteke kartzelara sartzea, nahi dutena egin dezakete baina, kontrakoa sorpresa izanda ere, ezusterako atea zabalik utzi du legejale ilustratu horrek.

– Eskerrik asko, Asenjo. Eta gura duzunean faktura bidali.

Entzungailua telefonoarekin bildu ostean minutu bat iraun zuen Mentxuk korridorean, itxaroten ea Antonia berri eske agertzen ote zitzaion. Ez zen halakorik jazo. «Antonia!» deiadar eginda bigarren solairutik hartu zuen erantzuna, bezeroen gelak atontzen egongo zen. Dena bide onetik zihoala laburbildu zion ustezko abokatuaren deia. Eskuetan zeukan izara saila komoda batean utzita eskaileran behera jaitsi zen Antonia.

– Faborea eskatu behar dizut, Mentxu. Afari sasoian edo, emango dizkiozu zeuk albisteak Joseluri? Ez sinistuta legez begiratzen dit aitari buruzko zerbait kontatzen diodanean, eta nik uste dut neuri ez didala jaramon handirik egiten. Seguru zuk esanda errazago sinistuko duela.

– Konforme, ez zaitez kezkatu. Gaur bertan egingo dut berba mutilarekin.

Normalean baino zalapartatsuagoa gertatu zen eguna herrian. Portugaleteko esamesguneak asaldatuta zeuzkan *Hierro*-n argitaratutako albisteak. «Trufarako bada, tira...» titulu handiaren azpian beste azpititulu hau: «Portugaleten ere ikasle batek plater hegalari bat ikusi zuen astelehenean zazpiak aldera». Erredaktoreak idatzitako txantxazko lerro jostalari batzuen ondotik, ikasle bik idatzitako gutun luzea zekarren, eurek egindako marrazkiez hornituta. Mentxuk bezperan irakurria zuen barre-ikaraz, bereziki hizkerari eman gura zioten tonu zientifikoa zela eta, «egungo zertzeladen karian, azken hilabeteotako plater-psikosiak ondorioztatua, ulertzekoa da giza-zerebeluak ikusmena engainatzea, eta hala ibiliko dira asko eta asko bazterrotan, gau eta egun, plater hegalarien aztarrikan. Horrek guztiak gure deskubrimenduaren berri emateko adorea eragotziko liguke. Baina...», eta euren esperientziaren berri gehiago ematen zuten. Malekoian jesarrita ei zeuden, itsas ertzean, Zuzenbide Penaleko testu bat ikasten.

Mila bat metroko distantzian, ipar-ekialde orientazioan, arrautza formako objektu geometriko bat begiztatu zuten, berrogei metroko luzera eta hamarreko zabalera zuena, eta «dimentsioen proportziorako, plater batenetik oso urruti zegoen bere forma». Marrazkien arabera, zepelin baten antzeko ontzi helikoidala zen, aurrealdean begi itxurako zerbait erraldoia zuena. «Kolorea, argi distiratsu baten errainu-intentsitatearen poderioz, gris-aluminiozkora hurre zegoela esan liteke. Alboetako azken heren bietan, bioleta koloreko jarioen antza zuten ildo bi. Ez zaratarik, ez kerik. Hegalen moduko batere adarrik gabe, fenomenoaren ezaugarririk bereziena, agian, mugimenduen zakartasuna izan zen». Bostehun bat metrora zegoela, «ziaboga harrigarria» egin zuen eta ziztu bizian desagertu.

Eguena zenez, Mentxu Abastu Merkatura joan zen erosketak egitera. Maite zuen lantzean behin «arrain finetan finena» iragartzen zuten orroen edo emakumeen tarteko berba lotsagalduen iskanbiletan galtzea. Saltzaile bi eta garraiorako orgatilak erabiltzen zituzten gaztetxoak kenduta, udaltzaina izaten zen bertoko gizo-

nezko bakarra, eta gehienetan kaleko atearen magalean egoten zen kanpora begira, jagon beharrekoa espaloietako eta kaleetako esparrua balitz bezala. Osterantzekoak andrazkoak ziren eta euren gune gorde eta ia esklusiboa zen hura. Kalean emakume baten ahotan nekez entzuten ziren esamoldeak jaso zitezkeen hots-pilatze trinko eta burrunbatsuaren erdian. Zenbaitetan irainek eta biraoek birbiltzen zituzten elikagai iraungiak saldu izanaren salaketak. Andre asko isilik eta apal zebiltzan postutik postura baina euren aurpegi baketsuetan inguruko zoramenaz gozatzen zutela antzematen zen. Bigarren solairuko aulki luzea zuen tertuliarako lekurik gustukoena. Bertan jesartzen ziren etxekoandreak nekearen ondoko lasaitu arnasa hartzearren, eta bernak masaiatzen zituzten bitartean, salneurrien gorakada edo ogirik zuriena non eros zitekeen izaten zuten hizpide. Egun hartan, ordea, bala-bala barreiatutako plater hegalariena tokatzen zen. Aurreko asteetan ere kutunetakoa izan zen, baina bezperako egunkarian argitaratutakoak biziagotu egin zuen gaiarekiko interesa.

Zuzenbideko ikasle gutxi zegoen herrian, hori garbi zegoen, eta oso posible zen gezur hori gurata asmatua izana, identifikaziorako aztarnak galaraztearren.

– Ez dirudi oso paraje egokia aukeratu zutenik horrelako gauza konplikatua estudiatzeko!

Maria zapataginaren eranskinak zer oroitua eman zion Mentxuri, Farmaziako ikaslea zenean zenbat arratsalde luze eta gozo pasatu zituen Barcelonetako kai ertzean liburukoteak eta apunteak hanka tartean. Haietako batean ezagutu zuen Santos, kide komunista batzuekin oktabillak banatzen, eta nola hurbildu zitzaion orrixka urdin bat eskainiz. Paperari eusten zion esku zartatu eta belztuak kontzientzia txar moduko zerbait piztuko zion seguru aski orduko Mentxu ikasle nerabe eta kontserbadoreari, eta agian horregatik egin zizkion bizpahiru itaun jatorriaz, lanbideaz eta elkarrekin kafe bat hartzeko paradaz. Horrela jakin zuen aurpegi ederreko gazte indartsu hark Santos zuela izena, nabiera bateko behargin mekanikoa, ezkondua eta aurreneko semea jaio berria.

– Gure etxean platerak ez, plateretako edukiak izaten dira hegalariak! Hain azkar desagertzen dira! –aulkikideen algarak orainaldira erakarri zuen Mentxu.

– Manoleteren izpiritua izango da, hilobitik berpiztua mendeku bila. Irratian entzun nuen haren oroitarrirako antolatu zuten diru-bilketa porrota izan dela –izan zen norgehiagoka trufariari Mentxuk egin zion lehen ekarpena.

– Entzutekoak izango dira domekan monsiñore Txopitearen berbak.

– Batek daki, beharbada *apariziño* legez erregistratu gurako du, ea eliza lehen baino lehen basilika izendatzen duten.

Botikara itzulita, Antoniak ere plater hegalarien itzala argitu zion Mentxuri. «Mentxu, ahal duzunean, irakurriko didazu atzoko egunkariko albiste hori, inporta ez bazaizu?». Botika itxitakoan, goitik behera irakurri zion, Antoniak potajearen lapikoari eta arrainaren kaxuelari azken astinaldiak eragiten zizkien bitartean. Eskuak amantalaz txukatu bitartean tinko erreparatu zien egunkariko irudiei.

– Jainkoa ematen du zomorroak, begi handi bakar horrekin, fuselaje biribilaren ordez triangelu bat bakarrik falta zaio.

Joselu azaldu zen eta hirurek bazkaldu zuten sukaldean. Trankilago ematen zuen semeak, Antoniaren ustez bezperan Mentxurekin izan bide zuen solasaldia zela eta. Gau hartan ez zuela etxean afalduko esan zuen gaztetxoak, amaren baimena lortuko zuela segurantza osoa adierazten zuen irribarre samur batez goxatuta, «lagun batzuekin San Rokera joango gara ilunabarrean, ea plater hegalariak ikusten ditugun».

Giroa oso aldagarria izaten zen Gran Hoteleko kafetegian, eta Mentxuk gurago izaten zuen atzeko atartera hurreratu eta zuriz estalitako kristalen landare-marrazki gardenetatik besaulki eta sofaz betetako gela handia gainbegiratzea, sartu aurretik. Udan esaterako saiatu ere ez zen egiten, sasoi horretan itzultzen baitziren Madril-dik herriko gizon prestu eta erregimenaren txit adiskideak, eta hoteleko aulki patxadatsu haietan antolatzen zituzten luzimenduzko hitz-aspertuak. Deserosotasun hori aurki berriztatuko zen, maiatzean bertan hasten baitziren itxuraldaketa-

ren aurreneko aztarrenak. Egun hartan, hiru mahai bakarrik zeuden hartuta, batean ezezagun koadrila bat, atzerritarrak behar zuten, baina beste bietan betikoak. Atetik gertuenekoan «Alfonso XIV.aren klubekoak» zeuden, errege-erreginen egonaldiek herrian utzitako arrastoaren nostalgian bizi zen xahar monarkiko bospaseikotea. Deportiva Nauticako historikoak denak, hautatutako jesarlekua ez zuten halazorian hartua. Aldameneko paretan erregea protagonista zuten hainbat argazki zeuden: Antzokiaren inaugurazioa, belaontzi-estropada bateko garaikurra jasotzen, hileta-ospakizunak herriko elizan...

Mentxuk atea zabaldu eta barrura egin zuen hirugarren mahaian zeuden bere jakineko mahaikideak ikusita. De la Fuente eta Bergara, biak Luis, eta Joxe Astondoa. Lehenari Luigi deitzen zion Mentxuk, beste Luis txistulariarekin bereizteko, eta hainbeste maite zituen film neorrealisten kontura; ahal zuen guztietan ekartzen zituen film italiarrok bere kargupeko zinemetara.

Kafesnea eskuan hartuta lagunen mahaira hurbildu zenean, etsian agurtu zuen arratsal-

deon, mahai gain hartan ere egon baitzegoen plater hegalariei buruzko egunkari-orria.

– Etxenagusiaren semea izan behar du, Joxerena ez, bestea, nafta-fabrikakoa –ahotsa goraturik ari zen Luigi, ez zegoen garbi serio ala ez–, iaz udaletxean aurkeztu zuen salaketa irakurri nuen, eta tonu berbera dauka egunkarikoak.

– Baina hori ez dago abokaturako...

– Gura luke baina. Seguru nago bere ilusiorik handiena udaletxeko funtzionarioa izatea dela, kontadurian edo interbentzioan.

– Ba nik egingo nuke dena amarru publizitarioa dela, kapitalekoak hona etor daitezen prozesioan. Lourdes edo Fatima berri bat.

Luigik oihu egin zien beste mahaiko agure beneragarriei, «barkatu, eta zuen ustez?». Jaiki eta bere iraganeko marinel aristokratikoaren molde zilarretan zuzendu zitzaien. Mentxuk ikusten zuen Luigi laineztuta zegoela, eta oso maite zuen halakoetan erabiltzen zuen ironia mehea, batik bat inor gutxik hartzen zuelako ironiatzat. Esku ahurretan bildu zuen kafesne-kikara. Etxean hutsa hartzen zuen baina kanpoan gurago zuen esneaz nahastuta, kafe-zapore falta es-

taltze aldera. Eztarriak ere eskertu egin zion isurkiaren berotasuna, eguraldiaren hezetasunari aurre egiteko behintzat balioko zion eta. Interesgarriagoa izan zen goizeko tertulia, ez zegoen dudarik. Kalerako bidea hartuta, Luigik besoa jasota gelditu eragin zion.

– Presaz ala?

– Botika zabaldu aurretik enkargu parea egin behar dut.

– Halako batean Mar Zineman lotu behar dugu, badaukat sorpresatxo bat zuretzat.

– Zapatu goizean, zelan?

– Ederto.

Estuan hurreratu eta ukondotik oratu zion Luigik. Burua makurtuta egin zion ahapetik.

– Jakin nuen Santosena. Zerbait egin ahal badut, esadazu.

– Mila esker –irribarrerik adeitsuenaz lagundu zuen erantzuna.

Gizona ostera urrundu eta betiko ahoskera ozen eta jostalariari heldu zion.

– Zapatua arte beraz –eskuaz agurtu zuen–, guk bitartean estralurtarren arrastoei usainka jarraituko dugu.

«Ikasle hegalarien» ehiza zabaldu zen herrian, halako deitura egozten hasi zitzaizkien egunkariko gutuna idatzi zuten ustezko gazte biei.

Narru akoltxatuaren kontra zartakoek sortutako hotsa sikuegia zen gimnasioaren durunda algaratsuaren gainetik nabarmendu zedin. Joseluk bere grina osoa zaku eskegiaren erraietan eta minutu bakarrean hustu behar zituela zirudien. Borrokako azken asaltoa amaitzeko hamabost segundo faltako balitzaizkio moduan ari zen. Izerdiak blai eginda zeukan zilborra doi-doi estaltzeko luzera zuen elastiko zuria, eta praka laburren gerri aldea ere hezetasunak ilundua zeukan. Txandaka irudikatzen zituen balizko arerioaren gorputz atalak zaku zigortuan, hara hor eskumako masailean krotxeta, to oraingoan ezker gantxoa birikaren azpiko saihetsean, eta bat-biko azkarra gibelean, batez ere sabelean, ezker-eskuma andana. Entrenatzailea aurrean izan balitz, errieta egingo ziokeen eskumako besoaz kokotsa ez babesteagatik. Ez zion larregi inporta

guardia behar bezala ez jasotzea. Zakuari atzeko aldetik eusten zegoen lagunak txanda eskatu zion, eta gogoz bestera luzatu zituen besoak alboetara, salto txiki batzuk emateari utzi barik. Gorputza zakuaren kontra jausten utzi zuen, lagunak bere saioa egin zezan, eta burua ere zakuari itsatsi zion, alboz. Narruarekin bat eginiko belarrian danbateko mutuak aditzen zituen.

Gimnasio gehienak baizen argitsuagoa, klaraboia erraldoi batek adierazten zuen inoiz ontzitegi izandako pabilioiko sabaiaren erdigunea. Bilboko *boxing* bat kenduta hura zen Bizkaia osoan *ring* parea zuen bakarra, eta une hartan animazio handia zegoen borrokarako laukietako nagusian, klubeko izarra zen Manu *Kid* Sanchez, pisu astunetako txapelduna, berton ari baitzen erakustaldi bizian. Sarritan ibilia zen Joselu haren *sparring* lanetan, baina aurreko hilabetean hasi bide ziren beretzat gauzak aldatzen, eta bera baino maila apalagoko batzuen kontra aritu izan zen saio batzuetan, bigarren mailatik lehenera pasatua zela seinale dudabakoa. Esperantza handia zeukan uda partean *soirée* garrantzizko batera eroango ote zuten, eta *ring*-era lu-

zatutako begiradek gero eta gutxiago zeukaten inbidiatik, eta gero eta gehiago handigura eta oldarkortasunetik.

Entrenadoreak gelditzeko agindu zien zakuan ari ziren lagun biei. Paperezko poltsa zeroan eskuan. Kolpe imintzio batzuk egin zizkion Joseluren lagunari guardia zelan goratzen zuen frogatzearren. Sorbaldatik heldu zion Joseluri berari, belarrira mintzatzen zitzaion, eta aparteko txoko batean, besteen ikusmiratik urrun, jesartzera gonbidatu zuen. Poltsatik praka motzak atera zituen, borrokarako bereziak, zeta ematen zuen oihal distirantezkoak. Gorriak ziren, alboetako marra eta gerriko zuridunak, eta Joseluren magalean zabaldu zituen neurriz ederto ote zihoazkion frogatu guran. Gogor plantei eusten saiatzen ari zen gaztea, emozioak ez ziezaion larregi gainez egin. Normalean, horrelako kaltzoiak maileguan eskuratzen zituzten jendaurreko borroketarako, norberak erositakoak ez ziren klub osoan bizpahiru baino gehiago izango. Gimnasioak berak horrelako oparia egiten zuenean, afixetan agertzeko moduko debuta gertu zegoela adierazten zuen. Orain arte jendaurrean jokatutako

hiru borroketan, «Ibar Ezkerreko boxeolari gazte eta etorkizun handikoek osatuko dituzte *soirée* honetako beste borrokaldiak» izaten zen eskuorrietan azaltzen zen testua, letra xeheegiz gainera. Orain, aldiz, afixa horietan zein izenez agertuko zen erabakitzeko ordua heldu zitzaiola ohartu zen Joselu.

Eguerdian, botika itxi ostean eta bazkalordua arteko ordubetea pasatzeko, gelara igo zen Mentxu. Barikua zen, eta luze zihoan Santosen atxiloketa. Bezperan mintzatu zen azkenekoz Pedriñorekin, arratsaldeko seiak aldera telefonatu eta egun hartan bertan erabakiko zela Santosen hurrengo egoitza zein izango zen, epaitegitik pasatuta kartzelara, edo zuzenean kalean, libre uztea ere litekeena baitzen. Oso baikor zegoela abokatua, ez zuela uste giltzaperatzea erabakiko zutenik. Antoniak oso hotz eta batez ere isilik jaso zituen Mentxuk emandako berriak. Geroago erretolika Joseluri errepikatzeko kemenik ere ez zuen izan. Bai, luzeegi zihoan Santosena, eta bere on-

doan eduki gura zuen, hain berba jario urriaz beti halako laguntza eman izan zion gizona.

Tabako xeherako erabiltzen zuen narruzko toxa zabal-zabalean zeukan mahai gainean, eta haren inguruan hiru pilatxo erregai. Estankoan erositako tabako espainola, kontrabandoan lortutako holandarra piparakoa, eta berak xehatutako beste bat ustez sendagaiak ziren belar izpiak ere tartean zituena. Nahasketa desberdinak egitea ia zientzia gisan erabiltzen zuen, eta normalean asteburuetan egiteko beharra izanda ere, aste hartan egun batez aurreratu behar izan zuen eragiketa. Larregi erre zuen azken egunotan.

Buruan zerabiltzan pentsamenduek urrutiratuta bezala zeukaten haren gogoa, eta ez zuen osteko segundo laburretan lehertuko zen ekaitzaren kontzientzia apurrik ere izan. Joselu ziztu bizian sartu zen Mentxurenera, eta mahai azpian bilduta zeuzkan hanken jarkera aldatzeko ere denbora eman barik, eskukada batez lisatu zituen mahai gaineko tabako pilatxoak. Gehiena lurreko alfonbraren gainera jausi zen. Betarteari erreparatu zionean, gaztea bere onetik guztiz

aterata zegoela ikusi zuen. Ezer jazo ez izanaren itxurak egiten saiatu zen Mentxu, birritan dastatua zuen Joseluren sualdia, eta barrenean sentitzen zuen amorruari jaramon egin baino, astiro eta suabe irten zitzaizkion berbak.

– Hoa pikutara, motel. Sartzeko baimena eskatu behar huen...

Mahai gainean gelditutako tabako apurrez zigarro bat egiten hasi zen Mentxu, baina mahaian jotako beste kolpeak dardararazi zion eskuartekoa.

– Pikutara... zure kontu guztiak, Mentxu! Aita preso eroan zutenetik astebete pasatu da, eta zu hortxe zagoz, denborapasa tenteletan –belar ilun batzuen arrastoak besterik ez ziren mahai gainean gelditzen baina harantz seinalatzen zuen Joseluk; Mentxuk erlaxatzeko ariketa moldean eusten zion atzamar arteko tabakorriaz zigarroa osatzeari–. Eta? Ez didazu ezer esan behar?

– Arrazoi osoa daukak. Nik ere bazaukat barrua zerbaiten kontra husteko premia...

– Utzi alde batera zure asmo oneko berba horiek. Zure kulpagatik dago hantxe, eta ez ibili gehiago zintzoarena egiten!

– Trankil, trankil. Bazakiat asmo onez ari haizela, denak gaudek Santosekin kezkatuta –sermoilari hutsa sentitu zuen bere burua, baina ez zitzaion besterik otutzen–. Ulertzen ditiat hire urduritasunak, baina hoa heure gelara edo gimnasiora edo gura duan tokira, eta nasai hadi apur bat...

Beso biak mahai ertzean eutsita apur bat makurtu zen Joselu, eta askoz baxuago, baina burlaize txiki batez lagunduta, prestatua zeukan sententzia biribila adierazteko legez mintzatu zitzaion.

– Ez pentsa babua naizenik, Mentxu. Badakit aita beste egunekoagatik atxilotu zutela. Neu ere han izan nintzen, ahaztu zaizu?

Gentleman Jim filmeko fotograma iruditzen zitzaion egoera hura, mutikoa Errol Flynn izateko gazteegia bazen ere. Bizkarraren alde bietara boxeo-eskunarruak zeroatzan dingilizka eta aski patetikoa zeritzon aurpegian zirriborratutako segurtasun keinuari.

– Hobe duzu zerori joatea poliziei guztia kondatzera, neuk salatuko zaitut bestela.

Ezer esan barik iraun zuen Mentxuk segundo batzuetan, baina ez hainbestetan elkarrizketaren jabe izatearren erabiltzen zuen taktikari amore emateagatik, sustrai-sustraitik zetorkion haserre-denboraleari badaezpadako hutsartea emateko baino. Kontrolatu uste zituen zentzumenak esku artean lantzen ari zen zigarroari eskaintzen saiatu zen.

– Uste diat ez dakiala zertaz ari haizen. Lehendik ere nekatuta nengoan, eta hire etorrerarekin areago –mingain puntaz busti zituen zigarro-paperaren ertzak, eta amaitu berrikoa eskaini zion Joseluri. Bazekien ez zuela erretzen–. Gura duk?

– Ez diozu jaramonik egin nik esandakoari –toxa atzamar soil pareaz hamar zentimetro goratu eta, garabi baten antzerako jira emanez, lurrera jausten utzi zuen.

– Ederto. Zer gura duk egitea? –ironi tonuaz saiatu zen Mentxu. Ez zekien bataila hartan zer arma erabili–. Joango nauk komisaldegira, eta esango zieat: «Arratsaldeon. Neure burua entregatzera nator. Ni naiz bilatzen duzuen hiltzailea. Ez dakit pistolaz edo estrangulatuta hil ote nuen,

baina neuk hil nuela seguru nago». Sinistuko zidatek, noski, nire hiltzaile ospea atzerrietan ere ezaguna duk...

– Ez saiatu niri adarra jotzen. Ez nauzu hain erraz nahastuko. Aita kakaztuta dago eta zu eskuak zuri. Hori da nik dakidana.

– Lar gutxi ez ote den... Ez duk uste zerbait gehiago ere jakin behar hukeela horrela etorri aurretik? Nazkatu egin nauk. Hik ez baduk alde egin gura, neu izango nauk alde egingo duena.

Korridorera heldu eta berehala aldarri betean hasi zen Mentxu, «Antonia! Non sartu zara, demonio...». Deia errepikatuagatik Antoniarenik jaso barik, eskailerako zulotik begiz hausnartu zuen belarriz jasotzen ez zuen erantzuna. Beheko pisuan agertu zen, telefonoaren aurikularra eskuetan.

– Itxaron, telefonoz ari naiz. Dei bat pasatu behar didate oraintxe. Berehala igoko naiz.

Barrura itzulita, Joselu gelaren beste muturrean ikusi zuen, eskua laborategiko beirazko ontziteriaz betetako apalategi batera luzatuta.

– Hori ikutzen baduk, garbitu egingo haut.

Paralizatu antzean geratu zen Joselu, bihurrikeriaren batean harrapatutako umearen moduan, eta Mentxuk jakin zuen gustukoa zuen neurria gainditua zuela. Korridorean barrena egin zuen azkar. Mukitsu alaenak jadetsi zuen nerbioen dantza leher zekion, eta arao etsitu batez jesarri zen herriaren ikurra bihurtutako zubi eskegiaren argazki erraldoiaren azpian zegoen aulkian. Ahaztua zeukan atzamarrek helduta zuten zigarroa eta txabusinan topatu zituen hura isiotzeko poxpoloak. Eskaileratik gorako pauso gogorren hotsa entzun zuen, antxintxika zetorren Antoniaren «Mentxu, Mentxu...!» orroekin batera. Azken mailei ekin aurretik, Mentxurenaren aurrez aurre gelditu zen Antoniaren begitartea.

– Posible bazenu baxuago berba egin... Erotu egingo nauzue gaur denon artean.

Antonia belaunikatu egin zen Mentxuren aurrean.

– Askatu egin dute, libre utzi dute Santos. Komisaldegitik hots egin du, honantz datorrela. Epaitegira ere ez dute eroan. Oi, Mentxu, banekien ez zela posible bera izatea...

Hortzez heldu zion zigarroari, ezpainak libre albait zabalenik goratzeko, libratutako esku biez Antoniaren buruari oratuz. Pot emateko gogoak zigarroa lurreko baldosetara jausten uztera behartu zuen. Kaskezurrean emandako lehen musuak gako metaliko baten kontra egin zuen, eta birritan saiatu zen ile azpiko narruaren epeltasuna ezpainetan nabaritu arte. Hortzez tinkatu zion ostera lurretik jasotako zigarroari.

– Bazen garaia, ea oraingoan lasai egoterik daukadan. Uste dut bazkaldu ere egin barik kuluxkan emango ditudala hurrengo orduak. Eroango zenuke zure seme hori ordu batzuetan hemendik urrun? Deskantsatu gura nuke.

Antoniak harridurazko betartea ipini zuen semearen aipua entzun zuenean. Burua jiratu eta gela atarian ikusi zuelarik aurpegiera itaunekora aldatu zuen begirada berriz Mentxurenera itzulita. Gelan sartu zen Mentxu, eta Joseluren paretik igarotzean ez zion baztertzeko keinua egiten utzi.

– Ez, itxaron, Joselu, gauza bat itaundu gura diat –gelara bultzatu eta atea itxi zuen barrutik.

Joselu artega zegoen, eta eskunarruen soka muturrei heltzen zien esku biez, atzamarretarako jolas berriren bat asma zezaten erregutuko balie moduan.

– Hire aitak egin beharrekoa duk hau, baina ez diat itxaroteko gogorik: nork esan dik nigana etortzeko, salaketa kontu horiekin?

– Inork ez dit horrelakorik esan.

– Ea honela... Norekin berba egin duk egunotan joan den asteko topaketa hartaz? Nork esan dik egun hartako morroia zela Algortan hil zutena?

– Gimnasioan jende gehienak daki Algortakoa. Ez dakit zelan, baina hala da. Min egin zidan konturen bat ere entzun behar izan nuen, aita zure txotxongilo hutsa besterik ez dela.

– Berdin dik, ez dik ardura, hoa hemendik –ez zuen gisa horretako zurrumurruetan gehiago sakondu gura, eta aski maitekorra eritzitako bizkar-igurtzaldi batez agurtu zuen.

Lurrean barreiatutako tabako-izpiak jasotzen hasi zen baina poltsatxoa baino ez zuen mahai gainera ekarri. Barealdiaren plazera dastatzeko beharra sentitu zuen eta ohean luze etzan zen.

Arte eta Ofizioetako eskolaren atarian zegoen Santos, Joselu noiz aterako zain. Sei laguneko koadrila baten erdian ikusi zuen, eta semea bere presentziaz konturatu arte itxaron zuen bost bat metroko distantzian. Istant batzuk besterik ez ziren izan baina aitak semea aurkeztegi batean legez ikustearekin disfrutatu zuen tarte labur hartan. Gizontzen ari zen zinez, eta Joselu izena txikigarriegia ez ote zen zalantzak hartu zuen. Aita ikusi zuelarik, Joseluk ez zituen lagunak agurtu ere egin eta ziztu bizian jo zuen harengana. Aitak, serio, ez zien semearen poz-keinuei berehalakoan erantzun. Lepo zabala izan arren, Joseluren altura ez zen aitaren besaperainokoa besterik eta hortxe txertatu zuen ezkerreko bizkarra, beso biez gerria besarkatuta.

– Amak esan zidak ordu honetan irtengo huela eskolatik. –Santosek ez zuen Joseluren burua ikusten, oraindik ere sama azpiko magalean gordea zegoen eta–. Izan ere, zelan ikasketak? Laster izango dituk azterketak, ezta?

Aitaren hoztasunak zer arraro bat adierazi zion Joseluri. Ohartu zen amak kontatua izango ziola Mentxurekin izandako atralaka.

– Azkar batean joan behar duk entrenura, baina badaukak denbora apur bat berba-aspertutxo baterako?

Kalean behera abiatu ziren.

– Amak kontatu dizu eguerdikoa?

– Bai, horretaz berba egin gura diat.

Topaketa banatan gurutzatutako ezagun biren zorionei, kalean libre egotearen kontura jasoak, kasu egin behar izan zien bodegoira ailegatu bitartean. Mahaian jesarri zirenerako ardaoa zeukan Santosek aurrez aurre.

– Hara, semea, ez diat istorioak kontatzea maite, baina baduk bat oso laburra, eta merezi dik heuk ezagutzea.

Joseluk atzamarrei begiratzen zien, lotsa itxuraz, eta lantzean behin upategiei eta sabaitik eskegitako zahagiei ematen zien begi.

– Trankil, ez nauk aspaldiko kontuez ariko; azken urteotako zerbait da.

Santosek egoerari tentsioa kentzearren txantxa tonukeran ahoskatua zuen, baina semearen aurpegian ez zuen lasaiturik susmatu.

– Hau ez duk lehenengo aldia atxilotua izan naizena, eta pentsatzekoa duk berriz ere halakorik izan daitekeela. Inportanteena, gauza guztien artetik inportanteena, nerbioak ez galtzea duk, heriotza gainean sentituta ere.

Aitaren tonukera apalak baretasuna kutsatu zion mutikoari, eta aurpegira begiratzeko ausardia hartu zuen. Santosek, baina, ahur biez heldutako edalontzian galduta zeukan begirakunea. «Nik behin galdu nitian nerbioak, eta berehala damutu zitzaidaan... gogoratzen dudan bakoitzean ere damutzen zaidak». Hura jazo zenean, Joseluk berak hamabi urte edo izango zituen, eta tabako kontrabandora dedikatzen ei zen zigorbatailoietatik libratu eta gutxira, beste baten agindupean barkuko patroi. Ederto zebilen negozioa. Behin deskubritu egin zuten trikimailua eta kartzelan sartu zuten. Hilabete bi edo pasatu zituen, baina askatu behar izan zuten. Ezin izan zuten ezer frogatu: tabakoa postako zakuetan ekartzen zuten eta beraz erantzukizuna teorian

ez zen eurena, jatorrizko posta bulegoarena baino.

– Kalera atera ninduan azkenik, erru aldetik zuri-zuri eta poltsikoak ezin hustu zizkigutela. Utzi behar izan genian kontrabandoarena, baina negozioburuaren azkartasunak salbatu ninduen ataka larriagoetatik. Tabako kontrabandoa zuzentzen zuena eta neu agindupeko neukana Mentxu huen, asteotako afera honetan ere neu libre uztea lortu duen pertsona bera.

Santosek ez zuen bereizten jakin Joseluren begietan zegoen arrastoa harridurarena ala interesarena ote zen, baina hamalau urte lehenagoko akordua ekarri zion, semea umea zenean loak hartu aurretik Antoniak kontatutako ipuinek sortzen zioten aurpegiera bertsua iruditu baitzitzaion.

– Gaitza izaten duk askotan bera bezalako pertsona bat konprenitzea, baina ez dudarik egin, motel, inoiz ez hau kolokan utziko, ez dik inoiz lagunik traizionatuko. Amaren lanpostua eta etxea ere berari zor zizkioagu. Ez duk gutxi.

–3–

Hiru bezerok ia guztiz betetzen zuten mostradore aurreko espazio urria, eta botikako eguratsa lar dentsoa zitzaion Mentxuri. Gasak eta esparadrapoa enkarguz erostera etorritako mutikoa libratu eta gero, hurrengo andreari kasu-galdea egin zion. Orduan ikusi zuen Santos botikako atea zabaltzen, bezero bat gehiago balitz bezala, aurretik zituen andrazko bien ostean zintzo ipinita. Irribarre egin zioten elkarri.

Lehen bezeroak migrañaren kontrako txaplata eskatu zion, eta biharamunerako gertatu beharrekoaren oroigarria paper batean idazten zuen bitartean, Mentxuk begi jostalariez egin zuen ate aldera. Alboko apalategietan zeuden pote ugarien errotuluei erreparaka ari zen Santos, irakurriko balitu moduan, baina atzamarrez egun erdiko bizar lakarra laztanduta eskumara begiratzen zuen tarteka, ez-ardurati eta setatsu. «Biharko gertu izango duzu, asteburuan erabiltzeko moduan», esanez aldendu zuen aurreneko bezeroa, eta atzetik zetorrenak ez zuen mostra-

dorerainoko hutsune berria betetzeko keinukerarik egin. Azken minutuetan aurrera eta atzera begiratzen egondako andreak tupustean jaurti zuen desenkusa:

– Beno, neurea ez da presazkoa, belutu egin zait eta badauzkat gaur derrigor egin beharreko beste erosketa bi. Bihar goizean etorriko naiz...

– Felisa, lehengoan senarrarekin egin nuen topo eta esan zidan sabelekoarekin segitzen duzula, eta beste belar berri hauek gertatuak nizkizun.

Mostradorera hurreratu zen emakumea, elkarrizketaren tonua intimoagoa bihurtu guran.

– Zuk uste duzu hobeto egingo didala?

– Zuri adituta, edonork prentsatuko luke disenteria daukazula, Felisa! Arroz ura edan behar duzu batez ere –beste paper bat zirriborratu zion Mentxuk–, esan nizun Margarenean edozenbat arroz aurki dezakezula estraperloan, esaiozu gaixotasunagatik dela eta nik errezetatutakoa, ea apur bat merkeagoa egiten dizun.

Apa bi eman zizkion Felisak. Asko ziren Mentxurekin kalean topatuta musu ematen zioten andreak, baina botikan, gutxi. Alde egin zue-

nean, bakarrik eta bekoz beko geratu ziren Santos eta Mentxu. Atea zeharo itxi arte itxaron zuen Santosek barneko kisketari sakatu eta *«cerrado»* zioten letrak kalera begira ipini baino lehen.

– Zer kontatzen duzu, zaharra? Zer moduz erabili zaituzte gerizpean?

– Tira, ederto dago aldian behin bisitatzea.

– Goazen barrura, zer edo zer zurrupatu behar dugu. Oraindik ere pentsatzen duzu beste eguneko morroia txakurra zela?

– Ez dakit zer pentsatu...

– Beno, Santos, zahartzen hasia zarela pentsatuko du jendeak. Poliziei ere hiltzeko ordua helduko zaie ba. Erreflexuek alde egin dizute azken aldian. Ez bide da ona ezkondutakoen bizimodua...

– Utzi txantxak, Mentxu, sorpresa bat daukat zuretzat, ustebakoa guztiz.

– Espero dut ez zarela atzeneko etekinez ariko, sosaz gaizki gabiltza aspaldion eta.

– Ez, ez, hori baino ezustekoagoa... Komisaldegian nengoela ahots ezagun bat aditu nuen, baina neure buruari sinistarazi nion ez zela posi-

ble bera izatea. Gero, aldameneko ziegan zegoen bati izena ere aipatzen entzun nionean, egiaztatu nuen ahots hura benetan berea izan zela. Gure lagun zahar bat...

Burua astindu zuen Mentxuk.

– Fonseca.

– Fonseca! Ez da posible, bizirik dago putre maitagarri hori?

– Gura baduzu, abisua bidaltzeko modua egina daukat.

– Badakizu desioko nukeela...

– Pozten naiz, daborduko abisatua egongo dela pentsatzen dut eta.

Santosek orrialde zimurtu bat atera zuen faltrikeratik. Prentsazale amorratua zen, eta berdin irakurtzen zituen marinelek geletan ahaztutako italierazko egunkariak edo tabernetan aurkitutako edozein aldizkari. Goiz hartan, tranbiako bidaia arintzearren, kiosko batera joan eta lau egunkarirekin batera, *Semana, Mundo Gráfico* eta Sociedad Taurina Bilbainak kaleratutako azken hiruhileko alea erosi zituen.

– Tori, zure albumerako.

Zezenzaleen buletinetik erauzitako orria eman zion, zetorren udako ikuskizunen iragarpena egiten zuena. Argazki handi bat zekarren, aurreko abuztuko zezenketa batean autoritateen palkoa hartzen zuena. Mentxuk gonako zirrikitu batean ezkutatu zuen.

– Antoniak kontatuko zizun semearena...

– Bai, mintzatu naiz Joselurekin, ez dut uste berriz ere muturra sartuko duenik.

Mentxuren begirada zalantzakorraz ohartuta, semearekin izandako buruz burukoa kontatu zion Santosek.

Zapatu arratsaldean joan zen Mar Zinemara eta ate txikitik saiatu zuen Mentxuk sarbidea. Txirrina jo eta durundi metaliko bat-batekoak susto galanta eman zion. Ateak tenkatua segitzen zuen eta birritan egin zuen txirrinaren deia. Segundo batzuk pasatuta zabaldu zion Luigik.

– Kaka zaharra! Atea urrutitik zabaltzeko sistematzat saldu zidaten. Amerikanoek pentsatu behar dute espainolok mozoloak garela! Esan zidaten: «Ez duzu zeure tokitik mugitu behar izan-

go, urrutitik botoiari sakatu eta atea bakarrik zabalduko da».

– Arratsaldeon, Luigi. Ni inpresionatzeko ez daukazu horrelako tramankuluen beharrik –eta eskua eskaini zion eskuturra gora, gizonak maite zuen estiloan musukatu ahal zezan.

– Baina ehun pezeta pagatu ditut! Eta atzo bertan egindako frogan bazebilen. Zer edo zerk huts egin du, baina ez dakit zerk.

Luigik tolestuta eskaini zion besoa, Mentxuk bertatik oratuta korridore ilunetan zehar aurrera egin zezaten, milaka watteko fokuek argiztatutako pasarela batean legez. Komunak, kamerinoak eta bulegoak, guztiak nahasian zeuden ezker-eskuma, guzti-guztietako ateetan baitzeuden «mister/miss x» ereduari jarraitzen zioten errotuluak. Inoiz edo alkate bati ere sinistarazi ei zion WC siglen atzean, estatubatuarren asmatzaileekiko liluraren estalpean, komun-ontzi modernoak asmatu zituen Walter Coleman delako baten laburdura zegoela, eta omenaldi hori agerikoagoa egitearren ganorazkoa zela komunetan «Mister C» eta «Miss C» ipintzea ateetan, Coleman jaunaren emazteak ere nonbaiten beharko

baitzuen gorputzaren hustubehar intimoak egiteko tokia.

Museo itxurako gotorleku-bulegora sartu ziren, Mentxuk sarritan bisitatutakoa, kartelez, fotogramaz eta egunkari-pusketaz jositako lau pareten arteko gune ia sakratu hartara. Bazter batean aktoreentzako moduko altzaria, ispilua eta aulkia zeuden, Ideal Zinemako bulegoan ere haren antzekoa zeukan, eta Mentxuk maiz irudikatu izan zuen Luigi bera ispilu haren aurrean makillajeko eta bere buruarentzako antzezpen saioak egiten. Gelaren erdi-erdian mahai txikitxoa zegoen, oporto eta burbon botila banaz eta lauzpabost edalontzirekin. Luigirekin ez zegoen gomitaren zain egon beharrik edateko, eta horretan parekaezina zen Mentxuren ezagun guztien artean. Paretako irudietan denetatik zegoen, eta irudipena zeukan azken bisita ezkero aldaketak nabarmenak zirela. Gaiztakeri sena subkontzientea traizionatzen ari ote zitzaion zalantzaz, Mentxuk eritzi zion Ingrid Bergmanen eta Roberto Roselliniren oroigarriek, bakoitzak bere aldetik, lehen baino espazio gehiago betetzen zutela orain, eta egia esan bazegoen horretara-

ko aitzakia, iragarri berria zen bien arteko ezkontzak Luigirentzat artearen adierazpen gailena izan behar baitzuen.

– Neuk ere hartuko dut –esan zuen Luigik, Mentxu oportotik zerbitzatzen hasi zela ikusita.

Zerbitzatze-lanak amaitu arte itxaron zuen Mentxuk eta ondoren Luigik edalontzia goratu zuen, eta tonua suabeagotu.

– Zorionak, Santos kalean libre eta gu kobazulo honetan ere libre. Horren guztiaren alde, zer arraio!

Toparen ostean gustura edan zuen Mentxuk. Irribarrea errazenik sorrarazten ziona zen Luigi, eta bakardadean errundako kezkak eta ezinegonak algara eta baikortasuna bihurtzen ziren harekin izandako egonaldietan.

– Sorpresatxo bat zenuela esan zenidan.

– A, Mentxu! Urbanitate eta portaera ikasgaiak eman beharko dizkizut zure adinean! Niri zegokidan gaia ateratzea –esku biak bat eginda barkamen eskeko keinua egin zuen Mentxuk–. Ezin baduzu itxaron... itxi begiak.

Mentxuk koipe faltan zegoen atetxo baten banda-hotsa aditu zuen. «Eskuak dardarka dauz-

kazu emozioz, Luigi», esan zion, lurrera jausitako paper eta kartoi mordo baten zarataz ohartuta. «Zeuk dauzkazu betazalak dardarka, itxaron ezinik», eta ahotsa hurreratzen ari zela sentitu zuen Mentxuk. Begiak zabaltzeko baimena hartuta, ezkerreko besoa ipurmasailetarantz jiratuta zuen gizonak, sorpresagaia bizkarrean ezkutatzeko.

– Madame... –erreberentzia batez musu eman zion eskumako eskuaz oratutako Mentxurenari, eta ondoren kartoizko zilindro bat eman zion–. Zure gustukoa izatea espero dut.

Ikusi batean susmatu zuen zer izan zitekeen, baina gurago izan zuen hodiaren barruan kiribilkatua zegoena esku biez luzean hedatu arte egon, Luigiren lepora salto egin eta musu labur andana batez eskerrak eman aurretik, susmatutakoa baino askoz haratagokoa izan baitzen ezustea. *Gilda* filmaren iragarpen kartela zen, «inoiz ez da izan Gilda bezalako andrerik!» esloganaren azpian Fordek Hayworthi jotako zaplaztekoaren unea jasotzen zuena.

– Kosta egin zait, ez pentsa.

Bazekien Mentxuk zein gaitza zen poster haiek lortzea, eta horrek are itzelagotzen zuen sorpresa. Film bakoitzaren alogerarekin bost kartel bidaltzen zituen banatzaileak, baina zeluloidearen kaxekin batera ostera itzuli beharrekoak. Bost kartel haietako bi *Santi Zantarrak* erabiltzen zituen kalez kale ohol bitan itsatsi eta bular-bizkarretik eskegita. Iragarkiak pasearazten zituen gizonak berak Roselliniren film batetik erauzitako figurantea ematen zuen, gorputz malformatu eta musu okerraz. Beste hiru kartelak zinematokian bertan ipintzen ziren, bi salmenta-leihatilaren alboetara eta hirugarrena *hallean* –Luigik «anbigu» hitza erabiltzen zuen beti aretoaurre moduko espazio hura aipatzean, eta saski erraldoi batean gaseosak eta litxarkeriak saltzen zituen andre bat izaten zen bertan, seguru aski *anbigu* deitura hartarako merezimendu nahikoa izan zezan–.

– Filma ez zitzaizun gustatu. Gogoan dut filmaren aurka erabiltzen zenuen argudioa: «Nola da posible horrelako istorioa Buenos Airesen jazotzea?», baina halako batean aitortu beharko didazu zure amorruaren benetako arrazoia Gilda

puta baten eran agertzea izan zela –ezpainak ia edalontziaren barruan zituela burutu zuen berbaldia–. Zelakoak zareten sufragistak!

Oroigarria apetazkoa zuela aitortu zuen Mentxuk, benetan gogoangarriak izan ziren egun haien aztarrena edukitzearren. Zantzoka gogoratu zituzten aurreko urtean filmaren emanaldietan bizi izandakoak. Txopitea artzapezak pulpitutik espreski sermoia egin zuen kristauek galarazita zutela zentsurak 4R sailkatutako film hura ikustera joatea. Edozertara ere, zazpi gauetan iraun eragin zuten ikusleek ustezko ikuskizun eskandalagarria.

– Hemen behintzat Falangekoak ez ziren ataurrera etorri *Cara al Sol*ekin eta protestekin, beste lekuetan legez.

Luigi beti kezkabako agertu izan zen eskandaluzko liskar horien aurrean. Vidor-en obra eztabaidatsua, gainera, Mar zinematoki berria estreinatu eta gutxira eman zen, eta herriko notableek oso begi onez ikusten zuten Luigik aurretik zeukan Ideal aretoaz gain beste hura zabaltzea, askoz modernoagoa eta erosoagoa. Arratsaldeko emanaldietan Cantinflas jaun eta jabe izaten

zen garaiotan, zinemara sartzeko itxaroten, Rantxeriako biltegian erositako kakahuete poltsak eskuetan zituzten haur, gazte eta gurasoen errenkada luzeak osatzen ziren. Herriko *Teatrillo* tradizionala gero eta sitsak joago zegoen, eta autoridadeek ere gurago zuten euren ekitaldiak Luigiren zinemetan antolatu.

– Hara, bihar goizean izango dugunaren esku-orria –koartila bat eroan zuen mahai gainetik Mentxuren eskuartera.

Izenburu luzea zuen egitarauak: «Babesaren Kristoaren Eskola Santuko Anaia Maiordomo Nagusiaren gonbidapenez, Aste Santuko Pregoia». Txantxa artean irakurri zuten egitarau osoa, hizlari ele-eder batek herriko giro mistikoa loriatu behar zuela, edo Schola Cantoruma Sestaotik ekarri behar zutela. «Erne azken lerroari, erne!», gaztigatu zion Luigik, eta ahots melodramatikoaz irakurri zuen Mentxuk: «Espainiako Prozesioei buruzko albistegiak, Mar Zinemako enpresak adeitsuki utziak».

– Hori ezustea –jo zion adarra Mentxuk–, ez nekien horrelako dokumentalak kolekzionatzeko bizio ezkutua zenuenik.

– Dudatan nago, baina baliteke udalari *Teatrilloa* erosteko eskaintza egitea. Jakin dut ur-biltegi berria egiteko diru beharrean dabiltzala, eta begi onez ikusiko luketela antzerki-eraikin zaharkitua beste inori saltzea.

– Ez da larregi hiru zinematoki Portugalete lako herri batentzat?

– Antzerkia, Mentxu, antzerkia. Eta musika, ez ahaztu. Gerra egingo diogu Bilbori. Portu izan zen zinematografoa bereganatu zuen bigarren herria Bizkaian, eta tradizio horri eutsi behar diogu.

– Hainbeste kezka Porturekin, zu ez zinen ba sestaotarra?

Osterantzeko gauza guztien gainetik, musikarekiko afizioak elkartzen zituen Luigi eta Mentxu, nahiz eta ia inoiz ere ez ziren horretaz mintzatzen. Haren zinemetan, pantaila erraldoitik oso gertu –albo bateko gortinaren atzean Maren, eta pantaila atzean bertan Ideal-en– piano bana zegoen. Pianista fina zen gizona, eta itsasoan barrena ibili izan zen gaztetan *Alfonso XIII* transatlantikoan orkestra-zuzendari. Hegalez hegal jesartzen ziren biak piano aurrean, eta

erabiltzen zuten errepertorioa Mentxuren etxekotik oso besterakoa izaten zen: swing, charleston eta cha-cha-cha. Gero eta maiteagoa zuen Mentxuk piano haiek edukitzen zuten afinatze puntu doia. Ipurmasailez jauzitxoak eginez foxtrot bati ekin zion egun hartan Luigik.

– Ez didazu esango itsas-bidaia mitiko haietan honelakorik jotzen zenutenik, ezta? –trufa egin zion Mentxuk.

– Berritu ala hil! –oihukatu zuen Luigik teklen gaineko kolpeak silabekin batera bortitzagotuz.

Kalerako pasabidean Mentxu zihoan aurretik eta, atea erdi zabaldu zuelarik, jiratu eta bekoz beko ipini zitzaion Luigiri.

– Inoiz edo aipatu izan dizut Rafa, Bilboko botikari laguna –bestearen baiezko imintzioa itxaron zuen segitu aurretik–. Zer iruditzen zaizu hirurok elkarrekin afaltzeko lotuko bagina?

– Neu horrelakoetarako beti prest.

– Hitz ematen dizut ez zaitugula larregi aspertuko gure botika eta botikaosteei buruzko berbetarekin.

– Abisatu gura duzunean.

Masailetan elkarri musu bina emanez banandu ziren.

Esandako pabilioiaren aurrean zegoen Joselu, Repelagatik Sestaora jaitsita hamar bat minutura oinez, eta bazirudien ez zekiela barrura egin behar ote zuen ala hantxe, kantoi zikin hartan, beste seinaleren baten zain egon. Buruaren mugimendu instintiboak egiten zituen azaleko ordenarik gabeko norabideetan, eta jantzita zeroan kapela ere kendu egin zuen. Azkenean, egoeraren ganorabakoak bultzatuta atearen txingetari eragin zion eta ohartu zen giltzatu barik zegoela.

Lokal barrura eginda, burua gorputzaz aurrerago ipini zuen arrastiriak apurregi argiztatutako hormartekoan objektuak bereizi guran. Goiko aldea sabaiko zulo batzuei esker zegoen begien bistan, eta minutu erdi baten buruan zehaztu ahal izan zuen aspaldi abandonatutako lantegia zela. Egurrezko kaxak zeuden edonon, haietako gehienak birrinduak eta ezpalduak. Botilak eta beira zatiak ere bai zur hondakinekin nahasian. Zoko batean, inoiz isiotutako su baten arrastoak

ikusi zituen. Lokalak gaseosa-fabrika izandakoa zirudien.

Bere izenaren deiadarra entzun zuen aurrez eskuma aldeko bazter ilun batetik, eta hasiera batean aitaren antza zeukan gizonezkoa gerturatzen ari zitzaiola ikusi zuen. Zentimetro gutxitara, eskukada jo zion bizkarrean, eta ezaguna balu legezko berbak esan zizkion, Joseluri hain toki ilunean tonukera lar altukoa iruditu zitzaion ahotsaz. Boxeoa izan zuen hizpide hastapenean, mutikoaren estiloaz eta, batez ere, ausardiaz oso eritzi positiboak jaso ei zituelako. Gabardina erantzi eta berorretaz mahai lizundu bat estali ondoren bertan jesartzera gonbidatu zuen gizonak. Jaka barik, alkondara hutsez jantzita zegoen eta pistola eroatearren erabilitako narruzko hedeak antzematen zitzaizkion besape-sorbaldetan. Pistolarik ez zuen ikusi baina. Hurrengo laudorioak aitarentzat izan ziren, eta ondoren Mentxuri buruz egia batzuk azaldu behar zizkiola esan zion.

Karpeta bat eta erretratatzeko makina atera zituen poltsa batetik. Buruz behera zegoen gabardinan faltrikeraren bila ibili zen itsuan eta to-

patu ostean linterna bat goratu zuen bertatik. Kamera albo batera utzi, eta argazki sail bat banan-banan bistaratu zion. Azalpen ugari eman zizkion erakutsitako argazkiez. Argia esku arteko argazkiei zuzenduta, erabat bihurri eta adierazpen gabeak ageri ziren bion aurpegi kontrargiztatuak.

Erretratuak karpetara bilduta, jaikiarazi eta esku banatan ipini zizkion kamera eta flasharen tramankulua. Linternaren laguntzaz azaldu zizkion diafragmaren zabalerari eta esposizio denborari buruzko zertzeladak. Behar bezala fokatzen ere erakutsi zion. Bazter desberdinetako jopuntuak seinalatuz dozena erdi bat argazki egiteko agindu zion, tarteka zuzendu beharreko akatsen bat ohartarazita. Ondoren, klixeak kameraren barruan zelan ipini luze jardun zuen.

Gelako leihotik gortina artean kalera begira zegoelarik, ezkutatu gura ageri batean ari zen Mentxu. Kristalaren atzeko aldean eskegitako oihalei, trinkotu asmo alferrikako batez, tira egin zien ikusi zuenean zelan, zilindrada handiko mo-

tozikleta batean ailegatutako gabardina eta kapeladun gizon batek, ihes-tutuaren sorburua amatatu eta motorraren astuna orpoz ateratako euskarrian alboratuz, farola baten magaletik inguruko etxe-aurrealde guztien goiko parteak leihoz leiho ikuskatzen zituen. Binan jaitsi zuen behe solairu bitarteko eskailera eta tupustean zabaldu zuen kalerako atea, laguna metro eskas batzuetara egongo zelako segurantzan.

– Deabru Fonseca! Segi aurrera, hi eta hire itzal gaiztoak ongi etorriak zarete!

– Zimurtu egin zaizkin edertasunak, neska! Putetara joaten segitu beharko dinat, bistan da!

Bajuxeagotik berba egiteko oharra egin zion aurpegiaz, eta etsipen imintzioa egin zuen gizonak, Mentxu bera izan baitzen aldarri egin zuen lehenena. Besarkada luze baten estakurua hautsiz Fonsecak bost metro goragoko letrerorantz egin zuen atzamarrez, eta belarrira esan:

– Zer, Portabella ugazabak ez din algararik egiten uzten?

Beste gizon askorekin alderatuta inguratu erraza zen bizkarraldea estuagotu zuen Mentxuk besoez, bestearen bizkarrezurrean esku biak

elkar lotuz. Eskolakume nerabe baten portaera ote zen kezka izan barik, eskutik heldu zion Fonsecari eta eskaileran gora eroan zuen, beti ere metro baten abantailaz emakumea. Igoeraren erdialdera, Bordeleko merkatariarekin gurutzatu zelarik, gizonaren eskua jausten utzi zuen instintiboki. Minutuaren buruan zeuden biak Mentxuren gela barruan. Gortinak zabalduta neoizko idazpuru amatatua seinalatu zion.

– Portabella Antoniaren abizena duk, astapotroa. Eta Santosen emaztea ez duk nire ugazaba. Lagunak gaituk.

– Ulertzen dinat. Esan gura dun heu haizela haren ugazaba. Ez zakinat kontrakoaren posibilitatea zelan otu zaidan ere.

«Alua!» murmurikatu zuen Mentxuk nahiz eta aspaldiko lagunaren alukeriak zoragarriak zitzaizkion.

– Zigarro bat egitea gura duk?

– Ez dinat erretzen.

– Burbon edo gin?

– Ez dinat edaten.

– Ez esan! Abstemioen Ligakoa izateagatik eroan hinduten komisaldegira?

– Neu ez nindunan barruan, sentitzen dinat hirugarrenez hi defraudatzea, bisita bat egitera joan nindunan...

– Segitzen duk lanean, beraz, zerbait edukiko duk esku artean.

– Memento honetan gauza handirik ez, hi haut esku artean –gerritik heldu zuen Mentxu.

– Barka egik elkartasun falta, baina nik gustura edango diat zer edo zer.

Ohituta zegoen Mentxu bere gelan edariak izotz barik hartzen, sukaldeko gordailura ez jaistearren. Nahikoa zen, beraz, txorrotada soil bat edalontziratzea, isurtze behar horiek patxadan egiten bazituen ere. Segundo gutxiren kontua, zelanbe. Santosek Fonsecaren berri eman zionetik noiz ahoratu zain zeukan galdera-parrastada egin zion:

– Zer dela eta Kantabriako parteotan? Batek daki zelan eskuratu duan mugitzeko baimen-agiria.

– Gogoan izango dun partiduko komisarioak zelan mesfidatzen ziren nitaz... ba aitortu beharra zaukanat arrazoi apur bat bazutela. Komunista izaten segitzen dinat nolabait, eta oraindik ere

ospakizun lege loriatsuenak gordeak zauzkanat beharginek boterea hartuko duten egunerako. Baina ni ez naun proletarioa. Eta agian horrexegatik salbatu nindunan nazionalak sartu zirenean. Orain *import-export* negozioetara dedikatzen naun, nire bidez nazioarteko zorioneko blokeoa gainditzen ari direla sinistu eragin zienat sistemako jauntxoei. Egia esan, Hego Amerikako herrialdeekin besterik ez dinat lan egiten, baina kontaktu ugari ditudala esaten zienat: Chelsean, New Yorken... Ezagutzen naun, ez nazan behartu neure buruaz neurriz kanpo lotsatzera.

Mentxu apur bat zapuztuta zegoen Fonsecarengandik espero ez zuen sintzeritatearen ondorioz. Ez zion lagunari galdera itzultzeko abagunerik eman.

– Ikusi diat motoekiko zaletasuna ez duala galdu.

– Ez dinat edukitzen paseiatzera nor eroan...

– Ez dituk hire putak paseatzera eroaten?

– Txarto, laztana, oso txarto, umorea galdua dun erabat.

– Eroango nindukek hire moto ponposo horretan auzokoen begietatik urrun?

Amaitubako edalontzia mahaitxo gainean utzi zuen, Fonseca eskumako eskua goratuta hurreratzen ari zitzaiola ikusita. Mentxuk edan barik lagatako burbon hondarra eztarriratu zuen.

– Ez huen sinistuko abstemioa naizelako amarru zikin hori. Neronek uste baino antzezle hobea naun, ez ninan uste.

Ezkerreko eskuaz musuzapia atera zuen faltrikeratik eta hartaz igurtzi zituen edalontziaren ertzak eta barruko sabel gardena.

– Baina frogak ezabatu egin behar ditinat. Ulertzen dun, ezta? –eta barre egin zuen Mentxu lar sinisbera ote zebilen zalantzak jota–. Goazeman.

– Itxaron apur bat kanpoan. Motoan ibiltzeko hobe diat prakak janztea. Berehala aterako nauk.

Dueñasko jauregiaren alboko lorategiaren terrazara heldu ziren, eta gorputzak barandaren burdinetan utzita talai hartatik ikusten zen Abraren ikuspegi luzea dastatzeko isilunean murgildu zen bikotea. Kontrako sorbaldaraino eroan zuen besoa Mentxuk bizkarretik. Oso-oso apaletik mintzatu zitzaion Fonseca.

– Gauzak gaizki zabiltzan negozioetarako...

– Zertara zatozak negar horiek? Noiz izan duk garai onik guretzat?

– Hik badakin baietz, ez nazan behartu nostalgikoarena jotzera...

– Ez, ez diat ezer gogora ekarri gura. Orduan ez genbiltzaan hain negozioetara emanak baina... Utz dezagun, beldur ninduan bihotza harri koskor baten antzera gogortua ez ote heukan.

Bihotza beharbada baietz, baina ez zekiela seguru sentimenduak non sortzen ote diren, bihotzean ala hesteetan. «Hirekin topatzearen perspektibak bigundu zidan gilborra. Ez gauden oraindino erabat fosilizaturik», eta damu-trazez nahastutako irribarre batek lagundu zuen gizona burua andrearen kolkoaren kontra babestera.

– Goazemak hemendik, gero eta jende gehiago hurreratzen ari duk.

Albait geldoen joateko erregutu zion Mentxuk motozikletan igo zirenean, ez zeukala inora heltzeko ezelako presarik. Gidariaren gerriari beso biez helduta, berbarako beta eragotziko zion zarata gutxienekoa izan zedin gura zuen. Halan eta

guztiz, durundia handia zen eta deiadarka egin behar izan zion Mentxuk.

– Urteak dituk ohe estuan lo egiten dudala!

– Hori niretzat ez dun prolema, gu biontzat esan gura dinat!

Erripan behera motozikletaren abiada handiagotuz zihoalarik, tranbiaren burdinbideekin olgetan aritu zen Fonseca, bion ipur-masailak tupusteko punpetan ipinita. Bizikleta edo gurdiren batekin gurutzatzean soilik balaztatzen zuen apur bat, azelerazio enbragebakoen bitartez oinezkoei arriskuaren berri emanez. Lepoan jira t'erdi emanda zeukan tapauka destolestu egin zuen Mentxuk musua begietaraino estaltzearren. Obretan zegoen Carlos III.a kaleko bidegurutzera heltzen ari ziren. Espaloi berriak egiteko lanak zeuden, eta argiztapen sarea ere hobetzen nonbait. Galipot kamioien inguruan sortzen zen hodei gris iluna ikustearekin batera, Mentxuk ezkerreko kale batetik sartzeko adierazi zion. Bide hark ez zeroan inora, kalearte estu batean amaitzen zen, eta motoa bertan uztea proposatu zion. Hormigoizko pilote batzuk igarota eskailera meharretik jaitsiko ziren itsas pasealekura.

– Ez hintzen geroztik ezkonduko, ala bai? –batentzako tokia zegoen eskailera hartan, eta bera aurretik zihoanez, Mentxuk burua jiratu zuen itauna egiteko.

– Noiztik erreparo horiek ezkondutakoekin? Lasai, neska, oraindik zin egite zahar batzuekiko fidel segitzen dinat, ez nain inork harrapatu bizitza osorako.

Ez zuen Mentxuren erantzunik jaso, eta iseka doinuz jarraitu zuen Fonsecak.

– Baina ez jarri aitzakiarik, berdin din...

Gorputzaren pisuaz eta aldatsaren gorriaz areagotuz zihoan abiadura eten egin zuen Mentxuk, eta gizonaren gorputza ia gainera jausi zitzaion jiratu zelarik buruz buru lotu zirenean. Berezko altura desberdintasunari maila bat beherago egotea gehituta Fonsecaren gilborra zeukan Mentxuk begi aurrean. Begirada oso goraka okertuta egin zion berba.

– Oraingoan ere nik eskatu beharko diat gaua nirekin pasatzeko? Gauza batzuk ez dituk hainbeste aldatu.

Trapagarako autobusa hartu zuen arratsaldeko hiruretan. Bidaide gehienek baserritarrak ematen zuten, azokatik bueltan. Otzara handiak zeroatzaten haietako askok, eta jesarrita zeudenek behintzat lanak zituzten hain zer handiak jesarlekuen mugetara ekartzen. Alboko andrazkoak lurrean utzitako otzara itzela eskumako oinaz zapaldu beste erremediorik ez zeukan Joseluk. Ez zen eroso sentitzen halan, eta hanka bat bestea baino goratuago zeukala aprobetxatu zuen aitari ostutako praken hanka laburtuari barrura aldeko tolesdura hobeto biribiltzeko. Sabelean ukondo biez presionatuta zeukan zakutoa ere arrotza egiten zitzaion. Tarteko auzune eta bidegurutzeetan ia erdiraino hustu zen autobusa eta Tragapara heldutakoan, hamabost bat lagun besterik ez ziren gelditzen.

Oinez egin zuen La Arboledara igotzen zen funikularraren geltokiraino. Lehen aldia zuen halango ibilgailuan bidaiatzen zuela eta gorako bidea muturra leihoko kristalari itsatsita igaro zuen. Altura apur bat hartu bezain laster agertu zitzaion Trapaga haraneko hedadura zabala, eta Nerbioi gainean eskegitako transbordadore me-

talikoagatik ezagutu zuen Portugaletek non behar zuen, San Roke eta Iruiturri mendixkek ezkutatuta. Begien aurrean zeukanak merezi zuen, zalantza barik, txartela ordaintzea, eta une batez ihes egin zioten erabakiak zeuzkan pertsona helduaren gogor itxurek. Funikularra goiko geltokira arinegi heldu zela iruditu zitzaion, luzeagoa gurako zukeen.

Ustebakoa hartu zuen, geltokia ez zegoela gailur-gailurrean ikusi zuenean, eta berrehun metro gehiago errepidean gora eginda aurrez aurre zabaldu zitzaion meategi harana, zulatze lanen poderioz gorriztutako paraje malkartsuak. Lehenik beheraka eta gero goraka egiteari esker, argi ikusten zen errepideak La Arboledako etxarteraino egiten zuen marrazkia. Bertara ailegatzeko beste hamar minutu beharko zituela kalkulatu zuen, eta bien bitarteko denbora gehiena eskumako zelai batean futbolean ari zen haur hamarkote bat behatzen igaro zuen. Arretaren haria baloiaren zertzeladei lotua zuen, hasiera batean begitandu baitzitzaion erdi hustutako baloi arrunta zela, baina bidean aurrera egin ahala zalantza sortu zitzaion, ez ote zen eskuz

jokatzeko pilotekin egiten den legez sokaz estuestu eutsitako objektu esferikoa besterik. Plazara heldutakoan asebeteko ur-saioa egin zuen iturrian, eta bertoko petrilean atseden hartuta errepasatu zituen eman beharreko hurrengo pausoak.

Dozena bat jende ikusi zuen aurretik pasatzen iturrian erdi jarrita igaro zituen uneetan, eta herrialde urrun batean zegoelako sentimenduz begiratu zien. Emakumeen urritasuna, hasteko, eta janzkeraren desberdina, ondoren. Belaun gainean pausatu zuen bide osoan bizkarretik dingilizka eroandako zakutoa, eta eskuez haizatu zuen apur batean bolumen handiagoa har zezaten kartoi eta paperok.

– Mesedez, dispentsarioa? –galdetu zion ikusitako lehen andreari.

Eskola itxurako eraikinean zela erantzun zion. Izkina zuri bat baino ez zen ikusten plazatik, etxe biren arteko zirrikitutik. Hara abiatu zen, eta artegak hanketan sortutako dardara arina abiadura areagotuz konpondu zuen. Gurutze gorri batez seinalatutako atetik sartu, eta *«Practicante; Médico; Enfermería»* errotulu hiru-

koitzez markatutako atean kolpe bi jo zituen atzamar-hezurrez.

– Lucas hemen da?

Lotsak antzean itaundu zuen gelan aurrera egiteko baimen-orroa entzun eta atea zabaldu zuenean. Lente koxkor eta biribiletako antiojoak zeramatzan gizon bat zegoen idazmahaiaren atzean, ile dirdaitsua atzerantz tinkatua zeukana, idazten ari zen zerbaiti erreparatuta, eta aldamenean beste gizon bat zutik, osterantzeko janzkiak bezain arrexka zen kapeluari esku biez oratzen ziola. Bazirudien prakak ez eze, atorra ere gerriko lodi batek sostengatzen zuela.

– Santosen semea naiz –ausartu zen Joselu.

Luma erabiltzen ari ez zen esku librearen mugimendu batek adierazi zion txabusina zuriz jantzita zegoena zela Lucas, baina itxaroteko apur bat mesedez.

– Zure alabak badaki irakurtzen, ezta? –zuzendu zitzaion zutik eta giharrik mugitu barik jarraitzen zuen besteari–, hemen garbi idatzi ditut orduak eta dosiak. Ez esan, gero, gogoan hartu ezin izan dituzunik.

Eskerrak emanda irten zuen gelatik meatzari itxurakoak, esku berberaz kapelua eta papera, bi-biak, zimurturik.

– Eta? Zer berri dugu?

– Pakete bat ekartzeko mandatua daukat.

– Bazen garaia! Ederto! –jaiki eta hurbildu egin zitzaion lehen enkontruko hoztasunaren kontrako konfiantza eman guran–. Beraz, zu zaitugu Santosek hain esne-mamitan gordetzen duen harribitxia.

– Atzo arte ez zidan esan hona etorri behar nuenik. Ez dit orain arte egiteko honen berririk eman.

– Ni ez naiz gurasoaren lanetan sartuko. Zure aitak jakingo du noiz eta zertarako zagozen nahikoa gizon.

Joseluren mandatuarekin pozak bizkortuta ematen zuen Lucasek, eta Santos –«zure aita santu hori», bere berbetan– gero eta gutxiagotan ikusten zuela esan zion. Garai batean desberdina zen, astean behin edolabere izan ei zen garraiorik, baina azken aldion hilero baino ez. Alde egiteko presa zeukala gaztigatu zion osagileak, eta fardela mahai gainean utzita, bake san-

tua. Joseluk aurrez gehien entseatutako eszenari ekin, eta zakutoaren estalkiaren azpikoari begiratu ostean gizon gizonduenen modura hasi zen madarikazioka eta biraoka, ez zegoela sinisterik baina fardelez erratu zela. Kaka beste halangoari eta desenkusa apalez batera, biharamunean ekarriko ziola agindu zion, larregi lotsagorritu barik.

– Bai, faborez. Premia daukagu eta.

Elkarrekin hartu zuten hodei arteko eguzkiak epelean utzitako kalea. «Urte askotarako», eta bostekoa eskaini zion Lucasek izena galdetu ostean. Medikua kalean behera auto bila zihoan bitartean, Joselu begira gelditu zitzaion badaezpadan ostera begiratzen ote zion. Aurreikusi legez jazo, eta gazteak agurra itzuli zion harro-plantan. Ia kale osoan urrundu zelarik, Joseluk zakutoa bizkarrera jaso eta bestearen urratson hariari jarraitu zion. Lucasek autoa abiarazi eta hauts harroaldi baten erdian egin zuen azelerazio burrunba. Joseluk bistan zeukan plazako iturria, eta hamar bat metro lehenagoko etxeko sotoan ardandegi itxura zeukan biltegira hurreratu zen. Espaloirik gabeko kalera ematen zuen leiho ba-

karretik begirakunea hartu zuen, eta upaz inguratutako mostradore aurrean ziren gizonen artetik bere adin bereko gazte bi ikusita erabaki zuen barnera egitea.

Ardaoa eskatu zuen duda-mudazko ahoskeraz. Edalontzia eskuan hartuta, ahorako erdi bidean mantendu zuen, eta lepoa mugitu barik saiatu zen batera eta bestera begiratzen. Bere adin berekoak ei zirenak ez zitzaizkion orain kide iruditzen, eta lehenago plazan janzkeraz ohartutakoaz ere ez zegoen hain seguru, jantzietan ala zabarrean ote zegoen bera eta besteen arteko desberdintasuna. Edalontziaz libre zeukan eskua masailezurrera eroan zuen, besteekiko erkaketan zeukan bixar falta ezkutatu guran.

– Raguadas gaztea zaitugu beraz! –deiadar egin zionari aurre eginda, minutu batzuk lehenago sendagilearen kontsultan ezagututako gizona ikusi zuen.

Bat-batean ardandegiko atentzio-gune bakarra bihurtu zen Joselu, eta ordura arte dastatu barik zeukan baxoerdia ahoratu zuen aurpegieraren gorritua areagotzearekin batera. Orro egindako gizona besteei azaltzen hasi zitzaien

zelan osagilearekin zegoela agertua zen mutikoa, eta esanak esan ondorioztatu zuela hark behar zuela Raguadas gaztea. Aitaren barrabilak norainokoak ziren jakin zuen Joseluk, eta baita gibela ere, eta eskuzabaltasuna. «Beste sorgin horrek menpeko edukiko ez balu», damu doinuz adierazi zuen koadrilako batek. Ingurukoak berotu egin ziren haren esanekin, eta Joseluk ikusi ahal izan zuen, oso labur ikusi ere, haietako batek atzamarrez narru jotze keinu nabarmena egin zuela. Hamaika anekdota harilkatu zituzten bata bestearen segidan, Begiristain maisua zela, sindikatua zela, Lola erizaina zela, eta batek aipatu ere egin zuen aspaldion ez zutela Santosen berririk izan, espero zutela arazorik ez edukitzea. Joseluk ia silaba bakarreko erantzunez uxatu zituen besteen aitarekiko beldurrak.

Bueltako bidaiarako beharko zuen pezeta gordeta, faltrikerako sos guztiak ipini zituen Joseluk mostradore gainean, zuzen jokatzen ari ote zen zalantzaz, baina besteengandik jasotako erantzunak lasaitu egin zuen, eta ongi portatu izanaren sentsazioak kutsatu zion aurpegiera. Eskuak gerrikotik eskegita igaro zituen ardande-

giko tertulia zutikakoak iraun zuen geroztikako denbora guztia. Harik eta funikularrerako bidea hartu zuen arte.

Gau erdiko isiltasuna nagusi zen kalean Fonsecak gelako leihoa alderik alde zabaldu zuenean. Burua paretaz haratago aterata gora zuzendu zuen begirada eta izarrak garbi atzeman zituen teilatuetako hegalen artetik. Leihoa freskura bila zabaldu zuen baina ohartu zen kanpoan sargoriago zegoela barruan baino, eta janzki soil zeuzkan galtzontziloak gerriko aldetik airatu zituen inon ez zegoen haizea bilatuko balu legez. Ohean segitzen zuen Mentxuk, nahiz eta izara kiribildua emakumearen gorputza estaltzeko soilik zegoela ematen zuen. Eztarriaren marranta-hots batez kargu hartuta, leihoa ixteko agindu zion Mentxuk, eta Fonseca, mandatua bete eta gero, pianoaren aulkitxoan jesarri zen. Metro biko distantziatik ikusi zuen zelan Mentxu jaiki egiten zen eta txabusina janzten. Pianoko estalkia kentzen zuen bitartean Fonsecak aspaldiko lehen

berbak goratu zituen ohera alboz begiratzen zuela.

– Zorte txarrekoa izan behar dinat, sekula ez zaidan tokatu emakume batek filmetan bezala egitea nire aurrean, horrela –bizkarra tente ipinita besoez imitatu zuen–, gorputza izaraz bilduta jaiki eta komunerantz joatea.

Barre egin zuen Mentxuk eta txabusina kenduta oheratu egin zen ostera. Larregizko imintzioak eginda birritan jaiki zen, baina izara bulargainetatik behera bilduta. Pasarelako urrats geldo batzuen ondoren Fonsecaren berna gainean jesarri zen, eta musu emanda murmurikatu zion:

– Ez zaukaat komunera joateko gogorik, ez zaik inporta, ezta?

Izara zilborreraino jaitsi zion eta Mentxuren bular artean pausatu zuen burua Fonsecak. Eskua gerriaren atzetik pasata tekla solte batzuk jo zituen pianoan, Mentxuk txarto jotako *El 5º Regimiento*-ren errepikaren estreinako noten antzekotzat identifikatu zituena. «Ikusi barik jotzeko adinako abileziarik ez daukak» esanez, Mentxuk taxuz osatu zuen kantaren puska Fonsecak

«anda, jaleo, jaleoooo, suena la ametralladora...» ahots oso baxuan, ia kolkorako, kantatzen zuen bitartean. Eten egin zuen joaldia Mentxuk eta pianoaren estalkia itxi zuen.

– Horrela segituz gero, ostatuko bezeroen kexek bota nazatela lortuko duk.

Pisu handiegia zitzaiolako antzerkia eginez, Fonsecak suabe bultzatu zituen Mentxuren ipurmasailak, emakumea jaiki zedin. Bera ere tentetu egin zen, eta paseo luze baten moduko urratsak eman zituen gelan zehar. Mentxuk txabusina soineratzen zuen bitartean gizonaren galdera entzun zuen:

– Noiztik atsegin zaizkin piano desafinatuak?

– Gauza batzuk aldatu egiten dituk ezinbestean. Lehen Carmen ninduan eta piano eleganteak maite nitian. Orain ikusten duk non nagoen.

– Ohartu naun orain Mentxu deitzen dinatela. Lasai, nire adimenak aspalditik ikasi zinan kuriositateari muga ipintzen.

Diskogailuaren ondoan zeuden biniloak ikusten hasi zen Fonseca.

– Tira, Verdi! Beste gauza batzuk ez ditun hainbeste aldatu. Eta Santos?

– Inoiz ezagutu dudan gizon finena duk. Berrogeita hamar urte betetakoan berarekin ezkondu gurako diat.

– Pozik bizi haiz?

– Botika eta ostatua ditiat, familiarteko giroa ere badudala esan daitekek... ez zagok txarto, ezta?

– Ez zakinat, hik heuk jakingo dun. Komunera noan –eta pianoaz haratago zegoen egurrezko aterantz jo zuen.

– Ez, ez duk hori, beste atea duk komunekoa –eten zuen Mentxuk, agian tonu zakarregiaz, Fonsecak sarrailako euslekuari heltzen zion unean. Burua jiratu zuenez, atzamarrez seinalatu zion pareta berean baina metro bi ezkerrerago zegoen beste atea–, ez baduk traste zaharretako hautsez zikindu gura, behintzat.

Lurreko baldosak eta alfonbra txikiak oinkada arin eta isilez zeharkatu zituen Mentxuk komuna ez besteko ateraino, eta Fonsecak aski itxita utzi ez ote zuen segurtasun faltaz, bultzada txiki bat eman zion. Fonseca komunetik itzuli zelarik, zigarro bana erre zuten isilean. Beste ordu batzuez ostendu gura lukeen unea hurreratzen ari

zela konturatu zen Mentxu, Fonseca prakak jantzi eta atorraren alde zuzena bereizten hasi zenean.

– Joan beharra zaukanat. Arrazoia huen, ohea estuegia dun.

– Neuretzat ez. Ohitura izango duk. Hi izan haiz motoan gindoazenean harroarena egin duena, ohearen tamainak ardurarik ez zuela esanez.

– Eta ez zidan ardura, ez hadi hainbeste seriotu –kokoriko ipini zen ohean jesarrita zegoen Mentxugandik gertu–. Zer edo zer maitagarria esaten asmatu behar niken une honetan.

– Hire zakarkeria maitagarria duk, ez pentsa –eta eskukada batez orraztu zizkion bekokiko ile kizkurrak–. Itxarongo dituk hamar minutu? Negozioez berba egin gura diat hirekin.

Kokotsa paparretik aldendu zuen Fonsecak eta solemneki errezitatu zuen:

– Epaile jauna, gurako nuke idazkariak aktan behar bezala jaso dezan ez naizela ni izan, aurrean dudan emakume hau baizik, memento honetako giro erromantikoa hautsi duena!

– Utzi tontakeriak eta erdu hona –bere alboko ohe puska seinalatu zion Mentxuk, alborik albo jesar zedin.

– Erantzuna ezezkoa dun. Sentitzen dinat, Mentxu, baina ez. Negozio kontuetan ez dinat inoren menpekorik izan gura.

– Fabore bezala eskatuko diat orduan. Korapilo batean atxituta nagok, eta hire laguntza behar diat. Ezin duk ezetz esan.

– Bederatzi minutu gelditzen zaizkin.

Fonsecak ipinitako epeak zertarako eman zezakeen neurtzen ari zela zirudien Mentxuk, baina indar biltze saioa baino ez zen izan, antza, itaundu aurretik:

– Hilabete barru hemen inguruan ibiliko haiz?

– Ez, ez zakinat non, baina hemen nekez.

– Eta modurik badaukak hemen egoteko?

– Eman dezagun.

– Seguru asko berdin dik. Beharbada urrutitik ere egin ahal izango duk. Nire beharretarako, itsasontzi batzuk alokatu behar dituk, berdin dik konfiantzazko jendea den ala ez. Susmoa pizteko moduko garraio txiki batzuk antolatu itsasontzi horietarako, dena legezkoa baina ez itxura

batean. Helburua duk polizien arreta piztea astebetez, hemendik hilabetera gutxi gorabehera. Poliziak galderarik eginez gero, nire aginduetara ari direla aitortu beharko ditek morroiek. Posible duk?

– Tira! Eskatutako hori faborea baldin bada, ez dinat pentsatu ere egin gura hireganako obedientzia derrigorrezkoak zertara behar dezakeen. Nolanahi ere, ez dun erraza izango –isileko kalkuluak buruz egiten zituelako planta hartu zuen Fonsecaren musuak.

– Egingo duk?

– Baliteke, bazaukanat pizarra kargamentu bat eta...

Mentxuk eten egin zion:

– Ez diat xehetasunen berririk behar –paper bat atera zuen mesanotxe antzeko altzari baxuko kaxoitik–. Prest dagoenean, bidali kablegrama bat helbide honetara zergura txorakeria kontatzen, Santosen lantokia duk, eta haren izenean bidali mezua. Bueltan beste bat jasoko duk, eta bertan data bat ageriko duk. Ordurako amaitua beharko dik negozioak.

Komentzimendu gutxiko adostasuna adierazi zion Fonsecaren buru mugimenduak. Atorrako botoiak lotu zituen astiro, eta zutitu ondoren praken azpira sartu.

– Hik trukean opari bat onartu behar didan.

– Trukean eta oparian? Zer?

– Motozikleta. Gaur bertan erosi dinat higan pentsatuz, gaurko zitan hi inpresionatzeko, eta ez dinat beste ezertarako behar. Oso zaharra dun eta merke lortu dinat. Gutxienez gasolina agortu arte erabili ahal izango dun.

Motoa han uzten baldin bazuen, goizaldeko ordu batean inora joateko zelan egingo ote zuen galdetu zion, eta ea gura zuen berak taxia lortzea.

– Lortuko dinat serenoren bati esker. Ez hadi kezkatu, zenbat eta higandiko arrasto gutxiago utzi, hobe.

–4–

Salto azkar batez zapaldu zuen kalea Mentxuk. Aurreko kantoiko etxean bigarren solairutik gora argitzen zuen eguzkiak, eta gerizpeko freskura diosal legez interpretatu zuen. Udaberri hondarreko egun haiek ezusteko atseginak zitzaizkion. Begietan zuen irribarrea, ezpainetakoa ingurukoentzat nabarmenegia izango zelakoan. Amodio osteko poza sentitzen zuen, zelanbaiteko arintasun ezohikoa pausokeran.

Botika itxi berria, bazkari bitartekoa kalez kale egiteko asmoa zeukan, salgaiez urri hornitutako aurkeztegiak ikusten eta herritar zintzoarena betetzen bati eta besteari agur legea eginez. Bazuen buruan beste egiteko baten aukera. Pello-Txikiren tabernan Santos topatzeko esperantza zeukan, Antoniak esan baitzion, eguerdiko otordurako etxera agertzekoa zela, eta horrelakoetan basoerdi osteratxoa egiten zuen leku aski ezagunetatik.

«A zer kasualitatea!» esan gura balu legezko aurpegia ipini zuen tabernaren barruan Santos

lagunartean ikusi zuenean. Sartu barik egin zuen antzerkitxoa atetik, norbaiten aurrean interpretazio saioren bat burutzen egongo balitz bezala, harik eta inguruan inor ez zeukala konturatu zen are. Areago, taberna barrukoetatik inork ez zion erreparatu, eta kalearte aldapatsu hartako leihoetan mugimendu txikerrenaren itzalik ez zen antzematen. Etsi antzean erretiratu zen tabernako ataria zen eszenategi hartatik, eta Kristoaren plazatxoko aulkian jesartzera abiatu zen, handixe ederto ikusten baitzen Pello-Txikireneko kanpoaldea. Ezin zuen burutik kendu aurreko astean Joseluk aipatutako zurrumurruarena, alegia, Santos bere txotxongilo hutsa zelako istorioarena, eta hura entzun baino lehenagoko egunetan taberna barruko lagunartera dei egingo ziokeen arren, orduko hartan ez zuen horrelakorik egin, eta hogei metrora patxadan itxarotea deliberatu zuen. Irribarrea ezpainetaratu zitzaion Joseluren gizontzeaz isilean ironizatuz, dagoeneko mutikoa ez zela hain ume eta beregan eragindako portaera-aldaketa zuela haren froga zuzena.

Zigarro bat erretzeko jorana sentitu zuen baina jendaurrean halakorik ez egiteko aztura,

usadioetan aski sakon finkatutakoa, nagusitu egin zitzaion, eta besoak gurutzatu zituen blusa zuriaren gainetik, itxaronaldi behar bezain luzerako. Plazako aulki hartan eguzkiak goitik behera jotzen zuen gura baino pisuago. Ez zuen luzaro hala egon beharrik izan, buruz erretzen uste ari zen zigarroa amaitu aurretik kaleratu baitziren Santos eta lagunak. Egoera berria zitzaion eta ez zekien handik aurrera zer egin behar izango ote zuen, urrutitik aldarri egin ala ezusteko topaketaren bila kalean behera abiatu. Santosek sama okertze batean ikusi zuen urrutitik eta apur batean egoteko keinua egin zion beso luzatuaz. «Kontuz, txotxongilo, nabarmen geldituko haiz lagunen aurrean» xuxurlatu zuen Mentxuk gaiztakeriaz. Handik laster bekoz beko izan ziren biak.

– Kontxo, zer egiten duzu hemen? Kalearteko ohitura onen aldeko ikuskatze lanak betetzen?

– Paseatzen, Santos, beste barik –esan zuenaren eta jesarrita egotearen arteko kontraesanaz jabetzearekin bat eten zuen Mentxuk erretolika–. Segi lasai, lagunek alde egingo dizute.

– Berdin dio, etxera joateko asmoa neukan –ordulariari begira.

– Goazen toki diskretuagoren batera.

– Bada halakorik herri honetan?

Jaiki eta karkaba ordeka batean zehar joan ziren. Ez zen beste inoren pauso hotsik entzuten harlauza zaharkitu haien gainean.

– Kontatu dizu Joseluk berri ona? –itaunaren erantzuna ezezkoa zela aurrez jakinda jarraitu zuen Santosek–. Ganorazko borroka baterako aukeratu dute gimnasioan. Borrokako prakak eta guzti eman dizkiote. Aitaren lelokeria irudituko zaizu, baina egingo nuke ahotsaren tinbrea ere aldatu egin zaiola geroztik. Ez dakit, gizonduago bezala ematen du, eite serioagoa erabiltzen duela iruditzen zait. Berdin du, gurasokerietan ari naiz.

– Gazte jatorra da, eta zuek ere merezia duzue bere arrakasta.

Elizaren azpiko kantoira heldu zirelarik Santa Maria kalean behera egin zuten udaletxe aldera. Etxarte ilun batera ematen zuen barandilaren aurrean gelditu zen Mentxu, eta bestearena moduko jarkera hartu zuen Santosek ere, besoak

hesiaren burdinan ipinita eta itzalune hezera begira.

– Gogoan duzu aurrekoan ekarri zenidan orri hura, zezenzaleen buletinetik erauzitakoa?

– Ipini duzu albumean, ezta? Banekien atsegin izango zitzaizula.

– Ez, oraindik ez dut argazkia ebaki, begira –eta gonetako faltrikeratik ateratako aldizkari puska destolestu zuen–... Bertako artikulua irakurtzen hasi nintzen bart eta, tira, zezen kontuak ez dira nire gogokoenak baina grazia zeukan kronistak, eta hurrengo orrialdean segitzen duenez, atzeko aldeari ere ekin nion. Eta ezusteko galanta jaso nuen.

Santosen begien bistan zabaldu zuen atzeko alde hura, eta oinean zeuden argazki bietatik eskumakoa erakutsi zion. Aurreko urteko zezenketa bateko argazkia zen, zezena hilda eroaten ari ziren unean ateratakoa. Hareatza amaitzen zen tokian, hesiaren gaineko gotorleku erreserbatu batean, hainbat jenderen buruak nabarmentzen ziren *«Autoridades»* letreroaren gainetik. Bost gizon ziren, haietako hiru kapeladun polizia uniformatuak, eta beste biak paisanoz jantziak.

Baten buruak arkatz gorri baten marra zuen inguruan.

– Ez zaizu ezaguna egiten?

Santosek ez zuen erantzun. Orria hurbilagotik ikertu zuen begiak nabarmen txikiagotuz.

– Bera da, ezta? Algortako hitzorduko morroia –kolpetik irten zitzaion Mentxuri pazientzia agortuta, lagunak paperean hiru milimetro baino luzeagoko diametroa izango ez zuen aurpegiari begira segitzen zuen bitartean.

– Baliteke, baina hain tamaina txikian zaila da esatea –orria itzuli zion Mentxuri, eta baiezkoarena egin zuen kokotsaz–. Erantzuna derrigorrezkoa den galdetegi horietako bat balitz, baietz esango nuke, bera dela.

– Arrazoia eman beharko dizut azkenean, zaharra, zeuk hasieratik hartu zenion txakur usaina. Orain ere ez zara batere harritu ikusitakoan.

– Ez da harridura falta. Kezka da. Eta harridura apur bat ere sortu dit, egia esan, horrela ibilitako tipo bat hain nabarmen etorri zaigulako. Ez daukat ideiarik ere zertan dabiltzan.

Atzera gorde zuen papera eta ukondokada batez egin zion kalean behera segitzeko gonbitea.

– Bistan da urduritasuna kutsatu gura digutela. Eta asmo horren arrazoitzat bi ikusten ditut neuk posibleen. Bata, gu gogaitzea edo izorratzea, garbi izan dezagun haiek direla nagusi, eta ez gaitezen mugi beldurragatik. Bigarren hipotesia, gaiztoena beharbada, jokaldi okerra egin dezagun bultzatzea izan liteke. Ea urduritasunak hanka sartzera garoatzan.

– Bi-biak iruditzen zaizkit niri gaiztoak.

– Euren helburua edozein dela, zer edo zer egin beharra daukagula uste dut. Lehen hipotesiaren kasuan, harrotasunak eskatzen didalako geldirik ez egotea. Eta bigarrenarenean, ustez gurea izango den hanka sartzea eurena bihur dadin.

Xehetasun handi barik kontatu zion ordura arte pentsatuta zeukana, amarruzko operazioa antolatzea otu zitzaiola, urte batzuk lehenagokoen antzekoren bat, itsasontzi bidezko kontrabandoa emango zuen zerbait, txakurrek gezurretako amukiari heldu ziezaioten.

– Irrati bidezko sare bat muntatu beharko genuke egun horretarako, eta burutik pasatu zait modu errazena Bermejori eskatzea izango dela. Zelan ikusten duzu?

– Uzkur samar dabil nirekin atxiloketaren kontuaz geroztik... nik behintzat gurago nuke zeuk eskatuko bazenio –gaiztakeria aurpegiz begiratu zion Mentxuri–: Batzuetan iruditzen zait zurekin maiteminduta dagoela.

Mentxuren algarak luzatu zuen Santosen irrikarkaila. Isiltasunak bermatu zuen Bermejorekiko gestioari buruzko adostasuna.

Musu bat emanda eta afaritarako pertzetan zer zegoen begiratzen zuen bitartean, ea Mentxu goian zegoen itaundu zion Joseluk amari. Ezezkoa jaso zuen arrapostua, eta gainera, ez zuela uste laster batean etortzekoa zenik, botika itxi ostean betebeharrekoren bat izan behar zuela kanpoan, afaritarako iritsiko ote zen duda egin baitzuen. Esplikazioaren jarraipenari ezaxolarena egiten zion Joseluk. Ea zertarako jakin gura zuen galdeginda, Joseluk ardurabako tonua era-

bili zuen «lagun batek esandako zerbaitez itaundu gura nion» erantzuteko. Poltsatik izerditutako elastiko eta galtzerdiak atera zituen eta ama erabiltzen ari zen sukaldeko mahaian bertan utzi zituen, zuritu berriko patata azalen alboan. Biharamunerako garbiak beharko zituela esan zion, ez zuela ardura erabat lehorrak ez bazeuden ere, eta eskaileran gora egin zuen hirugarren solairuraino.

– Mentxu? Ni naiz, Joselu! –aldarri egin zuen beldurraizez atea zabaltzearekin batera.

Barruan inor ez zegoelako ziurtasunak ez zion eragotzi begirada barreiatze azkar batez ustearen berrespena bilatzea. Arreta handiz mugitzen ari zen, zaratarik ez egitearren edo argia isiotu ez zuenez kaleko farolek soilik argiztatzen zituztelako bazterrok. Linterna txiki bat hartu zuen sorbaldan dingilizka ekarritako zakutotik eta ezker-eskumako izpi mugimendu arina burutu zuen aurrez aurreko paretan. Pianoaren segidan zegoen atean finkatu zuen linternaren jopuntua eta bertora gerturatu bitartean pausoen kulunkak baino ez zuen lortu eskuaren dardara atean islatzea. Maratilari eragin zion eta kirrinka

mehe batek adierazi zion sarbidea giltzatu barik zegoela.

Argi gorri indarge batek erditzalez zirriborratzen zuen begietara hedatu zitzaion esparru ezezaguna, eta instintiboki makurtu zuen linternaren norabidea lurrera. Mentxuren gelako arrosek barreiatutako usain goxoaren kontrastean, gela hartan kirats itzela zegoen, hanka-usaina, izerdia eta botika-giroa. Hezetasun beroa. Arnasa sakon hartu zuen goragale iragarpena eteteko.

Berak espero baino gehiago urrutiratu behar izan zuen bista. Izkina batean, lanpara txiker bat identifikatu zuen argitasun gorrixka haren sorburu legez. «Nor dabil hor» itaun marrantatua entzun zuen. Linterna goratu zuen apurka eta berari esker ekin zion aurrean zituen objektuak zehatzago identifikatzeari.

Hiru mailatako literak ziren, lau ilara paraleloetan ezarriak. Kalkulatzen zuenez korridorearen hurren egon behar zuen paretaren kontra. Litera-sail bakoitzaren aurrean mahaitxo bana zegoen, eta hurrenekoa eskuko argiaz miatu ondoren ikusi zituen gain-gainetan zeuden koadernoak, botiken kristalezko ontzi koxkorrak eta goma

korapilatu batez itxitako kutxatxo metalikoak. Literaren beheko apalean zegoen manta puztua ikusita berton norbait lotan zegoela iruditu zitzaion, eta paretaren aldera egin zuen burkoa han behar zuelakoan. Ohean zegoenaren aurpegia linternaz distirarazi zuen arren, morroia ez zen esnatu. Goiko literan zegoenak ez zuen mantarik gainean, eta xehetasun handiagoz ikusi ahal izan zituen gizon mehar haren hezurdurek, hanketakoek nahiz besoetakoek, osatzen zuten erliebe durduzarazlea, hezurrak eta narruazala ia giharrik gabe elkarrekin itsatsita.

Arnas beharrean egongo balitz moduan jesarri zen Joselu baldosen gainean, ohearen zurezko oina bizkarraren euskarri, baina gutxi iraun zuen horrela, eta jaiki barik atera zituen zakutotik tresna metaliko astun bi. Aurretik lurrean utzitako linterna sabaira begira ipini zuen argitasun zurixka hura heda zedin. Argazki-kamera eta flasha kable batez lotu eta esku banaz heldu zien jaiki aurretik. Aldez aurretik entseatutako atzapar-mugimenduak atzenekoz berretsi guran, klikada batzuen simulakroa egin zuen argazkirik egin barik. Segundo batzuk pasatu zituen goiko

literetara, gorputza agerian zuen gizonarengana, zuzendutako estreinako argazkia bota baino lehen. Flashak sortutako itsumenak eta sustoak beste hainbeste segundoz utzi zuten paralizatuta bezala, nahiz eta segidan abiada itzelean etorri ziren beste bost, zortzi, hamar gehiago. Kexu batzuk entzun ziren hondoko literetako norbaitek eginak, oihu izatera iristerik ez zuen murmurioa. Eztul konbultsionatuak, kexuen oihartzun eten legez.

Ondoko gelan entzundako bat-bateko zaratak izutu zuen Joselu, eta kamera-flashak zakutoan sartu zituen jausten utzita. Linterna eskuratuta irteera aldera jiratu, eta gelako atea argiztatu zuenean ikusi zuen Mentxu, ate ertzean arduragabe itxuran kokatuta.

– Betidanik sumatu izan diat higan anparorik gabekoenganako errukia.

Iturburua paretaz bestaldean zukeen ahots modukoaz isuri zituen berbok Mentxuk, eta atzamarren mugimenduaz adierazi zion Joseluri bera zegoen tokira hurbiltzeko.

– Goazemak, koitaduek bake apurra merezi ditek.

Atzeko gelako atea itxita Mentxurenean sortutako berbeta falta zaurigarria zen. Hormako erlojuan zortziak paseak ziren. Txundituta baino beldurtuta begiratzen zion Joseluk.

– Zer? Zerbait interesgarria aurkitu duk?

Lepoko edo bizkarreko oinazeak jasango balitu moduan sorbaldak beheratuta, Joseluren begiek lurreko baldosak zituzten jopuntu, nahiz eta burua geldirik begi-niniek alde batera eta bestera ñirñirtutako barreialdiek labezomorroen ehizean aritzearen itxura ematen zioten. Eztarriko soinurik meharrena egin barik Mentxuk aginduko zizkiokeen gauza guztiak, hurrenez hurren, zintzo betetzeko prest zegoela zirudien. Andrea ez zegoen ezusteak sortutako amenzaletasun egoera hura pasatzen uzteko. Uhalari eginiko tiraldi arin batez kendu zion sorbaldatik eskegita zeroan zakutoa eta idazmahaiko aulkian jesartzeko eskatu zion.

Zakuto barruko tresneria ateratzean sortutako zaratak jadetsi zuen aspaldi luzean Joseluren begiak Mentxu zegoen tokira zuzentzea. Poltsak

mahai gainaren kontra hartu zuen atseden eta, flasharekin lotzen zuen kablea askatu ostean, esku biez oratu zion argazki-kamerari. Buruz gora hogei zentimetro altxatzea izan zuen Mentxuk lehenengo erreakzioa, baina jarkera bitxi hartan sakon hartu zuen arnasa eta damuaren aurpegia ipinita besoak euren onera itzuli zituen. Bera ere jesarri egin zen, eta birbobinatzeko ziriari eragin zizkion behar baizen itzuli gehiago, burdina jiratzearen ariketak pentsatzen lagunduko balio bezala. Kameraren barrenak zabaldu eta klixeak haizatu zituen soinekoaren poltsikoan sartu aurretik. Lurrean amultsuki laga zuen kamera, matxuratuko ote zuen beldurrez.

– Hire galderen zain naukak. Gura duana itaundu, nik neureekin hasi aurretik.

Adorea berreskuratzen ari zela ematen zuen, eta esperobako tonu indartsuaz erantzun zion:

– Uste dut ikusi beharreko guztia ikusi dudala hor barruan –eta soa Mentxuren musurantz zuzentzeko ausardiaz biribildu zuen esakunea.

– Eta zer duk, bada, hor barruan ikusi duana? Gaixo batzuk, besterik ez. Baduk adina orain

arte gurasoek ezkutatutako hainbat gauzaz ohartzen hasteko.

– Ez dut uste hor barrukoa gurasoek bakarrik ezkutatutakoa denik. Zuk ere parte izango duzu.

– Bakean utziko ditiagu hire gurasoak, arrazoia daukak. Behintzat, jakin gura izango duk zenbat dagozen, ez diat uste guztiak banan-banan zenbatzeko abagunea izan duanik. Jolas txiki bat egin dezagun, ea asmatzen duan zenbat dagozen...

Joseluk ez zuen erantzun.

– Tira, jolasa duk.

– Ez dakit... hamar, eman dezagun.

– Gutxiago, gutxiago. Duela urtebete hamabi zegozean, ez zegoan gehiagotarako tokirik literetan. Baina gauzak aldatu egin dituk azken aldian, eta behera egin dik kopuruak.

– Nahikoa da, Mentxu, ez nago tontakerietarako.

– Ez noski, mutikoa detektibearena egiten zabilek, edo poliziarena, eta film bateko pertsonaia nagusiaren moduan hasi ez zaidak bada trufarako zer den eta ez den aholkatzen. Detektibearena egin gura duanez, jakingo duk itaunak egitea

egokitzen zaiala, krimen denak argitu arte. Lehen ere eman diat aukera eta orain berritu egiten diat. Itaun egik gura duana.

– Hil aginik dagoz...

– Badakik zer jazotzen den meatzetan dabilen alproja bat tuberkulosiak edo silikosiak jota gaixotzen denean? Soldata osoa ordurarte legez jasotzen segitu gura badu, beharrean jarraitu behar duela. Eta zer egiten dik jendeak, jota dagoenean, oinazerik ez sentitzeko? Botikak hartu, gero eta indartsuagoak. Azkenean, morfina bihurtzen duk miseriak ahazteko eta mea-ustiaketari ez uzteko bide bakarra. Hasieran debalde edo oso merke lortzen ditiztek sustantziok mafietan, baina hilabete gutxiren buruan soldata erdia edo gehiago gastatzen ditek horretan. Drogen eraginez ere beharrerako ahalmenik ez dutenean, kale gorrira zoazak. Ia guztiek kanpoan ditek familia jatorrizko herrietan, eta soldata haiei bidali beharrak eroaten ditik puntu horretaraino. Ez itsuki maite dituztelako, frakasatu ez dutela adierazten jarraitzeko baizik. Nik, hire aitaren laguntzarekin, gaixoak hemen jasotzen di-

tiat beste inora ez dutenean. Hil arte ez zaiek ezer falta, ezta ezinbestekoa duten morfina ere.

– Eta zelan meatzariekiko harreman hori? Urruti dagoz paraje horiek Portugaletetik.

– Erdu hona –leiho ondoko mahaian antolatuta zeukan laborategitxo aldera seinalatu zuen, eta Joselu heldu bitartean paper mordoa hartu zuen apalategitik, aldizkariak, liburu bat eta koadernatu gabeko eskuizkribuak; bion arteko bakea sinatu asmorako ematen zuen beso tinkatzea egin zion sorbaldetan–. Ikusten duk dokumentazio hau? Emaiok begiratu txiki bat –izenburuetako testuak atzamarrez azpimarratzen zituen hurrengo orrialdeak haizatu aurretik denbora neurtzen legez–, ez zekiat jakingo ote duan botikarako zelako beharrak egin behar izaten ditudan hemen goian, baina zin egiten diat honek guztiak ez daukala zerikusirik botikako negozioarekin. Portugaleten ez zagok hainbeste gaixo birika kontuetan. Meatzariekin ari den mediku adiskide bati laguntzeko egiten diat. Aspaldiko ezaguna diat, hori eta gehiago merezi duena. Lucas Fernandez dik izena –barregarri eritzi zion bere buruari Mentxuk, lagunaren deitura eta

guzti esanda–. Apuntatu duk? Non idatzi ere ez daukak! –algara egin zuen–. Zelako txibatoa!

– Mentxu, mesedez... –lotsagorritzeak masailetan islatutako ondorioak disimulatzearren aulkira itzuli zen Joselu, eta Mentxuk ere gauza bera egin zuen oraindik estreinatu gabe zeukan dangada aurrekoan baino antsia apalagoz ezpainetaratuta.

Lurrean zegoen argazki-kamera hartu zuen.

– Zoritxarrez klixeak izorratu zizkioat lehen traste honi; beharbada, neure erretratua ere gurako huen.

Ahoskera seriotasun aldera apur bat zuzenduta mintzatu zitzaion ostera.

– Neure itaunen txanda duk orain: norbaitek bazakik hor barruan sartzekoa hintzela?

– Ez, inork ez, nik uste...

– Eta zer dela eta sortu zaik horretarako asmoa? Norbaitek eskatuta?

– Ez, zurrumurruak zirela esan zidaten eskolako lagun batzuek.

Argazki-kameraren estalkia irekitzeko kisketari eragiten zion Mentxuk behin eta birritan, eta sortutako hots metalikoak modu akonpasatuan

entzun ziren. Motelago Joseluren lehen erantzunarekin eta azkarrago bigarrenarekin.

– Badakik zer den hau? –esku arteko tramankuluari begiratu zion–. Gezurrak detektatzeko amerikarrek asmatutako tramankulu berri bat. Nik fidatu gura nikek hitaz, baina makinak ziok gezurretan ari haizela –tramankuluaz zarata egiteari utzi zion, ondoko isilunea areagotu guran; hamar arte kontatu bitarteko isilunea ematen zuen, arerioak lurrera bota ondoren KOa lortu ez lortu epaileak atzerantz egiten duen kontaketaren itxurakoa–. Hara, hire urtemugarako argazkikamera oparitzea otu zitzaidaan, halakorik ez huela uste nian, baina baten batek lapurtu egin zidak ideia.

Bekokia lurrerantz uzkurtuta lotu zitzaion Joselu hizketari.

– Ez dakit nor den. Gimnasiora etorri zitzaidan eta hitzordua ipini zidan. Aitaren eta batez ere amaren onerako zela esan zidan. Polizia zela uste dut...

– Eta nola dakik polizia zela? Hi ere aita bezala hasi haiz poliziak alde guztietan ikusten

–eskua paparreko botoi artetik sartu zuen–. Segi egik.

– Argazki batzuk erakutsi zizkidan, aita eta zu elkarrekin... –ezinezko berba egokiaren bila dudatu zen une batez– ohean... eta esan zidan aita zenbait kontu ilunetan nahasia zela... aita garbi gelditzea gura banuen lagundu beharko niola, hona etorri eta argazki batzuk atera... hori da dena.

– Baita hik sinistu ere. Ea, Joselu, hik uste duk poliziek ez daukatela lehen ikusi duanaren berri? Egia esan, ez diat uste argazkirik dutenik, baina horrek bost axola. Gura balute, honez gero filma ere eginda lukete. Hor atzeko koitadu guztiak ostatuko bezero bezala zagozak erregistratuta, eta legez bezero guztien datuak agintariei pasatzea ezinbestekoa duk. Hiltzen direnean ere hemengo helbidea izaten ditek hil-agiriek. Zer uste duk espero zutela aurkitzea?

– Datu berriren bat, nik zer dakit bada –lurrerantz makurtu zuen lepoa eta mutu iraun zuen, ailegatu ez ziren Mentxuren berben esperoan–. Zer gehiago esatea gura duzu? Aitaren alde egin besterik ez nuen gura.

Disko entzungailua zegoen tokiraino hurreratua zen Mentxu azken berbaldia aditu artean, eta kartoizko zorroak begiz barik atzazalez ikuskatzeari ekin zion. Bizkarra emanda hasi zen berbetan, ausaz aukeratutako disko bat abian ipintzen zuen bizkitartean.

– Asko maiteko duk aita, sinisten diat baina hik ere sinis egidak, nik ez diat gutxiago maite. Imajinatzen diat zein erretratu erakutsi dizkiaten, eta heuk ere berorietatik ondoriozta dezakek zenbat maite dudan. Istorio zaharrak dituk... Ez haut aspertu gura.

– Abisatuko dizut aspertzen naizenean.

– Hire aita eta biok gerra garaian batailoi berean ibili gintuan, komunisten batailoi batean. Ez huen gozoa izan, denak kontra genitian, Francorenak eta baita nazionalistak ere, anarkistak, sozialistak... denak. Gerraren amaia desastre erabatekoa izan huen. Nik lortu nian anonimatoan pasatzea. Hire aitak ez, eta justu-justu salbatu huen fusilamendutik. Kartzelako urte gogorrak jasan behar izan zitian berak, eta egoera larria neuk. Jakingo duk familia Negurikoa dudala, baina errepublikarrekin ibiltzen hasi nintzenetik

ez zitean nirekin ezer jakin gura. Azpijoko zikinetara kondenatuta nengoan beraz. Nik ez nian batailoi hartako beste inoren berririk, duela egun gutxi beste bat ere bizirik zela deskubritu nuen arte... Beno, haria joan egiten zaidak. Hori duk istorio triste baina polit horren zatirik inportanteena, osterantzekoa akzidentala izan duk. Ez dik merezi gehiago kontatzeak.

– Ez dizkidazu detaile asko kontatu, baina alderdi polit hori ez dut hain garbi ikusi.

– Erraza duk hiretzat hori esatea. Sentitu duk inoiz gosea, beste baten narruazalaren beharra, berorik beroenaren beharra?

– Bai, noski –mututu egin zen, Mentxuri espero ez zuen erantzuna eman ziolakoan, baina bestearen isiltasunak behartu zuen jarraitzera–. Egia esan, aitarena ez zait hainbeste ardura. Batez ere amak min ez hartzea gura dut. Bera ez da aita bezain indartsua.

– Horretan erratuta hago. Ez itzak nahastu apaltasuna eta ahulezia.

Ispilu batean bere burua imintzioka ikusi izan balu legez, jarkera hieratikora itzuli zen Mentxu.

– Tira, utz ditzadan amakeriak; baduk nahikoa ama bakarraz. Aitak aipatu zidak azkenean borrokaldi serio baterako hagoela. Zelan?

Mentxuren imintzioak galdera errepikatu behar ez izateko moduko eragina sortu zuen.

– Kristolakoa izango da. Entrenamentuen erritmoa gogortzen hasi behar dut.

– Areago?

– Hau ez da txantxetakoa izango, Mentxu. Froga honek alda dezake nire etorkizuna. Boxeoan, esan gura dut.

– Zein ordu dela kalkulatzen duk? –galderaren hutsala nabarmentzeko hormako erlojuaren orratzak irakurri zituen zeharrez–. Zortziak eta hamar. Hogei minutu barru hire aitarekin lotuta nagok. Etorri gura duk? Bazaukat bidean kontu pare bat hirekin komentatzeko.

Ezkutatu aurreko azken kolore aldaketak ageri zituen eguzkiak Abrako lurmuturrek mugatutako zeruertzean. Taberna bateko terrazan jesarrita zegoen Santos, Santurtziko portutik hurre, eta bere begiak ez zeuden itsasadarra errainu kalei-

doskopikoez janzten zuen arrastiriaren kontenplazioan. Inguruko hamar bat mahaietatik erdiak edo zeuden okupatuta.

Ezin sinistuaren keinukera ipinita sorbaldak jaso zituen aulkiaren bizkarraldetik, kalean zehar hurbiltzen ari zen motozikletan Mentxu eta Joselu ezagutu uste izan zituenean. Hamar metro eskasetara lurreratu zituen oinak Mentxuk, eta semea izan zen jausi batez espaloira eginda eskuaz agurtu zuen lehena, motorraren zarata amatatu aurretik. Agurra ere ez zirudien buru-jasoaldi batez Santosek diosala itzuli zion. Mentxuk motozikleta bere hartan zutik geldituko zela ziurtatu arte iraun zuen gazteak haren aldamenean, eta elkarren gerizan jo zuten Santos jesarrita zegoen lekura. Txarto disimulatutako harrotasuna islatzen zen Joseluren aurpegian, Mentxu baino altuagoa izan arren haren babesean legez ibilita.

– Ez nuen uste festa bat antolatua genuenik. Aurretik jakinez gero terraza girnaldaz apaintzeko gaztigatuko nieke tabernakoei –alai ahoskatu zuen Santosek, hain tarte laburrean jasotako ezusteko biak, motozikletarena eta Joselu ikus-

tearena, albait errazen irenstearren–. Non eskuratu duzu harribitxi hori, Mentxu?

– Ez nizun esan, baina pasa den martitzenean Fonsecarekin egon nintzen, eta maileguan utzi zidan egun batzuetarako. Zer, ez duzu gustukoa? –baina Mentxuk ezagutzen zuen erantzuna, gerraurrean *mosso*-ek erabiltzen zituzten motozikletak Santosek zelan begiratzen zituen gogoratuta.

– Zer kontatzen du Fonseca zaharrak? Zer tankera?

– Saltsetan, beti legez. Burges ttipiaren estatusa berreskuratu du eta han-hemen dabil negoziotan.

Zer hartuko zuten galdegin zien Santosek, eskuetaratu berri zuen ardao edalontziak exijituta. Mentxu kopaxka bat hartzeko joranez zegoen baina kafesnea eskatu zuen, eta Joseluk gaseosa basokada bat. Mentxuk adarra jo zion gazteari bere ustez halako edariak egiteko erabiltzen zituzten sustantzia kimikoek bera moduko boxeolari ia profesional baten giharretan zelako kaltea erakar zezaketen, farmazeutiko izatearen autoritatezko aipuez eta Mentxuk berak inoiz irakurri

gabeko ikerketa batzuen ondorio asmatuen kontura. Santosek edarien eskaera orroka egin zion tabernako atean paper batzuei begira zegoen kamareroari.

– Gaur ez huen entrenamendurik? Geure gauzez berba egiteko lotuak gintuan gu biok.

Semeak imintziorik ere egiteko abagunea izan aurretik hartu zuen parte Mentxuk.

– Lasai, Santos, Joselu nik ekarri dut hona. Beharko dugu bere laguntza, eta berak esan dit gertu dagoela. Ez, ala? –albo bietara egin zuen bere buruak, eta baita atzealdera ere, terrazako apaingarriak aztertzen ari balitz moduan–. Sekula dastatu gabea naiz taberna honetako kafea.

Eskatutakoa zerbitzatu arte esperoan egon zen Mentxu, motozikletan ibiltzearen sentsazioei buruz hizpidea emanez. Joseluk ere ia ume baten estiloan jardun zuen Portugaletetik harainoko bidaia laburrean bizitutakoak deskribitzen, abiadaren handia exajeratuz. Mentxuren esker ona jaso zuen kafe-kikara eta gaseosa-edalontzia mahairatu zizkien gizonak. Santosek ordaindu zuen. Edan barik usnatu zuen Mentxuk kafe ustezkoaren usaina.

– Entzun egizue biok. Hemendik hiru astera, kontrabando operazio bat deskubrituko dute poliziek. Aztarna guztiek guganantz zuzenduko dituzte susmoak, eta gu horretaz baliatuko gara deskubritutakoarekin ezelako zerikusirik ez daukan beste zerbait burutzeko. Baina horretarako hi beharko haugu, Joselu...

– Zeuk esan.

– Prest egotea nahikoa duk oraingoz. Jukutria hau zuzen irten ala ez, handia da jokoan daukaguna.

Gogoan hartzeko sententzia moduan ahoskatua zuen Mentxuk azken esaldia, eta hitz zizelkatuen hoztasun bereko isiltasuna jaso zuen solaskide biengandik. Joseluk trago luzeegia jo zuen antza, eta burbuiletako airea kontrako eztarrian trabeskatu zitzaion. Eztul-erauntsiak mahaiaren gaina eta inguruak zipriztindu zituen. Aitak parte hartzeko beharra sentitu zuen semeari babesa emateko edo:

– Ez dakit hau leku aproposa den honetaz berba egiteko.

– Egon daitekeen seguruena. Goazen malekoian paseatzera eta kontatuko dizuet.

Santos Mentxuren ezkerrean, eta Joselu aitarenean, ekin zioten osteratxoari, baina emakumea berbetan hasi eta gutxira tokiz aldatu zen gaztea azalpenak hobeto aditzearren. Normalean baino disimulu txikiagoko pausokera okerraz zihoan Santos.

– Hiru bat aste barru izango da eguna, baina ez dakit seguru, dena Joseluk jokatu behar duen boxeo borrokaren dataren arabera baitago. Jaialdi hori noiz izango den jakin bezain laster, egun horretarako izan beharko dugu prest. Ordurako, inguruko polizia guztiak gainean izango ditugu, eta hori izango da gure koartadarik onena: polizien aurrean egingo dugu inoizko operaziorik garbiena eta ez dute ezer edukiko gure kontra erabiltzeko. Hik, Joselu, borroka horietan parte hartu besterik ez duk egin behar. Hori izango duk hire laguntza, asalto pare bat, besterik ez.

Adarra jotzen ari ote zitzaion, zeukan gazteak begi artean.

–Beno, ez hori bakarrik –zuzendu zuen Mentxuk–, irabazi ere egin behar duk, galduz gero guztiontzako porrota izango duk.

– Eta nola lortuko dugu poliziak gure alde erabiltzea?

– Hasiak gara daborduko lan horretan. Gezurra dirudi, Santos, egun osoa pasatzen duzu polizien fantasmak ikusten, eta batzuetan zure aldamenean dagozenean igarri ere ez –atzerantz seinalatu zuen atzamarra paparrean ezkutatuta–. Ez ezazue biok batera begiratu. Atzetik eduki ditugu osteratxo osoan.

Paseoaren abiapuntua izandako terrazan ziren handik minutu gutxitara. Elkarren aurpegiak ikusteko moduko triangelua osatu zuten motozikleta utzitako tokitik gertu, nola agurtu ez dakien koadrila baten antzera.

– Uste duzue hirurok joan ahal izango dugula motoan? –aurrea hartu zuen harrigarriki, Joseluk–. Nik baietz esango nuke.

– Ez, joan zaitezte zuek –esan zuen Mentxuk–. Gogoratuko duzu zelan gidatzen den, Santos? Ni oinez joango naiz, Joseluk kontatuko dizu honanzkoan zer trakeskeria egin behar izan ditudan gona hauekin burdina horiek zamalkatzeko –motoaren giltzak eman zizkion–. Utz egidazue zerbait afaltzeko!

Ardura gutxiko itzuli erdia egin eta aldentzen hasi zen Mentxu gizonak giltzak hartu zizkion mementoan, baina handik metro batzuetara atzera begiratu eta ohartu zen aita-semeak ez zeudela berari begira. Umoretsu zihoazela ikusi zuen, eta harrotasunezko poza sentitu zuen, gizaseme bi haiek senar-semeak balitu moduan. Motorraren durunda entzun zuen. Jeloskor sentitu zen apur batez, mutikoak aitaren gerriari ordubete lehenago bereari baino estuago oratzen ziola begitandu zitzaionez.

Siesta garaiko lasaitasunak baretuta zeuden ostatuko korridore-eskailerak. Ohikoa zuen ordu laurdeneko kuluxkaren lorratzak uxatu ezinik jaitsi zen Mentxu sukaldera. Antonia bertan topatuko zuelako esperantza zeukan baina han ere ez zegoen inor, eta sargoriaren kontrako haize fresko apur bat sentitu zuen. Patioko atea erdi irekita zegoen. Ahots mututu batzuen oihartzuna aditu zuen patio aldetik eta lapikotik kafea zerbitzatu bitartean harako belarria egin zuen. Zurrumurruka legez berba egiten zuten kanpoan zeu-

denek eta kafea hartzearekin batera bere presentzia salatuko zuen zaratarik egin barik adi-adi egotearen jolasari eman zitzaion. Antoniarekin batera berriketan ari zen beste andreak Inaxi izan behar zuela uste izan zuen, murmurioka mintzatu arren haren ahotsak zuen tonu larria zela eta. Amaitu berriko kafearen kikara harraskan utzi zuenean koilaratxoa marmolean behera biribilkatu zen eta metal hotsak salatu zien kanpokoei bere presentzia.

«A, zu zara?» agurtu zuen Antoniak, Mentxuren gorputz erdia ate ertzean kulunkatuz ikusi zuenean. Patioak ez zituen hiruna metro besterik luze-zabalean, baina beti gerizpean egoten zen eta txoko ospel hura izugarri atsegina izaten zen ordukoa bezalako egun eguzkitsuetan.

– Sartzerik bai?

– Bestelakorik! Zure etxean zagoz! –erantzun zuen Inaxik, lehen berba berea izatea Antoniak eragotz ez zezan–. Eta gainera, egia da!

Algara egin zuten hirurek, eta zumekizko aulki bat eskuratuta lagunartera bildu zen Mentxu. Lagunarteko zaharrena zen Inaxi, berrogeita hamar urtetik gora aski aurrera behar zuen,

eta sarritxo biltzen zen bikote hura kontu-kontari aritzeko. Alargunduta ezagutu zuten herrira etorri zirenean, eta hiru semeak etxetik kanpo zituen jadanik behargin. Egun hartan ez zeuden kalaka hutsean, mahai moduan patioaren erdian ipinitako aulki batean joskintzako tresneria eta mota desberdineko oihalak baitzeuden. Andre biek jostun lanabesak zituzten eskuartean, artaziak, hari-jostorratzak eta titareak erpuruetan. Antoniak metroa ere bazuen bernen albo bietara kulunka.

– Zeinentzat ari zarete beharrean?

– Gutxi falta da herriko jaietarako, eta jantzi merkeen lehiaketarako ari gara. Iaz hirugarren saria irabazi genuen, eta aurten lehenaren bila goaz.

Mentxuri ez zitzaion burutik ere pasa laguntza eskaintzea, moja ikastetxearen garaitik erabat utziak baitzeuzkan horrelako langintzak. Laguntzaren beharrizanik ere ez zuten beste biek, eta kontenplazio hutsaren plazerean aritu zen bere burmuineko zoko nagienak erabat iratzarri arte. Gustua ematen zion besteen berriketa entzuteak. Aurreko urteko lehiaketaren epaia zeha-

ro injustua izan ei zen, lehen saria eskuratu zuena Marisol izan, Udaleko interbentorearen emaztea, eta gainera, soinekoa jantzita erakustaldia egin zuen neskatxa ere, Pepita izenekoa, udaltzainen kaboaren alaba.

– Aitortu beharra dago Pepitaren gorputza itzela dela, panpina pinpirina, eta horretan huts egin genuen Antoniak eta biok.

Orobat aurtengorako horretantxe ere zuten arazoa, eurek egindako soinekoa aurrekoan luzitu zuena aurten herritik kanpo izango baitzen uda osorako.

– Denbora gutxi falta da, eta premiazkoa dugu modelo egokia topatzea.

Halako batean isildu egin ziren, eta xuxurla gabeziak sortutako hutsunean bestelako soinuak entzun ziren, goiko solairuetako komun batekoa izan behar zuen ur-parrastada hodi metalikoetan behera, eta teilatupean habia egindako txoriek siesta garaiari zegokion bakea hautsiz barreiatutako txioak. Istant labur eta miresgarri haren ostean beste lagun bien estilo marmartian hasi zen Mentxu.

– Egun gutxi falta dira Joseluren urtemugarako, Antonia, eta oraindik ez dugu oparia erabaki.

– Ez nengoen ahaztuta, Mentxu, baina igoal du, berak badaki ez gagozela larregikerietarako. Ezagutzen dut, eta orain gizontxoarena egiten saiatzen da denbora guztian. Beraz, kexatu ere ez da egingo oparirik jasotzen ez badu.

– Kontatu dizu parte hartu behar duen borroka horrena? –Inaxik berbei eutsi ezinean ematen zuen, eta erantzunaren zain itxaron barik segitu zuen–. Hara oparia! Badakizue niri zer oparitzen didaten semeek? Azkenekoan, kapela bat. Zer uste dute horiek? Txoriburu baten antzera ibiliko naizela herrian? –jostorratzaz mina hartu zuen eskuturrean eta oinazezko espantua baliatu zuen Mentxuk aurreko gaiari eusteko.

– Sorpresa daukat. Badaukat opari eder askoa Joselurentzat.

– Zer da?

– Orain bigarren sorpresa: zuri ere ez dizut esango.

– Ez zenuen erokeriaren bat egingo, ezta?

– Ikusi eta gero esango didazu erokeria den ala ez.

Inaxiri igurtzalditxo batzuk eman zizkion lepoan agur legez, baina andreak masaia bat zela pentsatu zuen, eta erdi intzirika esan zion ahapetik, «zuk dituzu eskuak, Mentxu, zuk...».

Lehen eskailera-mailak binaka, baina hurrengoak banaka igo zituen Pedriñoren bulego atera heltzeko. Egun hartan ofizialki estreinatu zituen udako janzkiak, aurreko bederatzi hilabeteetan armairuan gordetako soineko berde mahukabakoa eroatea erabaki baitzuen arratsalde hartan. Besotik eskegitako poltsoa gordailu beltz txikia zen, eta eskaileran gora oroitu zen eskumako galtzerdian, trenean jesarrita zihoalarik, deskubritutako hamar zentimetroko karreraz. Eguneko uneetatik gogoz kontrakoena izan zen, lan gehiago Antoniarentzat, amorratu zen Sestaoko geltokira gerturatzen ari zirela jaiki zenean, bere burua madarikatuz.

Eri-koskorraz jo zuen kolpe pare bat atean eta erantzunik itxaron barik sartu zen bulegora. Pedriño irakurtzeko antiojo beheratuak jantzita zegoen idazmahai atzean, eta luma batez zirri-

borratzen ari zen zenbakiz betetako formulario erraldoi bat. Antiojoen gainetik baina burua jaso gabe agurtu zuen iritsi berria:

– Ongi etorria, Mentxu –jakako faltrikeran gorde zituen antiojo tolestuak eta bestearengana hurreratzearren zutitu zen–. Ez zara aurrekoan bezalako endredu batekin etorriko, ezta?

– Ez, hain justu. Abokatuarena ordaintzeko falta zen dirua ekartzera nator. Jaso zenuen bidalitako lehen zatia?

– Bai, bai. Hala ere, oraindik Asenjok ez dit diru guztia erreklamatu, eta edozertara ere, horretarako ez zenuen honaino etorri behar. Aurrekoan bezala egin zenezakeen bidalketa.

– Egia esateko, eskerrak eman nahi nizkizun aurrez aurre. Asteak pasa dira Santos libratu zutenetik eta kontzientzia txar apur bat neukan. Primeran portatu zara, eta mila esker, beraz –bostekoa eskaini zion aitorpenari solemnitatea erakusteko.

Jesartzeko erregutu zion Mentxuk. Portuan zegoen itsasontzi trafikoari buruzko iruzkinek eta atoiontzien negozioaren gorabeherek bete zituzten lagunarte hartako hurrengo minutuak.

Pedriño kexu zen, baina beti izaten zen horrelakoa, Mentxuk gogoratzen zuenez. Telefono dei bat erantzuteko jaiki behar izan zuen gizonak, eta itzulitakoan emakumeak jesarrita segitzen zuela ikusita, mesfidantzaz begiratu zion.

– Postura egingo nuke baduzula beste zerbait niri esateko.

– Jesarri apur batean.

– Ez, ederto nago horrela.

Mentxuk paretaren kontra zegoen irrati emisorea seinalatu zuen.

– Horko traste hori beste nonbait instalatzea zaila da?

– Ez oso. Antena toki egokian kokatzea eta emisorearekin lotzea duzu zailena. Osterantzekoa eroangarria da erabat. Buruan zer duzun jakin daiteke?

– Zu irrati horren bidez edozein itsasontzirekin komunika zaitezke, ezta?

– Bai. Baina oraindik ez duzu nire galdera erantzun.

Mentxu atzazalak miatzen aritu zen denbora tarte batean.

– Kontaidazu gezurren bat, besterik ez bada, nik sinisteko modukoa –tematu zen Bermejo.

– Jolas moduko zerbait antolatu nahi dut datorren hilabetean izango diren trainerila estropaden inguruan. Berba egin dut Nauticako batzuekin eta irratia duten bost belaontzi badira tartean. Esperimentu bat da. Aipatu nion Santosi, eta berak zuganako ideia eman zidan. Nire asmoa hasiera batean hemendik bertatik egitea zen, baina Santosek gomendatu zidan beharbada onena hara eroatea zela eta gure etxetik zuzentzea dena. Horrekin nahikoa?

– Ez zaizu batere txarto irten. Oraintxe bertan asmatu duzu?

– Pedriño, zin egiten dizut ez dudala okerrik egiteko asmorik. Bestela, ez nizuke eskatuko. Egun bakarrerako izango da. Santosek gau batean desmontatu eta hogeita lau ordutan hemen izango duzu ostera.

Santosek esandakoaz gogoratu zen, gizon hura berataz maiteminduta ote zegoen susmoarena, eta halakorik ez zela bazekien arren bere buruaren eragingarri bezala benetakotzat jo

zuen hipotesia. Jaiki eta gizonaren beso iletsuan atximurkada maitekorra egin zion.

– Ezin didazu ukatu. Gainera, hemen egon naizenetan inoiz ez zaitut aparailu hori erabiltzen ikusi.

Trikimailua oker irten zitzaiola pentsatu zuen Mentxuk gizonaren erreakzioa ikusita. Besoen gurutzea hautsita amorraziozkoa izan gura lukeen hasperena egin zuen, eta idazmahaiaren atzera jesarri zen. Mentxu desgustura sentitu zen gelaren erdian zutik eta bakarrik. Itxarotea deliberatu zuen.

– Nik ez dizut irratia hemendik eroateko baimenik emango, ezin dizut inola ere eman. Baina Santosek, beste askok legez, maiz izaten ditu bulegoko giltzak mila kontuetarako. Egunen batean irratia desagertuko balitz, eta hurrengorako berriz agertu, ezin izango nioke inportantzia handirik eman. Nahikoa garbi gelditu da nire ezezkoa?

Mentxuk bihurrikeriazko masail okertzeren bat bilatu zuen bestearen aurpegian, edo ulergarritasunezko keinu atseginen bat sikieran, baina

garbi zegoen eskatutako mesedea ez zitzaiola batere gustatu.

«Bai, oso garbi», erantzun zuen egoerara egokitu ezinezko tonukeraz eta hasieran legez bostekoa eskaintzeko ideia txatxua besterik ez zitzaion bururatu.

– Bisita berean eskua birritan tinkatzea ez da larregi? Hurrengoan abisatu eta gorbata jantzita etorriko naiz.

Alferrik luzatutako eskua jaso zuen, dudati hasieran baina kolpetik ondoren, eta poltsotik ateratako kartazal erdi ireki bat utzi zuen idazmahaiaren gainean, askoz ere lehenago egin ez izanaz damututa. Ertzetatik billete batzuen kolorea antzematen zen.

–5–

Ospakizun otorduaren osteko zurrunaldi berbatsuan zeuden laurak, normalean baino kalaka animatuagoan, eta bizkarra aulkiko adarretan etzanda edukitzearen patxadak kontrastea egiten zuen berriketaren bizitasun jostalariarekin. Joselu zen bere urtemuga festako errege, besteek horretarako bide emanda, eta jokatzekoa zen boxeo borroka beste hizpiderik ez zeukan.

– Gehienetan pentsatzen dut zirti-zarta menderatuko ditudala denak, ezin dudala aukera hau alferrik galtzen utzi, gorputzaren sasoia inportantea da, baina buruaren indarra ere bai, eta hori primeran daukat –eskumako lokian ipini zituen atzamar bi, beste norbaitek emandako ikasgaia oso barneratuta zeukala adieraztearren–. Beste batzuetan... adorea galduko banu legez geratzen naiz, burutapen ezezkorretan jausten naiz, eta ia dardarka uzten nau izerdi hotz moduko zerbaitek.

Puru bana zuten eskuetan Santosek eta Mentxuk, baina honek keaz lar betetako tximiniaren

antza zuen. Irribarretsu zegoen Antonia ere, eta Joselu jabetuta zegoen besteongan nabari zen harrotasun itxurako begirada berak eragindakoa zela.

– Zelan izango duk, kanporaketa moduan edo borroka bakarrean?

– Kanporaketa moduan. Hiru *ring* ipiniko dituzte eta hamasei boxeolari ariko gara asalto binako borrokak eginez. Gure artean irabazle irtengo duenak Mike Zarandonaren kontra borrokatuko du. Horri irabaztea ezinezkoa da, Bizkaiko txapelduna da hiru urtetan segidan eta iaz ia irabazi egin zion Espainiako txapeldunari. Zarandonaren kontra galtzea ere ohorea izango da gutako edonorentzat.

– Beraz, finalera iristen denak hamar asalto izango ditu jokatuta. Muturra behar du Zarandona horrek berak fresko-fresko zuen arteko irabazlearen kontra borrokatzeko!

Tartarekin batera xanpain botila atera zutenean, Joseluk ez zuen bakoitzetik apur bat besterik hartu. Larregizkoa iruditu zitzaien gurasoei boxeoa zela eta dietarekin hain estu jokatzea. Mentxu atera zen gaztearen defentsan.

– Gutxitan izango du aste bi barrukoa legezko egun inportanterik, eta urtemugak urtero izaten dituk. Bilboko Arenalean jokatuko da eta hori ez duk txantxetakoa. Enpresari eta talentu harrapari guztiak han izango dituk beharbada.

Joseluk komunerako asmoa agertu zuenean boxeoari buruzko noizgurako eta nongurako elkarrizketa eten egin zen aldiune batez, eta Mentxuk aukera baliatu zuen sukaldean ezkutatua zegoen fardel bat jangelara ekartzeko. Gela zabalean eurak bakarrik zeuden, ostatuko bezeroei iragarria baitzieten hiruretarako amaitu egingo zela bazkarirako epea, eta ordu horretatik bostetan botika zabaldu bitartekoa hartu zuten ospakizun pribaturako. Santosek lantokian jai hartu zuen arratsaldean. Antoniaren alboan makurtu zen Mentxu gaztea noiz bueltatuko itxaroten, eta Santos ere gogo txarrez jaiki eta gerturatu zen zeremoniaren zati hura bete beharra batere gogokoa ez zuela nabarmen utziz.

Joselu praketako kremailera ixten azaldu zenean zorionak kantari hasi zen Mentxu, eta besteek bat egin zuten apalagotik, desafinatzeko beldurrez. Txibista deigarri batez hornitutako

fardela eman zion eta «eskerrik asko» lotsatu batekin batera jaso zuen.

– Eskerrak eman aurretik zabaldu egik –barre egin zion Mentxuk mutiko lotsagorrituari.

Disimuluan huts egindako gaitz-ulertuaren imintzioa zirriborratu zitzaion Joseluri opariaren zertzeladak ikusi zituenean: belarriak estaltzeko xaflak ere bazituen kapela biribil bat eta bufanda luze bat, biak marroi kolorekoak. Omendua ia harri bihurtuta zegoenez, Mentxu zutitu eta janzki biak behar legez soineratzen lagundu zion. Jangelako arasan zegoen ispilu handiaren aurrean pararazi zuen zeukan piura mirets zezan. Barregarri zegoen oso, eta Joseluren ezinegona gehiago ez luzatzearren Mentxuk «eta orain, benetako oparia» orro egin zuen. Joseluren musua piztu egin zen, trikimailuaren nondik norakoaz jabetuta.

Korridorean zehar eroan zituen Mentxuk beste hirurak atzealdeko leiho batera eta, gortinak tupustean zabalduta, burua bertora hurbil zezan gonbidatzearren eskaini zion besoa. Espaloian, Fonsecak oparitutako motozikleta zegoen,

fardelarenaren antzeko txibista batez edertuta manillarra.

– Galdezka ibili nauk, baina oraindik ez zidatek erantzun adinagatik erabil dezakean ala ez. Halan ere, gidatzen ikasteko balioko dik.

– Txapeldun batek ibilgailu elegantea beharko dik bere garaipenak ospatzeko! –bizkarretik heldu zion Santosek–. Besterik ez bada, neuk eroango haut herrian zehar txapeldun loriak jantzita.

– Erdu behera! –algara egin zion Joseluk aitari–. Zelan martxan ipini behintzat erakutsi behar didazu.

Andre biak bakarrik gelditu zirenean, jangelako mahaia jaso eta txukuntzen lagundu zion Mentxuk.

– Barkatu tematzea, baina zelan ordaindu duzu hori?

– Ogerleko bakar bat ere ez zait kostatu. Hori bai sorpresa! Oparitu egin zidaten, eta honezkero laugarren eskukoa izango duzu motozikleta hori.

Besarkada bati hasiera eman zion Antoniak eta Mentxuk gogotik eutsi zion. Ama emozioz negarrez zegoen ia.

– Oso zoriontsua naiz. Zorte itzela daukagu.

– Gaur libreago ibiliko zara, Antonia. Ez duzu erosketatxo batzuk egitera joan gura, edo ileapaindegira?

– Ez, postre berezia gertatu gura dut gauerako ostatuko bezeroentzat. Pareta hauen artean ibiltzen naiz ni gustuen.

Ordu erdia baino ez zeramala lanean agertu zitzaion Santos.

– Bidali diot kablegrama Fonsecari, nire urtemuga uztailaren 2an dela esanez. Espero dut zentsoreak ez direla hasiko jaiotegunaren benetako dataren bila. Ez zait hoberik bururatu.

– Ederto dago. Harrapatzen badute ere. Nik oraindik badauzkat gauza bi lotzeko, baina oraindik badugu astia. Zelan dabil Joselu? Uste duzu bere zatia beteko duela?

Ezkontza-eraztunari jiraka hasi zen Santos eta begirada ere jardun errepikakor hartara zeu-

kan. Ardurabako purrustada ahoskatu zuen erantzun legez.

– Zer duzu? –itaundu zuen Mentxuk.

Buruari eragin zion Santosek. Mentxuk ez zuen etsi.

– Berba egizu klaru.

– Ez da garrantzizkoa –astiro hasi zen Santos, berben abiadura azkar areagotu zitzaion arren–. Sorpresa handia hartu nuen Joselu negozioan sartu zenuela konturatu nintzenean. Iruditzen zait lar handia datorkiola hau guztia. Mukitsu bat da oraindik, hainbeste boxeo eta istoriorekin burua txistuka dabilkio, eta ez dut uste operazio honetako lana egiteko prestatuta dagoenik.

Arnasa hartu barik iraun zuen Mentxuren erantzunaren zain, baina ez zen horrelakorik gertatu. Emakumeak erne segitzen zuen, Santosek zer esan gehiago izango ote zuen. Gizona, aldiz, isilik zegoen sudurraren alboetan atzamarka.

– Ez nago konforme –probokatu zion Mentxuk.

– Aurretik neurekin kontsultatzea zenuen behintzat.

– Banekien ez zinela aldeko izango.

Inpotentziaz zabaldu zituen besoak Santosek. Mostradore atzeko diru-kaxarekin jolasten hasi zen Mentxu, txanponak eta billeteak biltzen zituen kutxatxoa irekitzen zuen palankari behin eta birritan eraginez.

– Gestio bat egin behar duzu, Santos. Bilboko saioan Joselu finalera ailegatzea lortu behar duzu, eta horretarako gimnasioko entrenatzailearekin berba egin. Joseluk esan zidan *Zurrutas* deitzen dioten morroia dela. Sos batzuen truke ez dizu arazorik ipiniko. Susmo aski ziurra daukat hori edo bere inguruko norbait txakurren aginduetara ibili dela Joselu gure kontra nahastu guran. Beraz, amore emango dute guri lakioa estutzen digutelakoan.

– Beharrezkoa dela uste duzu?

– Bai.

Artega ari zen gimnasioan borroka aurreko jausitxo ohi baino dantzariagoak oin-punta ezkerrekotik eskumakora tartekatuz. Astebete soilez erabilitako praka zuri-gorri berrietako gerrikoa

tinkatu zuen eskunarru traketsez, behar zuen tokian ote zegoen egiaztatzeko. Burko akoltxatuaren zirrikituetatik ezpainak gailentzen zitzaizkion nabarmen, eta hortz-haginetako babesgailua zerabilen kanpora eta barrura. Besteetan baino jende gutxiago zegoela zirudien, jai eguna zen eta. Txilin baten hots purrustatuak *sparring*-arengana hurbildu eta haren inguruan estreinako ukabil-ziztadak saiatzen hasteko unea adierazi zuen. Lurretik metro t'erdi goratua zegoen *ring*-aren zoru ertzean zegoen *Zurrutas,* beso biak beheko sokatik eskegita. Garrasi egiten zuen etengabe, halako kolpea azkarrago jo beharraz eta, batez ere, guardia gilbor gainean ostera ederto estutzearen garrantziaz.

Lokalaren atzealdeko zutabe baten ondoko aulkian zen Santos, elegante jantzita zegoela erizteko moduko traje eta gorbata grisak jantzita. Tarteka alkondararen lepoan barneratu zituen atzamarrak, larregi estutzen ote zion, eta esku artean, semearekin batera sartutakoan soinean eroandako gabardina zeukan erantzita. Albait urrutienetik ari zen Joseluren borroka-saioa ikuskatzen. Enpresari ahaltsua ematen zuen.

Luze iraun zuen entrenamenduak, ordubetetik gora. Etengabe moztu zuen prestatzaileak, behin eta birritan errepikarazi zien mugimendu bat edo beste. Hura amaitu eta gero, soka-saltoan jardun zuen Joseluk hamar minutuz, eta ondotik beste hainbeste kolpe-bolarekin. Toalla sorbalda gainetik biribilkatu zionean zizpuru egin zuen Joseluk, egun hartakoak burura egin zuelako seinale ezaguna eskertuz. Beste aldiunea egin zuten biek, nagusia jesarrita berbetan eta mutikoa zutunik mugitzeari utzi barik, aldageletarako bidea hartu arte. Abagune horretaz baliatu zen Santos entrenatzailearengana hurbiltzeko.

Aurkezpen itxurako mugimenduak egin zituen aurrena, besteari eskua eskaintzearekin batera. Bisitaren nondik norakoa behar bezala ulertu bitarteko keinukera nahasiaz aritu zen entrenatzailea tarte batez, harik eta burua zurezko pareta mehe batzuez bereizitako bulego antzeko baterako bidea adierazi zuen arte. Barruan gabardina aulkiaren adarretan kokatu zuen Santosek. Besteak hankak mahai gainean ipini zituen idazmahaiaren bestaldean jesarri ostean, baina

segundo bat baizik ez zuen horrela iraun, damututa legez hankak lurrera itzuli eta beso biak ohol gainean ipinita aurrerantz eroan baitzuen gorputza.

Bestearen jarkerari ispilu legezkoa egin zion Santosek eta elkarren aurpegiak zentimetro gutxitara gelditu ziren. Berba mantsoetan ari zela zirudien eta eskuek airean egiten zuten norabide jiratsua ere abiadura bertsukoa zen. Santosen begirada ez gora ez behera finkatuta zegoen, esaten ari zenaren garrantzi eta seriotasuna indartu guran. Paper bat eta kartazal bat ezarri zituen mahai gainean ezker-eskuma, eta bien artean aukeratzeko beharra adierazi zion Santosen esku-ipinkerak. Edukiaren bolumen larregizkoaz itxuraldatuta zegoen kartazala eta horrexen aldeko hautua egin zuen morroiak. Hortik aurrera ez zen berbaldia asko luzatu. Entrenatzaileak kaxoitik kartel bildua atera zuen jaiki eta berehala, eta goitik behera zabalduta erakutsi zion Santosi. Belaunaz kartelaren beheko muturrari eutsi zion mahai ertzaren kontra eta libratu berriko eskuaz ahots goratuak errezitatutako testuari segitu zion. Bilbon jokatuko zen borroka-saioaren ira-

garki-kartela zen, eta akuarelaz egindako irudi batek hartzen zuen ia azaleraren erdia. Alderantzizko piramide baten forma osatzen zuten irudiaren azpiko hizkiek, nortzuk parte hartuko zuten iragartzen zutenak.

Bulegoa zirudien gelaxkatik irten zirelarik Joselu zuten kanpoan zain, eta busti berriko ilajeak berezko kizkurren kontrako lisatu hezeak barreiatzen zituen haren bekokian. Kezkarako arrazoirik ez zegoela eta prestatzailea morroi jatorra zela esanez moduko zaflada jo zion Santosek semeari lepaostean, eta ahots ozenez esan ere arrazoia zeukala entrenamenduan guardia gehiago jagon behar zuela esan zionean, erasoa baino inportanteagoa zela defentsa. Defentsa, eta mugimendu guztien dotoretasuna. Joseluri ezinezkoa zitzaion harrotasunezko irribarrea estaltzea, aitak masailean eragindako esku-zarata umiliagarriaren azpitik eta *Zurrutas*-ek distantziatik egindako begiradaren gainetik.

Euskalduna pilotalekuaren sarreran lotu ziren, handik ehun metrora zegoen jatetxean afaltze-

koak ziren eta. Luigirekin batera heldu zen Mentxu, eta ordurako Rafa zain zuten, partidak amaituta irteten ari zen jendetzaren artean geldirik eta lepoa tentetuta. Aurkezpenen ostean espaloian abiatzeko gomita egin zuen Rafak eskuaz, besteei bidea erakusteko legez.

Etiketaz jantzita zihoazen hirurak, txalekodun trajeaz gizaseme biak eta sorbaldak agerian uzten zituen tiretako soineko urdinaz Mentxu. Eskuetan zituzten beroki arinak. Paseoko abiadura mantsoan zihoazen eta harpa jo zion albotik Mentxuk Rafari.

– Ez zinen pilota ikusten izango horrela jantzita! Piura barregarri samarra zenuen hortxe, atartean, hain dotore!

– Hitzordua ipini eta gero damutu zitzaidan, ez pentsa –atzamar potoloak txalekoko faltrikeretan gakotuta zeuzkan Luigiri begiratu zion, eta haren irrirudiaz ohartu zen–. Ikusten dut Mentxu bezain trufaria zarela zeu ere. Ez duzue bikote makala osatzen.

Rafak telefonoz erreserbatutako mahaian jesarri zirelarik ez zuten denbora asko behar izan jan-edanak erabakitzeko. Bakailaoa pil-pil erara

jaki, eta aurretik indabak. Edateko, txakolina hitzartu zuten aho batez, Luigiren gomendioari ameto emanda.

– Zure aita ezagutzeko zortea izan nuen –Luigi izan zen aurrerantzeko solasgaiak hasieratu zituena, eta Rafari zuzendu zitzaion, ukondoak mahaitik jaso barik–, hil baino bizpahiru urte lehenago, laurogei urtetik gora zituenean.

– Zergatik zortea? –Luigik esandakoa diplomaziaren hutsala ote zen frogatu gura izan zuen.

– Ez zuen sekula biktimarena egiten, horretarako arrazoiak izan arren. Gauza jakina zen gerraostean organista kargua utzarazi ziotela, bai udalak eta baita elizak ere. Duintasun itzela gorde zuen beti, edozertara ere.

– Eskerrik asko, ez dut uste asko izango direnik zuk bezala pentsatzen dutenak.

Erratuta zegoela esan zion Luigik eta froga gisa hainbat jenderi entzundako komentarioak errepikatu zizkion. Mentxuk bizkarra apur bat atzerago eroanda jarraitzen zuen bien elkarrizketa. Aurrez horri buruzko zalantzarik izan ez bazuen ere, pozarren berresten zuen Luigi eta Rafaren artean aditzen zuen konfiantza giroa.

Estatu Batuek Pazifikoan eztandarazi berri zuten hidrogenozko bonbari buruz jardun zuten segidan, atomikoaren bost halako izan ei zena, eta hortik nazioarteko beste gai batzuetara jo zuten. Batez ere, Alemaniaren banaketa eta aliatuen jarkerari buruz aritu ziren. Ahapetik eta burua plateraren gainera aurreratuta galdetu zion Luigik:

– Uste duzu Estatu Batuek Espainiako erregimena sostengatuko dutela?

– Ezinezkoa iruditzen zait. Ez dut ulertzen zelan posible izango litzatekeen Hitler eta Mussoliniren kontra jardundakoek orain Franco laguntzea.

Irri karkaila maltzurra egin zuen Luigik.

– Baikorretakoa zara, beraz. Ni ez nago ados. Orain borroka ez da demokrazia eta diktaduraren artean, komunismoaren kontra baizik. Eta horretan bat datoz hangoak eta hemengoak. Dena dela, lasai egon, gehienek zuk bezala pentsatzen dute... –burlaizez gehitu zion–: gehiengoa zarete.

Mentxu ederto zegoen patxadan entzuten, baina tarteka Rafaren begirada galdegileek gehi-

xeago parte hartzera behartu zuten. Txakolinaren efektuak ere lagundu zion berritsuago agertzen. Postretan hautsi zen zer janari buruzko adostasuna, eta gazta, etxeko kopa berezia eta tarta izan ziren barietatearen adierazleak. Kamareroa zerbitzen hurbildutakoan, xanpaina eskatu zuen Luigik besteen eritzia kontsultatu ere egin barik.

Antilletan ikasi ei zuen zeremonia magiko bateko berbak tonu irmoan ahoskatuz punpatu zuen xanpainaren kortxoa. Rafa apur bat lotsatuta zegoen bere aulkiaren bizkarraldea igurtzi urduriez bilatzen. Hiru kopetan zerbitzatu eta topa egiteko gonbite modura jaso zuen Luigik berea. Besteek bat egin arte itxaron, eta aldarri batean esan zuen:

– Patataren alde! –albo bietara soraio begiratu zuen besteen erreakzioaren zain.

Mentxuk zetorkion algara ito zuen eta seriotasun fermutuaz hurreratu zuen bere kopa Luigirenera. Keinua errepikatu zuen Rafak. Edan eta gero Mentxuk ezin izan zion luzaro barregurari eutsi eta eskuz estali zuen ahoa. Luigik ere algara egin zuen. Aurreko hilabetean kendu berria

zuten patata arrazionamendu arauetatik, azken urteetako ekoizpen ugariari esker hornidura ziurtatuta zegoela erabaki baitzuten agintariek.

– Begira, Luis –lagunarte hartan ez zitzaion Luigi izena ateratzen–, Rafa gu baino askoz ere ganoratsuagoa duzu, eta seguru aski ez zaio gizalegezkoa irudituko arrazionamenduaren kontura txantxetan ibiltzea. Areago, gu hementxe bapo afalduta egonda.

Mentxuren berbei indarra kendu guran, Rafak birritan jaso zuen kopa eta sermoilari baten doinuaz errepikatu zuen «patataren alde, patataren alde» esaldia. Luigiren bizkarreko geldoa jaso zuen, eta mahaiarte ez urrun batean zegoen kamareroari deitu zion. Eskatutako kafe eta enparauen esperoan Athleticari buruzko berbabidea zabaldu zuen Luigik, kirolaren txanda zela erabakita. Puru bana isiotu zituzten Luigik eta Rafak.

– Habanoak direla diote, baina nik uste dut Kanarietatik edo ekartzen dituztela. Neuk Kuban erretakoek behintzat bestelako zaporea zuten!

Puruari oratzearren erabilitako eskua burua-rekin batera mugitzeari utzi zion, jantokian berton baina urrutiko bazter batean begiak finkatu-

ta. Mentxuk eta Rafak ere alde hartara begiratu zuten, eta Luigik hasi berriak zituen imintzioei erantzuten zien emakume bat ikusi zuten urrutiko mahai batetik jaikitzen. Luigik egoteko adierazi zion urrutitik.

– Barkatuko didazue, lagunok, baina ezagun bat agurtzera joan beharra daukat.

Berna gaineko serbilleta kizkurtua mahai gainean laga eta ahurraz prakak astinduz abiatu zen. Urruntzen ari zen Luigirenganantz kliskatu zion begia Mentxuk Rafari.

– Zer deritzozu?

– Ez dakit. Urrutiegi dago zelakoa den ikusi ahal izateko.

– Luisi buruz ari naiz...

– Beharbada exotikoegia niretzat. Komentuetako bizimodura ohitzen ari naizelako izango da.

– Oso tipo jatorra da. Oasi baten modukoa izaten da niretzat.

– Ez egidazu txarto ulertu, Mentxu. Zergatik uste duzu beti gurago izan dudala Bilbo Portugalete baino? –emakumearen irri zabala ikusi zuenean berak ere begirada alaiagotu zuen–. Ez dut uste ezer barregarririk esan dudanik, ezta?

– Nire izena esan duzunean izan da... Mentxu. Zu izan zinen lehenengo aldiz hala esan zidana. Eta orain denek esaten didate horrela, baita aspaldiagoko ezagunek ere.

Luigi zegoen bazterrerantz begiratu zuen. Berbeta alaian segitzen zuen, eta eztarrian karranka txikerra egin zuen solasaren jopuntua errazago aldatze aldera.

– Rafa, zelan aipatu nizun boxeo-borrokarena?, datorren astean izango da.

– Kartelak ikusi nituenean pentsatu nuen horixe izan behar zuela.

Serbilletan atzazalez marrazten hasi zen Mentxu.

– Artega ikusten zaitut, Mentxu. Ez baduzu gura, ez didazu besterik azaldu behar, baina zure arazoak nireak legez sentitzen ditut.

Luigi hurbiltzen ari zela gaztigatu zion Rafak buruaz. Mahai gainetik eskua ferekatu zion Mentxuk. Bizkarretik zetorrenari aurre eginda, ez zegoela bakarrik ohartu ziren.

– Lagunok, Catalina Bedró duzue hau, gustukoen dudan artista –Rafa eta Mentxu zutitu egin

ziren agurrerako–. Ardura zaizue terrazako kafera biltzen bazaigu?

Zer artista klase ote zen galdetzeko irrika erreprimitu zuen Mentxuk. Zutitu eta aurkeztu berriari musu bi emateko aurrea hartu zuen.

Bizkaiko Zubiaren bide paraleloa egiten zuen motoran zeharkatu zuen Joseluk errioa, eta ontziak txopa estalia zuela esker, sargori osteko zaparrada trinkoak ez zuen zeharo blaitu. Berean erdia egina zuenean hasi zuen transbordadoreak berea. Hortik aurrerakoa hogei metro ezkerretara zihoan gurdi eskegiaren beheko plataforman zegoen automobilari erreparaka pasatu zuen, haren gurpil-oskola biribil distiratiei mira eginda. Euri tantek hots musikari batez kolpatzen zuten estalkiaren sabaia, eta Areetako kaia zapaldu zuelarik ateria zuen. Bustibako lur zati bakanetakoan itxaron zuen, berarekin batera lehorreratutako bidaiariek bakoitzak bere bidea hartu arte. Ekaitzak harrotutako hauts bustiaren usaina hedatua zen ingurumarietan.

Algorta aldera hartu zuen itsas bazterretik. Ilundu berriko arrats hezeak ozenago egiten zituen bere oin-hotsak putzuerdi epel bihurtutako espaloian. Urruneko tximistaren oihartzunak begiak kliskarazi zizkion une batez. Lau pauso eman orduko aditu zuen haren trumoi hotsa. Bere baitako zerbaitek abiadura areagotzera behartu zuen eta ardurabako izan zitzaizkion eskuma aldean piztu berri ziren leihoetako argiak. Martxa militar baten antzeko zerbait jotzen hasi zen txistuka, eta bere oinek erritmo erregularra jadetsi zuten haren konpasean. Kale kantoi bateko errotulua irakurtzen gelditu eta, bertan adierazitakoa aurrez bilatutakoarekin bat irudituta, oldartsuago ekin zion ibilbideari. Hurrengo etxadian zegoen garaje itxurako zerbaiten buruz buru gelditu egin zen erabat. Maratilari eragin eta, zabalik zegoela ohartu zenean, barrura egiten zuen.

– Hi haiz, Joselu? Segi aurrera –entzun zuen.

Aurreko hitzorduetatik ezaguna zuen pertsona bistaratu zitzaion hondoko erditzaletik. Gizonak adiskidetasunezko blaustada jo zion Joseluri bizkarrean, ate ondoko paretako etengailuari sa-

katuta pabilioia gehixeago argiztatu aurretik. Inguruan zegoenak aspaldian erabili gabeko laborategi baten antza zeukan, ikaragarri bihurritutako errepide baten handik-honantzaren moldean kiribilkatzen ziren beirazko hodi fin mordoaz osatua. Oraindik isurki apur batez hornituak ziren arragoak zeuden hoditeria guztiaren oinean. Destilategi abandonatua zirudien lokalak, eta gizonak esku biez oratutako zurezko kaxa parea jausten utzi zuen Joseluren mutur aurrean. Kaxa haietan jesartzeko gonbitea egin zion.

Paper batzuk zabaldu zituen Joseluren begi aurrean eta, pabilioian zegoen argi ahularen indargarri, linterna batez lerrotik lerrora segitu zion irakurraldiari. «Carmen Diaz» irakurtzean atzera eta aurrera egin zuen birritan linternaren izpimarra batez. Berba isilez mintzo zen, tartean algararen bat egiten bazuen ere, Mentxuren izena errepikatzen zuen aldiro. Joseluk ere barrez erantzuten zion, baina esangura garbirik gabekoa zen berea. Paperen irakurtzea amaitu zuenean, laborategi itxurakoa zegoen aldera jo zuen, eta kartoizko kutxa zaharkitu batetik antzagatik odola izan behar zuena biltzen zuten

poltsa batzuk atera zituen. Poltsikotik egunkari zati arre batzuk ateraz haren letraz letrakoari ekin zion. «Argitu gabeko beste heriotza bat Basurtoko ospitalean».

– Baina nik bazakiat zein den arrazoia –buruz gora igo zuen eskuan zeukan poltsa–. Odol ustela duk hauxe. Ba dakik nork jasotzen dituen negozio honen irabaziak?

Botikako mahaian zabaldu zuen egunkaria. Bezeroei atea ireki aurretik hamar bat minutu bazituen oraindik, eta irratian bolumen baxuan entzuten ari zen serialaren amaiak puntuan adieraziko zion kaleko ateari sarraila noiz libratu. Betaurrekoak janzteari amore ez ematearren behar baino urrutiagotik irakurtzen ari zen mostradoreko kristala ia bere osoan hartzen zuen tabloidea. Irribarre malmutzez begiratzen zien Mentxuk tituluei, Espainiaz kanpoko mundua izugarri txarto zebilela ematen baitzuen. Sindikatuek kontra egin berri zioten Londresko gobernuari soldaten beherapena geraraztearren, eta Italiako agintariek ez bide zekiten herritarrek, inoiz dibortziatu

ahal izatearren, ezkontzen atzerrira joatearen iruzurra zelan konpondu. Hori gutxi balitz, Parisko modaren imitaziokoan munduan zehar barreiatzen ari ziren inolako eskubide saririk ordaindu barik.

Atzamar buruez egindako deia aditu zuen kristalak pertsianaz estalita zituen kaleko atean eta hormako erlojuari begiratu zion oraindik zabaltzeko ordua ez zela bere buruari baieztatzeko. Zanbuluka hurreratu zen ea nor zen ikusteko, eta beneziarrak alboratuta Eusebiaren aurpegi musugorri eta biribila ikusi zuen. Kisketari eragin eta besarkada batez estali zuen andrazkoaren barkamen eskea.

– Barruan ikusi zaitut erakusleihoko zirrikitutik eta horregatik ausartu naiz deitzera.

– Ongi etorria zara beti, Eusebia. Erdu barrura.

Opari gisa bildutako paketetxoa eskaini zion. Alboko apalategietan zuen adikunea bizkitartean.

– Tori, espero dut zure neurrikoak izatea. Ez nago ohituta gazteentzat arropa erosten.

Eusebiak ekarritakoa zer zen susmatzen zuen arren, gurariaz zabaldu zuen kartoi koloretsuak iragartzen zituen zetazko kuleroak begien bistan gelditu arte.

– Gura duzu probatzea, ikus dezazun zelan ematen didaten?

– Faborez, Mentxu.

Ordurako kaxatxotik atereak zeuzkan kuleroei tira eta tira aritu zen gerriko gomaren aldetik. Maitekiro besarkatu zuen Mentxuk.

– Mila esker, seguru ederto dauzkadala –murmurikatu zion belarrian, eta musua eman zion lokian–. Gura duzu kafe bat? Botika apur bat beranduago zabalduta ere...

– Ez du ardura, banoa laster batean.

– Zelan bizkarreko oinazeak?

– Ohartuko zinen, orain ez naiz hain konkortuta ibiltzen. Zuk esan baino lehenago hasi nintzen hobekuntza nabaritzen. Botika ilun hau baino zerbait hobea merezi zenuke.

– Ederto bizi naiz hemen.

Bat-batean Eusebiaren betarteak gai aldaketa iragarri zion. Mentxuk ere kopeta zimurtu

zuen, eta bestearen begi iheslariek indartzen zuten ezinegonari irtenbidea bilatu zion.

– Zer da? Zerbait jazo da?

– Zure aita. Gaixo dago. Amaren mandatua daukat zuretzat, espreski eskatu dit zuri abisatzeko.

Mentxuk paretaren luzean etzan zuen bizkarra eta distantzia apur bat hartuta besoak gurutzatu zituen.

– Etxean dago baina ez oso kontziente. Badakizu zelako botikak ematen dituzten horrelakoetan. Ospitaleko gela bihurtu dute haren ohe ingurua. Hilabete gutxiko kontua izango da antza. Aste batzuetakoa beharbada.

Inoizko moltso tristeenetakoa bildu zitzaion kolkora, huts egindako gomutez eta usteldutako desirez kateaturikoa.

– Juan neba etorria da etxera –esan zion Eusebiak.

Mentxuk ironiaz egin zion barre bere buruari. Familiako arkitektoa Madrildik etorria, eta hain hurre bizi zen alaba botikariak ezin aita lagundu.

– Amak esan dizu neu agertzea gura duen?

– Bai.

Amildutako begiradak adierazi zion ezezkoa, hobe zuela Nerbioiaz bestaldera ez egitea.

– Esan egiozu amari asko estimatuko nukeela berarekin behintzat egon ahal izango banu –keinukera zantarrez bere buruari adierazi zion esakunea txarto aukeratu zuela, eta aurrekoa zuzendu guran hurreratu zitzaion–: Eusebia, esango diozu berarekin egon gura dudala?

Negar ezti nasaiak isuri zituen Eusebiak, poltsotik eskuratutako musuzapi zuriaz txukatu zituenak. «Esango diot, esango diot», xuxurlatu zuen andrazkoak, eta Mentxu haren eskuak bere paparrean bildu arterainoko distantzia estuan gerturatu zitzaion. Kristal hotsa entzun zen atarte aldetik, eta hirugarren pertsona baten presentzia hurrekoegiak intziriak eten eta sudurtzuloak zintzatzea eragin zion Eusebiari.

Ustezko bezeroari berehalakoan kasu egingo ziola goratu zuen Mentxuk aldarria, eta eskerrak eman zizkion Eusebiari besterako kontsolamendu berbarik bururatu ezinean. Botika eta ostatua lotzen zituen atera lagundu, eta telefono azpian zegoen aulkian jesarri eragin zion.

– Itxaron hemen. Segituan naiz.

Botikako atea zabalduta gaztetxo ezezagun bat azaldu zitzaion, ea jaietako eskuliburuan iragarkirik ipini gura ote zuen galdezka. Itxaroteko eskatu zion eta denda zabalik zegoelako adierazle ziren eragiketa guztiak egin zituen: errotulutxoa itzulbiratu, pertsianak jaso, eta erakusleihoko argitxoak isiotu. Iragarkien salneurriez itaunduta papertxoa eman zion gaztetxoak. Pentsatu egingo zuela erantzun zion Mentxuk, handik astebetera pasatzeko berriz. Ia segidan sartutako bezero bati esparadrapo kaxa bat kobratu ondoren ostatuko korridorera itzuli zen.

– Komuna hor aurrean da, ezta? –itaundu zuen Eusebiak.

Mentxu haren zain jesarri zen libre utzi berriko aulkian. Telefonoak jo zuen buru gainean eta bigarren tinbre-hotsaren aurretik erantzun zuen Mentxuk. Santos zen, zortziak aldera agertuko zela. Adostasunezko agurraz telefonoa gakoan eskegi ostean Eusebia bazetorren matrailetako azken ur-bustidurak eskuaren atzealdeaz sikatuz. Kaleraino lagundu zuen.

Botikaostetik besaulki moduko jesarleku malgua eroan zuen mostradore ingurura, arratsalde

hartarako lagungarria izango zitzaiolakoan. Egunkaria tolestu eta aulkian luzatu zituen lepo-sorbaldak sabaiari so. Gogor egin behar izan zion bere buruari arratsaldean agertutako bezeroek agintzen ziotena baino alaitasun gehixeagoz kasu egiteko.

Agindutako orduan azaldu zen Santos. Gerriaz bultzatu zuen atea, eskuak zurezko bilgu handi batekin hartuak zeuzkan eta. Biltegira joan ziren elkarrekin.

– Gaur goizaldean ipini ditut antena eta kableak –lurrean utzitako kaxaren goikoaldea irekita ikus zitezkeen tresna metalikoak seinalatu zizkion–. Zure gelan instalatuko dut, ezta?

– Bai, libratu dizut horretarako mahaia. Bakarrik moldatuko zara?

Baiezkoarena egin zuen Santosek eta zegoen lekutik mugitu barik kokorikatu zen.

– Berba egin duzu Joselurekin?

Mentxuren galderak ez zuen irribarre hotz baten erantzuna baino jaso. Apur bat pentsatu ostean, Santosek:

– Biharkoari ez diot batere itxura onik hartzen. Ez daukat horretarako arrazoirik, baina... hala da.

– Ez daukazu zertan kezkaturik. Ikusiko duzu, Joseluk ere primeran egingo du berea.

– Fidatzea beste erremediorik ez daukat. Baina arrisku handiegia hartu dugula iruditzen zait.

Kaxa barruko edukiak miatzeari ekin zion Mentxuk. Estalkia ostera itxi eta ahurkada jo zion gainean. Hura aurrera egiteko seinale legez, zama berriro goratu zuen Santosek. Aterako bidean esan zion:

– Zuk ere ez duzu oso pozik ematen.

– Ez da horregatik baina. Aita larri dagoela esan didate gaur, ez dela luzaro biziko.

Santosi besoartean zeukanak entzun berriko albistearen aurreko erreakzio ganorazkoa eragotzi ote zion ematen zuen. Kokotsa kulunkatu zuen ez aurrera ez atzera iraun zuen denboraz, Mentxu hurreratu eta kartoiaren albo batean abian jartzeko seinalearen moduko kolpetxoak jo zizkion arte.

–6–

Itsasgorak halako harro puztaldia agerrarazten zion Nerbioiko ingurumariari. Gauaren itxiak eta ertzetan piztutako fokuek erreka zatiari barruko lokal baten inpresioa kutsatzen zioten. Eskumako eszenategian hirugarreneko txandan jokatu behar zuen Joseluk bere lehenengo borroka, eta ibai ertzean ankilatutako ontzi handi batetik ari zen begira, artilezko txabusinak ematen zion babesari larregizkoa eritzita. Ibaiaren erdian gabarra batzuen gainean paratuta zeuden *ring*-ak eta ikusleak hiru bazterretan pilatuta: Arriagaren ondoko plazan, Arenaleko zubian eta tren geltokiaren inguruan. Plazaren ertzean burdinaz eta egurrez eraikitako harmaila gisako tramankulu erraldoia atondua zen eta, autoritate eta kazetarientzat gordetako esparruaz aparte, erreматean diru gehien ordaindutakoek berton zuten saioa ikusteko patxada. Gainerako jendea barandiletan zegoen, eta irudi luke ia guztiak hiritik kanpo etorritakoak zirela; plazako tribunan zeudenen jantzi dotoreagoen kontrastean haiek luzi-

tzen zituztenek halamoduzkoak ematen zuten. Borrokaldi bakoitzak ez zuen hamar minutu besterik iraungo, asalto koxkor bi, eta hiru toki desberdinetan hain saio azkarrak ikusi behar izateak areago ozenagotzen zuen jendarteko murmurio hotsa. Arerioaren lur jotze azkarra eragingo zuen kolpe zitalaren atezuan zebiltzan denak, ikusleak zein boxeolariak.

Txalupa batek hurbiltzen zituen boxeolariak zegokien borroka-esparrura eta Joselu ere hala abiatu zen gimnasiotik ezagutzen zuen Toniorekin batera. Klubeko entrenatzaile nagusia bere izkinan izatearen segurantziaz ekin zion borrokari. Aitak emandako azken aholkua gogoratu zuen, irudika egik jendea hiri begira dagoela eszenatoki batean legez, aktore baten gisa joka egik, txukun-txukun, dena pelikulan hartzen ari den kamera baten aurrean bahintz moduan, indarra baino inportantea baita dotorezia.

Zartada gutxiko borroka izan zen estreinakoa. Indarrak dosifikatzeko aholkuak ailegatu zitzaizkien etengabe izkinetatik. Epaileek puntuaketan Joselu izan zela garaile erabaki zuten, eta antzeratsu jazo zen hurrengo bietan ere. Borro-

ken arteko tartea gero eta laburragoa izaten ari zen, hasieran hogei minutu izan zirenak hamarrean gelditu ziren, eta atsedenaldiko une horiek lepoaldean toallaz puztutako txabusina jantzita pasa zituen. Ez zituen eskunarruak erantzi ere egiten eta elbarritutako mozoloa ematen zuen esku baldarrez ezin baliaturik egikera guztiak –ura edan, izerdia txukatu, haizea hartu– besteren laguntzaz burutu behar zituenean. Zerua ez zen oskarbi eta izarrak ezkutatuta zeuden hodeien atzean, baina epel zegoen gauaroa. Entzundako txalo mordoetatik bakar bat ere bere familiakorik ez zela bazekien, inor ez baitzen Bilbora etorri.

Final laurdenetako borroka izaten ari zen interesanteena, Joseluk jokatutakoetatik. Kontrarioa ezezaguna zuen, Santutxukoa, aurkezpenean bozgorailuetatik entzun zuenez. Lurrera jausi zen lehen asaltoa amaitzeko minutua falta zela, baina estropezuz gehiago izan zen Joseluren oldarraz baino. Halan segitzeko eta batez ere masailezurrean saiatzeko agindua jaso zuen asalto bien arteko atsedenaldian. Aholkuei kasu eginez, azken hiru minutukoan bestearen aurpe-

gia hartu zuten jopuntu Joseluren eskunarruek. Harrituta zegoen santutxuarrak guardia zein baxu zuen ikusita eta mozolotuta legez zegoen gainera. Borrokak burura egin aurretik eten zuen epaileak, eta Joseluren aldeko garaipen teknikoa erabaki.

Zarandona txapelduna harmailean zegoen eta haren janzkera deportiboak kontraste bitxia eragiten zuen inguruan zituen puru-erretzaile gorbatadunen alboan. Final aurreko saioa uste baino errazago izan zitzaion Joseluri. Bere hanken dantza hasieran bezain sasoitsu zegoen. Ematen zuen nekeak ez ziola indarrik gutxitu. Trapagako Martinez izeneko baten kontra ari zen, eta biotatik gailen irtengo zuenak jokatuko zuen Zarandona handiaren kontrako azken saioa. Urduritasuna menperatuta zeukan itxura batean. Horrek bere kolpeen zuzentasuna findu egiten zuen. Egun hartako saioan guztiak oilar pisuko boxeolariak ziren, baina aurrean zeukan honek Joseluk baino hamar kilo gehiago zituela zirudien. Joselu bezain bizkor mugitzen zen hala ere. Dantza laburrean ari zen bitartean besoak gerriaren alboetara jaisten zituen bestearen

erauntsia probokatu guran. Eraso egiteko agindua heldu zitzaion izkinatik. Trikimailuan jausteko beldurrez baina aurrera egin zuen Joseluk eta baita haren gibel eta giltzurrunetan jo ere. *Ring* bakarrean aritzeak ikusle guztiak haiei begira zeudela zekarren, eta oraingoan ez zegoen aurrekoetako zarata nahasketa, ia jende guztiak batera egiten baitzuen oihu eta txalo. Hiru kolpe on ematea lortu zuen bigarren asaltoan. Denbora berean, indarrak ahitzen ari zitzaizkiola konturatu zen, bernetan karranpak sentituta.

Puntutan irabazi zuen Joseluk amateurren arteko final hura. Berebiziko garaipena balitz gisan ospatu zuen epaileak haren besoa goratu zuelarik. *Zurrutas*-ek ez zuen lona gainera irteteko asmorik agertu, baina Joseluk norbait besarkatu beharrez besotik tira egin zion prestatzaileari. Hantxe aritu ziren biak gerriari oratuta saltoka. Hamaiketarako ordu erdi falta zenean zeremoniaren puntu gorena heldu zen: Zarandona zutitu zen harmailetan eta argi-foku mugikor batek jarraitu zion haren ibai ertzerainoko ibilbideari. Nerbioi erdiko borrokalekura garraio-lanak egiten zituen txalupa ez zen arraunez edo motorrez

aurreratzen, mutur bitako txikota luze baten atoian baino. Txundituta zegoen Joselu laukiaren albo batean. Emozionatu ere egin zen txapeldunak bere besoari heldu eta goratuta erdi-erdira lagundu zuenean. Bera baino askoz helduagoa zen arren, Zarandonak giharrak apur bat zailduagoak zituela ematen zuen. Txori baten formako tatuaia zeukan ezkerreko besagainean, eta hari albokeraz erreparaka gelditu zen Joselu. Megafoniatik jakinarazi zuten atzeneko borroka hura bost asaltotara izango zela. Joseluk izkinara begiratu zuen azken orduko aldaketa haren arrazoia norbaitek azaldu behar ote liokeen pentsatuta. Zarandonaren ilerik gabeko larruazalak distira egiten zuen gantz labaingarriaren ondorioz.

– Katua lehorrean da? Txanda –galdetu zuen Mentxuk azpiko botoiari sakatu eta ezpainak mikrofonora hurreratuta.

– Lehorrean eta siku –izan zen jasotako erantzuna, Santosena ematen zuen ahots zirtzilatu batez–, ondo-ondoan aditzen ditut haren marrantatxo alaiak.

Erantzuna argi jaso zuelako berrespena silaben artean ia etenak eginez errezitatu zuen Mentxuk:

– Txakur handiaren arrastoa ikusiz gero, abisatu.

Eskuartean zuen txiskeroko metxa txirikordatu horixkarekin gora eta behera ari zen eta, arestiko esakunea ahoskatu ostean, esku biak libratu zituen zigarro berri bat egiteko. Hautsontzian dozena bat inguru zigarroren hondarrak zeuden, azken hiru orduetan ohi baino maizago erretakoen lekuko.

Bolumena jaitsi zuen irratian, aurrealdeko saretxo biribilean hedatzen ziren ziztu eta burrunba etenak apur bat motelagotzearren, eta diskogailuko musika goratu. Hautsontzia hartu eta ohean etzanda isiotu zuen zigarro egin berria. Atzamar pareaz heldutako zigarroa zirimolatu zuen airean, orkestra sinfoniko bateko zuzendari baten moduan, eta keaz egindako idazkera biribilkatua buru gainetik desagertzen zitzaion sabairantz.

Harrezkero ez zuen irratian bestelako ahots oihartzunik espero. Joseluk Bilbon zer emaitza

eskuratu zuen jakin gura izan zuen. Rafa borrokak ikusten han izana zela seguru zegoen, baina segurtasun arrazoiengatik ez zion erregutu jazotakoaren berri emateko telefona ziezaion. Atea jotzen aditu zuen, eta aurrera egiteko baimena eman zion Antoniari.

– Zer, badakigu zerbait Bilbokoaz?

Buruz ezezkoa egin zuen Mentxuk.

– Hondoko gelan garbiketa egiteko asmoa neukan.

Jaiki egin zen eta gelaz bestaldeko ateraino lagundu zuen. Atea zabaldu ere berak egin zuen, Antoniak eskuak hartuta zeuzkalako erratza batean eta baldea bestean. Ohean jesarri zen eite automatikoz, atzera begiratu barik, altzari hartarako distantzia neurtu beharrik ez balu legez.

Gonak belaunen gainetik orkatiletaraino zelan egiten zuen begiratzen iraun zuen aldi luzean, gaixoen gelan Antoniaren ibilkeraren hotsak entzuten zituen bitartean. Artean diskoa amaituta zegoen, eta ur txorrotadaz baldea bete eta erratzaz lurra igurzten aditu zezakeen hormaz bestaldetik. Sarritan erabiltzen zuen musi-

karen aitzakia gela hartatik batzuetan etortzen ziren aieneak burmuinetan barnera ez zekizkion.

Txapeldunaren ezpainetan ikusi uste izan zuen irribarrea iraingarria egin zitzaion Joseluri. Oldartsu ekin zion laburretik ezker-eskuma. Kolpe guztiak lar azkar eta arinak ziren. Bestearen beso gotorretan egin zuten. Minbera zeuzkan atzamar-kozkorrak, eta kaskezurraren kontra jotako kolpe batek ezin disimulatuzko oinazea eragin zion. Ukabilik sartu barik aritu zen Zarandona lehen minutuan, baina handik aurrera, asaltoa amaitu arte, zartako zaparrada jasan behar izan zuen Joseluk. Soka ingurutik alde egiteko kontseiluak entzun zituen azpialdetik baina nondik irten ez zuen aurkitzen. Hots metalikoak adierazi zuen norbere izkinarako bidea. Entrenatzailearenak ez ziren animozko orroak entzun zituen, ipini berria zegoen aulkian jesartzen zen bitartean.

Bigarren eta hirugarren asaltoak ere berdintsu joan ziren. Lurrera bota zuen behin, zeharkako matraileko-andana batetik babestu guran ari

zelarik gantxoz sartutako kolpe siku baten ostean. Epaileak lau esan arte Joseluk lurrean itxaron zuen nahita. Burua oihaletik gertu zuenean aurpegi ezezagun bat ikusi zuen altura bertsuan, minutu eskas falta zela esan ziona. Laugarrena hasi aurretik, handituta zeukan ezkerreko bekaina eta haragi ponpatuak bekokia desitxuratzen zion zantarki. Jendarteko orroak eta eskuzartak ez zituen lehen bezain garbi aditzen. Burmuineko pantailan, entrenamenduetan behin eta birritan errepikatutako guardi jarkerak eta beso-buruak ikusten saiatzen zen. Hasteko *gong*-a aditu zuelarik eskunarruak altxatu zituen indar faltak agindu baino gorago. Ezin zuen bestearen errukirik espero, eta biribileko dantza baten zorabioan kolpe baten itzela sentitu zuen ezkerreko matrailezurrean. Zentzumenak lausotuta egon zen segundo batzuetan baina, harrigarriki, zutik segitzen zuen konortea erabat berreskuratu zuenean. Publikoak ere ez zuen Zarandona asko xaxatzen eta bere onenak eman barik ari zen nabarmen.

Desesperoko iraunarazi guretan babestuta iragan zuen bosgarren eta azken asaltoa. Duin-

tasunezko hiru eraso egingo zituela erabakita zeukan, bana minutuko, azken indar hondarrak hartara xahutzeko. Bi besterik ez zituen egin. Saihetsetara zuzendutako kolpe guztiek bestearen ukondoa jotzen zuten, eta Zarandonaren burua hasieran baino urrutiago zegoela begitantzen zitzaion. Eskunarruetan tona banako pisuaren sentsazioaz beherantz laxatu zituen besoak borrokaren azkena entzun bezain laster. Giltzarrapo baten moldean besarkatu zuen txapeldunak Joseluren gorputz unatua eta besoa burutik gora jaso zion une labur batez. Ondoren, bere kasa aritu zen Zarandona, laukiari itzulika garaipen jauziak eginez.

Urdinez jantzitako hiru gizon garaikurren banaketarako behar ziren kaxoiak, mahaia eta enparauak igotzen hasi ziren, trajez zegoen gizon batek, besteen lana erraztearren, hutsartea zabaltzen zien goiko soka bien artean.

Konpainia beharrean balego legez, piano aurreko aulkitxoan atseden hartzera gonbidatu zuen Antonia eta, gura ote zuen itaundu barik,

jerez basokada bat zerbitzatu zion. Lurrean utzitako garbiketa-tresnek lekuz kanpoko itxura zuten oraindik ere bernizaren distira zeharo galtzeke zeukan pianoaren aldamenean. Joseluk borrokaldiak irabazi ote zituen jakinguraz zegoen Antonia, eta triste itxurako bere begiek ez zuten etsitzen Mentxuren keinukera zalantzazkoaren aurrean. Antoniak ez zuen ardao gozotik errepikatu gura izan, Mentxuk berea hustu eta gero berriz betetzeari ekin zionean. Bere burua gaia aldatzera behartuta edo, alai hasi zitzaion batbatean Antonia ostatuko bezeroen berri ematen, goiz hartan bertan bete baitzituzten gela guztiak, merkanteko tripulazio ia oso baten kontura.

– Pentsa, eguerdian beste hiru etorri dira ostatu eske, eta ezezkoa eman behar izan diet!

Zutituta, pianora hurbildu zitzaion. Antoniaren ile beltzarana buruaren atzealdean biltzen zuen mototsaren kontra estutu zuen Mentxuk ahoa, begiak itxita, malkogai zitezkeen azkura batzuen iturburua moztuz. Areetako erloju matxuratuari buruz aritu zitzaion berbatan.

– Beno, Mentxu, oraindik badut eginbeharra sukaldean, mila esker.

Eskuetan edalontzi bana geratu zen gela erdian, eta isiltasun sortu berriak mesede edo kalte egiten ote zion erabaki guran iraun zuen minutu batez. Ondoren, beirak armairuko apal batean utzi eta meatzariak zeuden gelara egin zuen, injekzioen sasoia heldua zen eta.

Hamabost bat lagun zeuden koadrilan bilduak erreka alboko geltokian etxera eroango zituen furgonetaren zain. Joselurekin batera gimnasioko kideak ziren eta baita haien familiarteko batzuk ere. Bere aurpegian ez zen eskuarteko garaikurraren tamainako alaitasunik nabarmentzen. Neke trazak zituen behargin itxurako gizona zetorren gidari eta puru baten zuztarra hortzetatik kendu barik agurtu zituen bertora igotzen ari ziren bidaiariak. Haietako bat bere semea bide zen eta haren apa jaso zuen matrail bixarraz ziztatzailean. Ibilgailuaren atzealdean jesarri ziren guztiak, gazteenak lurrean eta helduagoak kaxa batzuen gainean. Jai giroa zen nagusi. Joseluk eskuratutako garaikurra zerabilten

batetik bestera, baita ardaoa botila batetik isurita ahoz aho irauli ere.

Burdina zirinez gorritutako moilak pasatuta, labe garaietako itzal erraldoiek iragarri zieten Sestaora heltzekotan zirela. Lagunarteko gehienak furgoneta uztera prestatu ziren jaikita. Baten bat harritu egin zen Joselu ere zutitzen ikusteaz, eta galdegin ondoren jakin izan zuen aitarekin lotua zela berton, herrira hark eroango zuen eta. Atorraren ertzaz sikatuta sartu zuen garaikurra zaku handian.

Errepidera irten eta bizkarra zamatuta Repelaga aldera jo zuen. Burumakur eta pausokera geldoan zebilen, aldatsagatik baino adorea akituta. Oso lantzean behin baino ez zituzten kamioi edo autoen faroek bazterrok argitzen. Eskailera bat hartu zuen errepidetik urruti zegoen gainalde bateraino. Fardela lurrean utzita, beherantz begiratu zuen. Gau estaliko iluntasunari aski babesa eritzi ez, eta sasitza baten gerizpetik begiztatu zuen berrogei bat metrora zegoen errepidea. Hantxe, miratoki baten hedaguneko espaloian ikusi zuen aita, farola baten argipean motozikletaren kontra apoiatuta. Eskuak faltrike-

ran iltzatuta zeuzkan. Burua artega zerabilen alde batera eta bestera. Txalekotik dingilizka zeroan erlojua begietaratzen erreparatu zion. Joseluk barandako burdinei hots metalikoa eragin zien eskukada bortitz batez. Lurrean zegoen zakuak ere ostiko latza jaso zuen. Metro batez aienatu zen fardel marroixka. Eskumako oin puntan min hartutakoaren keinua egin zuen Joseluk.

Sorbalda berriz zamatuta ekin zion atzealdeko erripan gora. Erritmo bizian ari zen oraingoan eta azkar batean ailegatu zen Repelagako etxe berriak eraikitzen ari ziren orubera. Taxia zirudiena berton zen bere zain. Gorputza txapa beltz metalikoari itsatsita zeukan gizonaren erretolikak ez zuen lortu Joseluk ahoa zabaltzea. Autoan sartu ziren.

Laborategiko txabusina zuria aulkiaren bizkarralde altzairuzkoan zegoen zimurtuta, beharrean baino denborapasan ari zelako adierazle. Izara batez estalia zuen gelaren beste muturrean zegoen mahai gaineko irrati emisorea. Doinu jostalari bat ari zen ahapeka kantari, eta

ezkerreko atzamarrak zituen danborra bihurtutako oholaren kontrako makilatxo ordekoak. Atzazalez edo hatz-mamiz jo, sortzen ziren soinu mota desberdinekin ari zen olgetan.

Atearen danbatekoagatik ohartu zen norbait etorri zela eta lepoa jiratuta Joselu ikusi zuen. Berriz irteteko imintzioa egin zuen ateko eskulekuari helduta.

– Okupatuta baldin bazagoz, beranduago etorriko naiz.

– Utzi mozolokeriak, sartu barrura eta jesarri –aurpegiaren okertuagatik Bilboko borroka legea txarto irten zela igarri zuen–, hire zain nengoan.

Joselu eroso senti zedin hurbildu egin zitzaion pausokera azkarrean eta, zakua ohe ondoko alfonbratxoan lagatzen lagundu eta gero, elkarrengandik gertu jesarri ziren, gaztea aulkian eta andrea koltxoi gainean. Betondo bat ubeltzen hasia ikusi zion Mentxuk, eta beheko ezpaina apur bat pitzatuta.

– Zelan joan duk saioa? Egona izango haiz amarekin, hura ere joranez zegoan zer izan den jakiteko.

– Espero legez, borroka guztiak irabazi ditut, salbu eta txapeldunaren kontrako azkena, noski.

Iji-aja eta orrotan hasi zen Mentxu eta oheko malgukiek zarata egin zuten haren ipurmasailen erritmoan.

– Ospatu egin beharra zagok! Halakorik! –edarien apalategira hurreratzeko imintzioa egin zuen.

– Nik ez dut ezer gura. Oherako desiratzen nago.

– Nire eskaintza aintzat hartu behar huke, horrelako garaipenak ez dituk askotan izaten.

– Ez adarrik jo, Mentxu. Begien bistakoa zen nire borroka guztiak aurrez moldatuak zirela: «Raguadas junior, Portugaleteko kanoia, haren ukabilek ez dute parerik, saio bezainbeste garaipen lortutakoa...».

Ohean jesartzera egin zuen Mentxuk Joseluren burlaizea sufritzen zuen bitartean.

– Halantxe gustatzen zaidak niri, jende azkarrarekin aritzea. Eta, hik zer uste duk, ikusleak eta kazetariak ere ohartu direla? Ez nikek gura hire familia taiu horretako eskandaluaz zipriztintzerik –buruaren abiada gaiztoari muga ipintzea-

rren ahoskeraren larria arindu zuen–. Hire informaziorako, borroka guztiak ez hituen hitzartuak. Hiru besterik ez dituk izan. Lehen biak, hire gimnasioko kideen aurka jokatutakoak, garbiak izan dituk, nabarmenegi ez zedin izan. Hori bai, zozketa modu onekoa suertatu eta kontrario kaxkarrenak egokitu nonbait.

– Gura duzun legez –buruari eragin zion txotxongilo barregarri baten antzean.

– Uste diat hanka sartze itzela egin dudala, planaren xehetasun guztiak hiri kontatu ez izanarekin –bake bilako eitea kutsatu zion ahotsari–. Ez huen gaiztakeriaz izan.

Joseluk ezjakintasunezko imintzioaz kizkurtu zuen gorputza, eskuak paraleloan goratuta eta sudur-ezpainak kopeta aldera erpinduta. Mentxuk esandakoa zertara zetorren ezjakinarena egiten ari zen. Leihora iritsita, andreak gortinen arteko zirrikitutik begiratu zuen kalera.

– Lehen ez haut ailegatzen sentitu. Ez diat motorraren hotsik aditu.

– Ahaztu egin zait komentatzea. Aitaren zain baldin bazagoz, ez dakit noiz etorriko den. Nire aldetik egin dut honainokoa.

– Zer ba? Ez zineten elkarrekin etortzekoak?

– Bai, baina ez. Azken orduan erabaki dut. Bilbokoaren ostean lotsa ematen zidan harekiko buruz burukoa –bizkarra lurrera makurtuta zakuari heldu zion–. Eta gauzak esaten hasita, hona beste bat. Irabazi besterik ez nuela egin behar esan zenidan, eta garaikurra etxera ekarri. Ba... horrenbeste kostata irabazitako saria bidean galdu dut.

Esku biez zabaldu zuen fardelaren ahoa eta erakusteko legez hogei zentimetro altxatu zuen lurretik.

– Begiratu gura baduzu... ez dizut gomendatzen baina. Izerdiak lurrunduta dagoz janzkiak, eta kirats hezea ez zaizu gustukoa izango.

Idazmahaiko aulki jiragarria oin batez dandarrez eroan zuen Mentxuk bera zegoen tokiraino, eta berton jesarri. Joseluren berbakerak zuen tonuak, segurtasunez hain beteak, miretsita zegoen. Mutikoak lar astiro ahoskatu zuen hurrengo esaldia.

– Egia esan, hobe duzu behar horiek nire amari uztea. Zure eskuak finegiak dira horrelakoetan lohitzen hasteko.

– Aski duk, Joselu.

Enbragea sakatutako motor hotsa aditu zuten kaletik. Aulkiari bira erdia emanda Mentxuk leihotik ikusi zuen Santos atari aldean presaka. Joseluk ere nor izan zitekeen igarri antzean, mutu egon ziren bi-biak gelako atea ireki zen arte. Ezusteko aurpegiera zirriborratu zitzaion Santosi Joseluren presentziaz ohartutakoan.

– Joño, seme, hemen haiz? –arnasbeharrak bularraldea punpaka ibiltzea eragiten zion Santosi–. Zer jazo da?

– Borroka irabazi baina garaikurrik ez –esan zuen Mentxuk–, eta orain Joseluk azalduko dizkizu osterantzeko zertzeladak.

– Gutxi daukat azaltzeko. Nazkatu naiz zuen jukutria eta jolasez. Zer esaten ari naiz... jolasak? Inguruko ahalik eta jende gehienaz baliatzen zarete negozioa egiteko, eta negozioa egitea tira, baina ez jendea kanposantura bidaltzearen truke.

– Hoa poliki, gazte –eten zion Santosek.

– Zu eta biok behintzat bat gatoz –lasaitasunezko bufada egin zuen Mentxuk–. Neronek ere

gauza bera esan diot lehen, ea aita izanda zeuri kasu handiagoa egiten dizun.

– Ni ez naiz zuen gurpil horretako partea izango. Ez dut ezer ere jakin gura odol xurgatzearen eta morfina partitzearen asunto horrekin.

– Eta zer egin duk garaikurrarekin?

– Ez du ardura, Santos, oparitu egingo zuen. Jakingo zuen noski barruan zer zekarren eta agian onura publikoko hartzaileren bati emango zion.

– Zaila da zuena baino onura handiagoko hartzailerik topatzea.

– Ederto, txundituta nagok, azkarra haiz benetan –doinu trufariaz esan zuen Mentxuk, eta idazmahairantz jaiki zen–. Bost minutu besterik ez ditiat eskatzen... bazterrotan justizia banatzen duen aingerua izan gura baduk, emango diat nik zeren alde borrokatu.

Kaxoi batetik albuma atera zuen, argazkiz eta egunkari puskaz osaturikoa, eta orrialdearen zenbatgarrena buruz jakingo balu moduan zabaldu zuen.

– Bota egiok begiratua bilduma honi. Hemen daukak benetako gaizkinetako bat: Martin Cerezo, gaur egun taxista dabilena baina benetan polizi inspektorea dena; gerra ostean ezaguna izan huen Duesoko kartzelako funtzionario beharretan, eta bere esku hutsez garbitu zitian asko eta asko. Gutxi gorabehera hire aitak nozitu behar izan zituenen parekoak. Santos, azaldu diozu inoiz Joseluri zergatik daukazun ibilera aldrebes hori, herren moduko pausokera hori?

– Ez du merezi...

– Bai, bai, esaiozu zure seme esker onekoari Cerezo delako hori egunean-egunean Bilboko kaleetatik libre ibiltzen dela, jo eta gaur bertan justizia partituz garbitu dezan. Hor daukak, aingeru justiziazale horrek, noren kontra jo hire ezpata. Edo beste hau –albumaren hurrengo orria bistaratu zuen–, arma trafiko osoa kontrolatzen duena, baina Gobernadorearen oneritziz ari denez libro dabilena, edo beste hau, oso mediku errespetagarria, haurdun gelditzen diren putei abortoa egin ondoren bizitza osorako xantaiatzen dituena, edo beste hau... begira, zezen-plazako 7. tendidoan, Bilboaldeko gaizkinik handie-

nak biltzen dira... Zin egiten diat Santosek eta biok egin duguna, baldin eta zerbait txarrik egin dugula pentsatzen baldin baduk, hutsaren hurrengoa izan dela horienarekin konparatuz gero.

Erakutsitako azken argazkia zegoen albumeko orrialdera zeuzkan Joseluk begiak. Altzairuz lotua zirudien begiradaren norabideak, bekainak ere apurrik mugitu barik. Mentxuk amiñi bat alboratu zuen eskuarteko albuma, gaztearen begirada definigaitza noranzkoa ote zen jakitearren. Albumaren mugimenduak egindako angelu berera egin zuen Joseluren aurpegiak.

– Zeri erreparatzen diok?

– Ezeri ez.

Joseluk lepoari eragin zion, nora begiratu jakin barik. Berak ikusteko moduan jiratu zuen albuma Mentxuk. Adierazitako argazkiaren azpian, hilabete lehenago Santosek pasatako aldizkariko argazkia zegoen, buruetako bat biribil gorri batez markatua zuena. Gaztearen begi aurrean paratu zuen birritan.

– Zer ikusi duk argazki horietan?

Alde batera eta bestera astindu zuen burua. Santos ere hurreratu egin zen ohetik, beste bien

artean zegoena bertotik aditzearren. Argazki bietatik berriena ikusita, albuma askatu eta esku berberaz heldu zion Joseluren sorbaldari.

– Esaguk dakian guztia. Ez izan beldur.

Joseluk ere aulkia laga zuen eta besteen altura berean ipini.

– Zeren beldurra? –desafioka ari zen–. Zuek ere zergatik ez didazue kontatzen dakizuen guztia?

Albuma hartu zuen Mentxuren eskuetatik eta azalak paparretan ipinita erakutsi zien. Atzamarraz beheko argazkiari seinalatzen zion.

– Zuen kidea naizela diozue, eta kolpetxoak jotzen dizkidazue bizkarrean, «Joselu, zer jatorra zaren» eta «berebiziko taldea osatzen dugu hirurok» moduko tontakeriak esaten, pentsatuta ni legezko ume-moko batek ez duela gehiago jakitea merezi. Eta, denbora berean, benetan zertan ari zareten kanpoan ezagutu behar.

Atzamarraz kolpetxoak ematen zituen argazkiaren gainean.

– Horko morroi horrek jakinarazi dit zelako negozioetan zabiltzaten. Baita odol adulteratuarena ere. Algortako destilategi zaharrean izan

nintzen berarekin –esku bat libratuta Mentxuri zuzendu zion erakuslea–, hain zuzen, Mentxu, lokal hori zure izenean dago, eta jakin dut odol usteldu horren erruagatik jazotako heriotzen berri ere.

– Nor? –galdetu zuen Mentxuk.

– Hau –atzamarraz estekatu zitzaion biribil gorriz marraztutako buruari–. Ni ez nintzen nahikoa heldua zeuron ahotik horrelakorik jakiteko. Eta nik orain diotsuet: pikutara!

Metro baten bueltan egonak ziren hirurak, eta elkarrengandik urruntzea eragin zuen isiluneak. Inork ez zuen jesartzeko iniziatiba hartu. Azken aldiko bolumena epeldu zuen Mentxuk:

– Egon apur bat, Joselu. Espero gabeko zerbait ulertu dudala uste diat.

Jausten legez bilatu zuen jarlekua Mentxuk eta Santosek ere ia aldi berean egin zuen esertzeko mugimendua. Joselu bakarrik gelditu zen zutik eta kokapenen ustezko oreka apurtzeko beldurrez moduan bera ere jesarri egin zen.

– Hortxe, argazki horretan daukak, hire alproja-bizi osoan ezagutu duan kriminalik handiena. Eta noski, haren izenik ez duk jakingo, ezta?

– Ez, ez dakit. Eta zuk ere ez. Beraz, berdin gaude.

– Zer susmatzen dudan azalduko diat, gura baduk. Urtetan odolaren trafikoan ibili izan gaituk, baina trafiko garbian...

Mentxuren lan-mahaira hurreratu zen Joselu, eta lurrera jausten laga zuen beirazko ontzi txiki bat. Kraskaren osteko isiluneaz baliatu zen mutikoa:

– Egia izango da oraingoan? Beharbada bai –beste ontzitxo batek jo zuen lurra–, beharbada ez. Nekatuta nago. Ohera noa.

Joselu antxintxiketan abiatu zen aterantz. Santosek eskuturra oratu zion besoa goratuta, baina kolpe bortitz batez baztertu zuen Joseluk. Lurrerantz begiratuta saiatu zen Santos oinazearen keinua estaltzen.

Santosen etsipen imintzioak baretu guran Mentxu txukuntze zeregin zentzubakoetan hasi zen gelan bakarrik gelditu zirenean.

– Begira egiozu alde ona, Santos. Gauza bi behintzat argitu ditugu behingoz. Bata, ospitalera adulteratuta ailegatzen zen odolaren zergatia.

Eta bestea, Azken Portuko ustezko defuntua izan dela Joselu nahasten ibili dena.

Santosek burua jaso zuen astiro, horretara behartuta bezala. Mentxuk espero zuena entzun zuen.

– Atoiontzira ekarri dizkidaten paketeak esandako tokian laga ditut. Hiru joan-etorri egin behar izan ditut, uste baino gehiago pisatzen zuten.

– Berrogei kilo, gutxi gorabehera.

– Ez da larregi amarru huts baterako?

– Ez zen amarrua –birritan pentsatu zituen Mentxuk ondoko berbak–: horixe zen benetako operazioa. Garaikurraren barruan kilo ziztrin bat besterik ez zegoen. Orain, berriz, morfina kargamendu itzela jadetsi dugu.

Beheko ezpainari hozka egin zion Santosek, eta txistuaz hezetu aho inguruak.

– Zu ere amorratuta zaude, Joselu legez, aurretik kontatu ez nizulako?

Buruari eragin zion gizonak.

– Ez, ohituta nago...

– Horixe zen onena. Imajinatzen nuen Joseluri kontatu geniona kontatuta, bertsio horixe aile-

gatuko zela atzetik genituenen belarrietara. Eta, badaezpada, *Zurrutas* sobornatzeak ere ziurtatzen zigun helburua, denak Bilbora begira egotea.

Santosen hankapean ahaztuta zeukan Joseluk artile marroiko zakua, eta harantz makurtu zen mugimenduen abiadura mantsotuz. Arrazoia zuen Joseluk: barruko kiratsa jasanezina zen. Toalla, praka motz eta elastikoen artetik, boxeoko eskunarruak atera zituen Mentxuk, eta Santosen mustur aurrean ipini.

– Horixe pena, hauek hemen utzi izana! Beharko dituela iruditzen zait.

– Erokeriarik ez ahal du egingo behintzat...

– Utziozu egin dezan. Gu ere ibili ginen gure garaian.

– Bai, baina gerra galtzeko, gu.

– Bera beharbada ez. Zahartzen hasiak gara, Santos.

Besarkatu egin zuen gizona. Luze eritzitako segundo pare batez izan zituen Santosen sorbaldak bere esku-besoen mende. Besarkadari utzi eta ohean jesarri zen.

– Albiste on bat, Santos. Lehen Antoniak esan dit Areetako kanpandorreko erlojua konponduta dagoela. Bihar hasiko ei da orduak jotzen.

Santosek ardurabako zimurduraz okertu zuen bekokia.

– Gauzak aldatzen hasiko diren seinale.